

U.Z.E.I.

MENDEZ MENDE

**HISTORI
AGIRITEGIA**

ARO MODERNOA

fitxak

ELKAR

Hezkuntza Sailak onetsia 1988-1-7

- © UZEI, Esterlines, 8. 20003 DONOSTIA
Tel. (943) 429838 - 429839
- © ELKAR, S. A. Esterlines, 10. 20003 DONOSTIA
Tel. (943) 426319

Depósito Legal: NA. 1.607-1987

ISBN 84-7529-251-5

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L.

Tafallarako bidea, 1 Km. - Lizarra (Nafarroa)

Zuzendaritza

Joseba Intxausti

Koordinazioa

Jose R. Kortabitarte

Aholkularitza didaktikoa

Rafael López Atxurra

Itzulpenak

Joseba Intxausti
Fernando Mendizabal

Lankidetzak

Maria Jesus Aranburu
Pello Arrieta
Txema Elvira
Lourdes Herrasti
Karlos Kortabarría
Jesus Odriozola
Maiteder Uribe-Etxebarria
Rosa M. Virto

Argitalpen-moldaketa

U.Z.E.I.

AURKIBIDEA

HA 4:001	Erregeak, Enperadore?	016 AM*
HA 4:002	Estatuaren eta hizkuntzen mugak	016 AM
HA 4:003	Estatu-hazkundearen arrazoiak	019 AM
HA 4:004	Burgundia eta Frantzia	022 AM
HA 4:005	Bretainia: Ezkon-politika	024 AM
HA 4:006	Erret ordenantzak	026 AM
HA 4:007	Espainia = Gaztela + Portugal	028 AM
HA 4:008	Aginte osoagoaren egarria	031 AM
HA 4:009	Nafarroaren konkista (1512)	032 AM
HA 4:010	Gaztela eta Aragoa	033 AM
HA 4:011	Juduen lege-egoera berria	033 AM
HA 4:012	Moriskoak, Espainian	034 AM
HA 4:013	Baionako Elizbarrutia	035 AM
HA 4:014	Gaztela, erregeen morroin	035 AM
HA 4:015	Inkiszioa, monarki euskarri	036 AM
HA 4:016	Germanien kontrako zigorra (1523)	037 AM
HA 4:017	Frantzia frantsesez?	038 AM
HA 4:018	Nafarroa: Egoera politiko berria?	039 AM
HA 4:021	Artoaren garrantzia	046 AM
HA 4:022	Ameriketako garraio-indarra	048 AM
HA 4:023	Indiarrekin zer egin?	048 AM
HA 4:024	Historia isilerazia	051 AM
HA 4:025	Artoa: balio sozio-ekonomikoa	055 AM
HA 4:026	Maiak	059 AM
HA 4:027	Kultura ekologista	059 AM
HA 4:028	Maiak. Teknologia eta lana	059 AM
HA 4:029	Apez maiak	060 AM
HA 4:030	Maien hiriak	062 AM
HA 4:031	Maien arkitektura	063 AM

 *AM = "Mendez Mende. Aro Modernoa".

HA 4:032	Maien eskultura eta pintura	063 AM
HA 4:033	Azteken justizia	069 AM
HA 4:034	Agintea eta zoriona	084 AM
HA 4:035	Agintekeriaren ajeak	085 AM
HA 4:036	Inken bideak	086 AM
HA 4:037	Nekazarien produkzioa	088 AM
HA 4:038	Quipu-a: Estatistika eta Historia	088 AM
HA 4:039	Inken eraikuntzak	090 AM
HA 4:040	Inken sozialismoa?	093 AM
HA 4:041	Amerikarren ekarpenak	094 AM
HA 4:042	Kultura amerikarren mugak	095 AM
HA 4:043	Indietako Peru-n: Sistema ekonomikoaren etena	096 AM
HA 4:049	Gizaki-opalkuntzak	069 AM
HA 4:050	Azteken iragarkizunak	072 AM
HA 4:051	Munduaren sorkuntza, azteken arabera	074 AM
HA 4:052	Munduari segida ematen	075 AM
HA 4:058	Garraioa eta prezioak	102 AM
HA 4:059	Estamentuen zereginak	104 AM
HA 4:060	Nobleak eta burgesak	104 AM
HA 4:061	Ernazimentuko pobreak	106 AM
HA 4:062	Eliza, erregearen menpe	019 AM
HA 4:063	Jatordu eskasak	110 AM
HA 4:064	Jendearen handinahiak	110 AM
HA 4:065	Gremioa: Elkargo itxia?	112 AM
HA 4:066	Jakitute humanistikoa	113 AM
HA 4:067	Merkatarien matematikak	113 AM
HA 4:068	Inprimategia: Indar soziala	115 AM
HA 4:069	Idazle klasikoen egarri	116 AM
HA 4:070	Argitalpen pizkundetarrak	117 AM
HA 4:071	Herri Hizkuntzen arazoa	124 AM
HA 4:072	Gaztelaniaren alde	124 AM
HA 4:073	Erlijiotasun ahula (c. 1500)	129 AM
HA 4:074	Kultura burgesa	133 AM
HA 4:075	Artisten lorpen sozialak	134 AM
HA 4:076	Erroma, Mezena-hiria	136 AM

HA 4:077	Florentzia/Venezia	138 AM
HA 4:078	Estilo nahastuen aurka	145 AM
HA 4:079	Aberatsen mezenazgoa	149 AM
HA 4:080	Bedua: Erretereria	151 AM
HA 4:081	Jakintsua, bakarrik (c. 1550)	160 AM
HA 4:082	Kosmologiatik gizonaganaino	160 AM
HA 4:083	Anatomia berria (c. 1543)	162 AM
HA 4:084	Europa politikoa (XVI. mend.)	166 AM
HA 4:100	Vikingoak Ameriketara?	179 AM
HA 4:101	Piperrautsa	189 AM
HA 4:102	Euskal marinelak	203 AM
HA 4:103	Euskaldunak itsasoetan	204 AM
HA 4:104	Kolon-en asmo kolonialak	205 AM
HA 4:105	Indiak, erregeentzako (1531)	217 AM
HA 4:106	Aurkikunde-bidaia eta ekonomia (1488-1520)	217 AM
HA 4:107	Indiarren kontra, zergatik?	220 AM
HA 4:108	"Asiento" (1528-1640)	221 AM
HA 4:109	Bi ekonomien elkar-osagarritasuna	225 AM
HA 4:110	Casa de Contratación (1503)	230 AM
HA 4:141	Hierarkia aberatsa (c. 1511-1525)	239 AM
HA 4:142	Erreforma, gizartean (1521)	240 AM
HA 4:143	Doktrina lutertarren indarra (1517-1555)	243 AM
HA 4:144	Kalbinismoa eta ekonomia	264 AM
HA 4:146	Kontzilioaren asmoa (1545-63, 1962-65)	278 AM
HA 4:147	Bortxa erlijiosoa	283 AM
HA 4:148	Minoria zigortuak	285 AM
HA 4:149	Geneva: Bizitza kontrolatuta	286 AM
HA 4:150	Heretikoaren gorrotoa (1550-1600)	288 AM
HA 4:174	Hitzarmen soziala	292 AM
HA 4:175	Monarkia: Jainkozko jatorria	293 AM
HA 4:176	Frantziako absolutismoa	296 AM
HA 4:177	Erret agintean	301 AM
HA 4:178	1689ko Eskubideen Agiria	308 AM
HA 4:179	Merkatu-lehiaketa	309 AM
HA 4:180	Zer zen merkantilismoa?	316 AM

HA 4:181	Nabigazio-Akta ingelesa	319 AM
HA 4:182	Amsterdam: Bankuaren izenona	320 AM
HA 4:183	Espainiako Handiak	321 AM
HA 4:184	Demografia zaharraren mugak	324 AM
HA 4:191	Merkantilismo ingelesa	318 AM
HA 4:193	Teleskopioa	331 AM
HA 4:194	Zientziaren garaipena	335 AM
HA 4:195	Zientziaren balioa (1620)	337 AM
HA 4:196	Aristotele-ri kritika	342 AM
HA 4:197	Shakespeare-ren esanahia	347 AM
HA 4:198	Erroma barrokoa	361 AM
HA 4:199	Gesú-ko eliza	362 AM
HA 4:200	Euskal Herriko artea: Mendeak aldatuz	393 AM
HA 4:205	Pizkundea/Barrokoa	357 AM
HA 4:207	Hilkortasunaren jaitsiera: Ingalaterra/Gales	398 AM
HA 4:209	Labore berriak	400 AM
HA 4:210	Industri iraultza (Kronologia, herrialdez)	401 AM
HA 4:211	Garraioak Ingalaterran (1750)	402 AM
HA 4:212	Asmakuntz patenteak	405 AM
HA 4:213	Zientzia eta Industria	407 AM
HA 4:214	Entziklopedia (1751-1764)	413 AM
HA 4:215	Pentsamendu rousseautarra	413 AM
HA 4:216	Euskal Herriaren Adiskideak	416 AM
HA 4:217	Gerra Koloniala	423 AM
HA 4:218	Despotismo "argiztatua" (XVIII. mend.)	426 AM

POLITIKA

1661-1715

Erregeek ez dute sarritan prestatu izan printzeen hezkuntzarako liburu eta oroitidazkirik. Frantziako Luis XIV.aren "Mémoires pour l'Instruction du Dauphin" salbuespen bat da: bertatik hartu da agiri hau. Botere absolutuaz eta aginte monarkikoaren bilakaeraz esaten direnengatik badu guretzat interesik aski.

"Baina Karlomagno-ri Enperadore-titulua segurtatzeko, hain oinarri egokia eman zion bikaintasun honek (...) ez zuen luzaro iraun haren ondoren. Enperadore-dignitatearen distira, garai haietan Frantzian egiten ziren ondokoen arteko partiketek itszali zuten. Eta gero, berdin herentzidunen ahultasunak eta zabarkeriak, batez ere Rhin-aldetik honako ondorengoena. (...). Alemanak, berriz, gure odoleko printzeak bastertuta, berehala jabetu ziren dignitateaz, edo hobeki: haren ordeztu beste bat sortu zuten, Inperio errotarrarekin edo gure arbasoen Inperio berriarekin zerikusirik ez zuen beste zerbaitekin.

Inperio-dignitatea gizonen asmakizuna da, garbiki; Erregegoa, berriz, zalantzarik gabe Jainkozko erakundea da. Koroaren eskubiak ez daitezke baliozkotasunez bestetara. Halabeharrezko ondorio hau ateratzen dugu hortik: gure erregeak dira betidanik Alemaniako enperadore legitimo bakarrak". (LUIS XIV: *Mémoires*)

Luis XIV.a Frantziako errege izan zen, pertsonalki 1661etik 1715eraino. Bere ihardueragatik, Handia edo Errege Eguzkia deitu izan zitzaion. 1643tik 1661erarte, bere amak, Austriako Anak, eta Mazarin-ek gobernatu zuten. Absolutismoa unerik distiratsuen era eman zuen, eta Mendebaldeko Monarkien artean orduan lortu zuen hegemonia Frantziak.

Ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa"n Lurralde-Monarkia modernoei dagokiena: Lehenik, batasun-molde ezberdinak (16-40. orrialdeak). Eta, berezikiago, Estatu modernoaren garapena: Absolutismoa (289-304. orr.).

EGJTEKOAK

- Ikus Atlas historiko batean Karlomagnoaren garaiako inperioa nolakoa zen, eta ondorengoekin gertatutako zaliketa. Aldera ezazu, gainera, XVI. mendeko Hexagonoa XVII. ekovarekin.
- Bila Entziklopedia batean Luis XIV.aren eta Karlomagnoaren biografiak.
- Ikus hiztegi egoki batean, Enperadore, Printze, Inperio, Erregelgoa kontzeptuak.
- Zeintzuk izan ziren eta nola sakondu zuten beren teoria monarkia absolutuaren teorikariek? Bila ezazu informazioa Hobbes eta Bossuet idazleez.
- "Ni neu naiz Estatu" esaldia interpreta ezazu. Zer suposatzen du horren esanahiak.
- Nola deskriba daiteke Luis XIV.aren Absolutismoaren antolamendu politikoa.

ERANTZUTEKOAK

- Karlomagnoaren Enperadore titularen galera argitzeko zein arrazoi ematen dira agirian.
- Agiriko "Alemanak, berriz, gure"tik puntu apartea artekoak zein esan nahi du?
- Zeintzuk dira azken parralaren ideia urdatzak.
- Zein da testuaren pentsumendua bere osan.
- Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esuten direnelatik.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XVI-XX. mend.

P. Bec Estatuena eta hizkuntza ofizialen barruti geografikoak bat egiteaz ari da. Agiri honen autoreentzat zentralizazio prozesu bat gertatu da Europako zenbait Estatutan, eta, urrutira jo gabe, Frantziako adibidea gogoratzen digu. "Muga estatal eta linguistikoen berdintzapen automatiko bat" ekarri du horrek askoren pentsamoldeetan: lurralde nazionalaren eta hizkuntza ofizialaren mugak errazegi identifikatu ohi dira.

"Lurralde nazionalaren eta hizkuntza ofizialaren barruti geografikoek, bienak osorik, bat etorri behar dutela uste izatea erabat zentzuzkoa da askorentzat. Zaila gertatzen da, nonbait, hizkuntza nazional ofizialaren ondoan, beste hizkuntzak ere egon daitezkeenik pentsatzea ere, herrialde berean eta ofiziala bezain baliozko direla, gainera. Ohartu gabe, berdintzapen automatiko bat egiten da hizkuntzaren eta estatuaren artean; bereziki agerian dago joera hau Frantzia-n, mendez mende jasaten dugun zentralizazioak egia osotzat saldu bait digu uste hori. Zentzu honetan, ez dago ikusi besterik Britainia, Euskal Herri nahiz Roselló-ra frantses bat iristean hizkuntza entzunik harriduraz beteta erakusten duten halako ezinegona eta areago ere aditzera eman ohi duten halako muzina". (P. BEC, 1963)

Pierre Bec, Poitiers-eko Unibertsitatean irakaslea da. Tolosako Ikasketa Okzitaniarren Institutuko Lehendakaria izana da. Okzitaniaz eta okzitaniarazko literatura erdiarotarrez hainbat lan egin ditu. Gaur eguneko hizkuntzaz ere egin du gramatika-lanik. Okzitaniarazko idazlerik ezagunenetakoa da: "Cant reiau" poema-liburua (1985) eta "Contes esquiçats" prosan (1984).

Hizkuntzen eta botere politikoaren arteko harreman eta zerikusia azter daiteke "Mendez Mende" bi liburukietan: "Aro Modernoa"n ikus, adibidez, 26-27, 38, 80, 124-125, 255. orr. "Aro Garaikidea"n: 125, 152, 161, 215, 228, 324. orr.

EGITEKOAK

- Europako mapa batean kontinente osoko hizkuntza guztiak lekutu, ofizialak direnak azpimarratuz.
- Mapa bera aprobetxatuz, jarri Estatu frantsesean eta espainolean: hizkuntza desberdinak, eta bakoitzaren egoera soziala deskriba (hiztunen kopuruak, barruti geografikoa, dialektuak, etab.).
- Saia zaituz Okzitaniaren xehetasun geografiko eta historikoa bilatzeko.
- Zein berri daukazu "oc" hizkuntzaz?

ERANTZUTEKOAK

- Frantzian, zentralizazio-prozesua burutu omen zen: zer suposa dezake zentralizazioak, hizkuntzari dagozkionetan?
- Hizkuntzaz al da Estatuaren eta hizkuntza ofizialaren mugak identifikatzea? Zergatik?
- Zure ustez, zeintzu dira hizkuntza ofizialak, gainerako guztiekiko dituen bantailak?
- Agiriak divenez, berdintzapen automatikoa gertatu zen. Nola liteke hori? Nori burutzen ditu halako berdintzapenak? Zergatik?
- Zeintzu adibide aipatzen dira testuan hizkuntza ofizialaren ondoren beste batzuk egon daitezkeela ikus dezagun?
- Hizkuntza "nazionala" eta "ofiziala" gauza bat bera al da?
- Nola ikusten du agiriak frantses bat Rosselló-ra iristean? Zer deritzozue?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

XVI. mend.

Gaur eguneko historiografiatik jaso dugu testu hau, eta Henri Lapeyre historilariari zor zaio. XVI. mendeko Monarkia europarraren eraketaz dihardu pasarteak; hau da, Estatuari gorputz bat ematen dioten osagaiez. Pizkundeko Monarkia modernoaren deskripzioa da, azken buruan.

"Esan beharra dago zeintzuk diren Estatuaren errealitatea osatzen duten osagarriak: erret boterea, administrazioa, diplomazia eta armada. (...). Berauek astertzen baditugu begira zer ikus litekeen: XVI. mendean oraindik alde askotatik, Estatuaren eraketa obra erdi-egina dela.

Boterea mota ainitzetako pribilegioek mugatzen dute:

- Lehenengoa, **administrazioak** duen ahuleziak, batez ere finantz arazoetan, eta, ondoriobidez, bankariengana jo beharrak.

- **Armadak** eta itsas untsiteriak dituzten baliabide karkarrak.

- Bestalde, **komunikabideak** apenas dira Antzinatean baino bizkorragoak, eta printzearen borondatea Erreinu osoari aditzera emateko denbora-lusamendu handiak jasaten dira. (...).

Hala ere, nazioarteko arazoak dira Estatuaren haskundera eragiten duten kausetako bat, gerrateetako gastuek fiskalitatea eta administrazioa zorrotz egiten bait dituzte. (...). Zuzenbide errromatarraren sabalkundera, funtzionari eta ordezkarien ardura eta humanismoak lagundutako sentimendu nazionala izango dira Estatuaren haskundera horretarako beste kausa zenbait". (H. LAPEYRE, 1969)

Henri Lapeyre, Grenobleko Unibertsitateko ohorezko irakaslea da. Historilari hispanista ezagunenetakoa izan da Frantzia. Batez ere XVI-XVII. mendeetako historia interesatu izan zaio. Mende haietako sintesi orokorrakoak idazteaz gain, Gaztelako merkatarien eta "Levante"ko moriskoei buruzko ikerlanak argitaratu ditu.

XVI. mendeko Estatuaren eraketa ulertzeko, ikus "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 17-28. orr. Geroko eboluzioa ezagutu nahi balitz, ik. liburu bera: 290-298 (orokorra) eta hurrengo orrialdeetan Estatu Estatu: 299-311. orr. "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n ikus daitezke ondokoak: 29-38. orr. (Iraultza Frantsesa) eta, oro har, I. kapituluak osorik: 11-70. orr.

EGJTEKOAK

- a) Defini ezazu Lurralde Monarkiaren kontzeptua.
- b) Atlas historiko baten laguntzaz, egizu lurralde-monarkia handien mapa bat.
- c) Begiratu Historia kronologiko batean hemen deskribatutako "Lurralde-Monarkia" garuiko zehaztasunak.
- d) "Mendez Mendeko" eta hiztegi egoki bat kontsultatuz argitu kontzeptuak: erret boterea, administrazioa, diplomazia, armada, fiskalitatea, zuzenbide herriturra, funtzionarioa...

ERANTZUTZEKOAK

- a) Testua irakurri ondoren aipa itzazu Estatu baten osagarriak.
- b) XVI. mendeko Estatuak zein akats ditu erubate egindukotzat emateko?
- c) Estatuak non du bere sorburua?
- d) Zein da testuaren pentsamendu nagusia?
- e) Zein ondorio aterako genuke testu horietan esaten direnetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

c. 1429

Hona hemen dokumentu historiko interesgarri bat: Joana Ark-ekoak Burgundiako Erregeari egindako eskutitz batetik (c. 1429) jaso da testu hau. Esku- titz politiko honetan ikus dezakegunez, gaurko Frantzia artean sortu gabe zegoen: Hexago- noa ez zegoen aginte bakar baten menpera ekarrita.

"Printze Garai eta Agurgarria, Burgundia-ko Duke jauna: Joana Dontzeila honek, Zeruko ene Errege, Jaun justu eta ahalguztiduna- ren izenean hauxe errekeritzen dizut:

Frantzia-ko Erregek eta biok egin dezazuela Bake on eta irmoa, luzarorako. Barka ezazue elkar bihotz onez, osorik, kristau zin- tzoek egin behar duten gisan, eta gerrarik egin nahi baduzue, zoazte mairuen kontra. Burgundia-ko Printzea: ahal dudan apalenik, eskatzen, erregutzen eta errekeritzen dizut: ez zaitez guduka Frantzia-ko erreinu santuaren aurka, eta bil itzazu zure arma-gi- zonak Erreinu santu honetako hiri eta gotorlekuetatik at".

(Joana Ark-ekoa, 1412-1431)

Joana Ark-ekoa (1412-1431). Domrémy-n (Lorena) jaio zen. Oso gazte zela, Joana Frantziako Karlos VII.ari aurkeztu zitzaion, Jainkoak Fran- tzia askatzera bidaltzen zuela esanez. Erregek armada baten buruzagitza eman zion, eta berehala bortizki eskuhartu zuen Joanak Ehun Urteko Gerratean (1337-1453), ingelesak hainbat bider garaituz eta besteak bes- te Orléans hiria askatuz (1429). Hemeretzi urte besterik ez zituela, ingelesek harrapatu zuten, eta, heretikotzat hartuz, sutara eman. Joana Ark-ekoaren heriotzak suspertu zuen abertzaletasuna erreinuan. Herrian bizirik zegoen aberri-sentimendua Erregeren ingurura bildu zuen Joana Ark-ekoak, Erreinoa askatu eta zabaltzeko bidean jarritz.

Testua hobeki ulertzeko, irakur arretaz "Mendez Mende: Aro Modernoa": 20-24. orr. eta batez ere azter 20, 23 eta 25. orrialdeetako mapak.

EGJTEKOAK

- a) Ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 24. orrialdeko mapa eta oin-oharra, Frantziaren baterakuntza nola gertatu zen kontura zaitezen.
- b) Begira atlas historiko edo entziklopedietan XV.eko Frantziako Erreinua, Erregeren erreterriak eta harenak ez ziren Erreinua.
- c) Bila Entziklopedia batean Joana Ark-ekoren biografia bat.
- d) Begira Historia kronologiko batean Frantziako Erregeak nola bereganatu zituen urtez urte lurralde berriak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Eskutitza non idatzi du, non zuzendua dago, eta zein beste pertsonari buruz ari da. Zehaztu pertsonai bakoitzari ematen zaien tratamendua.
- b) Zein bi lurralde aipatzen dira? Autoreak garrantzi berdina ematen al die lurralde biei? Zergatik?
- c) Dokumentuan bi zati nabarmentzen dira. Zehaztu zati bakoitza, eta azal idea ardatzak.
- d) Zein da testuaren pentsamendua bere osoan?
- e) Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Agiri hau dokumentu historikoa da. Frantziako Karlos VIII.ak, Bretainiako Anerekin ezkontzean, sinatu zuen hitzarmen hau, 1491n. XV. mendeko ohizko ezkontz-politikaren barnean ulertu behar da beraz, eta lurralde-baterakuntzarako tresna egoki bezala ulertu ere, garaiko politika dinastikoetan honelako itunak egin ohi bait ziren.

"Orainartean gerraz eta liskarrez hain aldentuta izan diren lurralde hauen bake eta sosegugatik, eta gure jaun Erregek ezkontza honekin Andere horri erakusten dion ohoregatik, honek bere eta ondokoen isenean hitzarmen hau sinatsen du:

Ezkontzaren kausaz eta arrazoiz, eta Erregeren fagoretan, Anek Jaun horri eta berorren ondoko Frantzia-ko Erregeei dohaintza bezala herentzian eman eta usten diskio dituenak oro, gero testamentus nahiz bestelako erabakiz atzera egiterik ez duela aitortuz: Honela, Britainia-ko dukerri eta printzerrian aipatutako Andereak dituen eskubide bakoitza eta denak, ondasun, ukantza, izen, arrazoiz, ekintza eta betebeharrak oro haren eskuetan jartzan ditu".

(KARLOS VIII, 1491)

Frantziako Karlos VIII.a (1483-1498), Luis XI.aren semea zen, eta hemeretzi urte zituela ezkondu zen Anerekin, nahiz eta hau Maximilian Enperadorearekin ahalordez (procuracion) ezkon-hitzartuta egon. Arrakasta diplomatiko handia izan zen hitzarmen hau Koroa frantsesarentzat: a) Ordudanik Britainia adiskidea izango zen, b) Frantziako Koroari lotua. Erreinualdi hartako galerak beste mugetan izan ziren: Rosselló eta Sardinian, ekialdeko mugetan eta Italian. Ondoko belaunaldientzako arazoak ziren horiek, baina hitzarmen honen ondorioz behin betirako Frantziari lotuta geratu zen Britainia.

XV-XVI. mendeetako Hexagonoko lurraldeak ezagutzeko eta honen lurralde baterakuntza nola eman zen jakiteko, ikus "Mendez Mendek Aro Modernoa": 20. orrialdeko mapa eta 22-24. orr.

EGJTEKOAK

- a) Ikus "Mendez Mendek Aro Modernoa"n 24. orrialdeko mapa eta oin-oharra, Frantziaren baterakuntza nola gertatu zen kontura zaitzen.
- b) Bila entziklopedia batean Karlos VIII.aren biografia bat.
- c) Begira Historia kronologiko batean garai hartako Hexagonoko zehaztasunak.
- d) Ikus entziklopedia batean: Britainia eta haren historia (kultura, hizkuntza, Erdi Aroko antolamendu politikoak). Jaso laburki datu batzuk.
- e) Ikus hiztegi egoki batean: duhaintza, herentzia, eskubide, ondasun, ukantza, arrazoi, ekintza, betebeharrak, dukerri, printzerri kontzeptuak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Dokumentu hau astiro irakurri ondoren, esazu zer den ezkon-hitzarmen bat?
- b) Zein arrazoi ematen dira hitzarmen hau sinatzeko?
- c) Britainiako Anek zer ematen du, eta zer jasotzen, hitzarmen honen bidez? Nor eta nortzuk jasotzen dute herentzia?
- d) Zein modutako baterakuntza izango da? Federala ala zentralista?
- e) Zein da testuaren pentsamendu bere osan.
- f) Zein ondorio aterako genuke testu honetan esaten direnetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Villers-Cotterêts (Pikardia) herrian, Frantziako Frantzisko I.a erregeak emandako Ordenantzetako bi artikuluko ditugu aztergai dokumentu honetan. Demografi hazkundeak, nekazal baliabideen urritasunaren hastapenak, zuzenbide izkribatu erromatarraren eraginak eta gizarte frantsesaren arrazionaltasunak, erret Administrazioa lanerako tresna erosoak bilatzera bultzatzen dute. Ordenantza hauek, nahiz eta berauek zentralizazio-prozesua indartu, Antzinako Erregimenean ez zuten bapateko aplikazioa izan, geografikoki ezberdina eta denboran zehar piskakakoa baizik.

50. Artikulua: Hildakoak

"Kapituluek, monastegiek eta eliz arduradunek ezar ditzatela erregistroetan benefizioidunen sepulturen frogak; lege-fedegarri izango dira erregistro horiek; eman dezatela, gainera, heriotze-unearen froga. Horrela, prozesuan judiziorako heriotze-unea jakin beharko denetan baliagarri izango da albiste hori".

51. Artikulua: Jaiok

"Bataioak ere erregistratu egingo dira, froga gisa: jaiotzaren garaia eta ordua emango dira bertan, eta gero erregistro horretatik jakin ahal izango dugu bakoitzaren adin-nagusitasuna".

(Frantzisko I.a, 1539)

Agiri hau erret dekretu bat denez, Frantziako Frantzisko I.a erregeak izango luke beronen erantzukizuna. 1515-1547 urteetan izan zen errege. 1539. urtean emandako Ordenantza hauen bidez erregistroak eta justizia arautu ziren. Azken buruan, betekizun zentralizatzaile nabaria izan zuen dekretu honek. Hizkuntzei zegozkienak, ik. "Herri Hizkuntzen arazoa" (4:071).

Dokumentu honen testuinguru historikoa ulertzeko "Mendez Mende. Aro Modernoa" begira ezazu: "Lurralde-Monarkia Modernoak" ikasgaiari Frantziako Erreinuaz berri jakingarriak dauzkazu 20-28. orrialdeetan. Ikasgai osoak ere badu honako argibide egokirik.

EGJTEKOAK

- Hiztegi egoki batean argitu: kapitulu, monastegi, eliz arduradun, erre-gistro eta erret ordenantza kontzeptuak.
- Garai honi buruzko historia bat kontsultatuz, defini itzazu Estatu eta Elizen arteko harremanak.
- Zuen ikastetxe-inguruko parrokia batean lortu bataio- eta hildako-agiri baten fotokopia; bat ahal den zaharrena, eta bestea egunekoak. Dokumentu hauek eskuarteun izanik, azter bertako datuak, eta alderatu erabiltzen diren formulak, hizkuntza, etab.
- Galdeiozu zure herriko eliz arduradunari, noizkoa den hildako eta bataioen erregitronik zaharrena, eta noiz pasatu zen eginbehar honi erre-gistro zibilerara.
- Zuz Udaletxera eta eskura ezazu Ordenantza municipala, eta azter gela.

ERANTZUTERAKOAK

- Ordenantzak nonk ematen ditu?
- Zein helburu dute bi artikulukoak: ikus bakoitzak.
- Hildakoak eta jaiotakoak erregistratzeko zein xehetasun eskatzen da?
- Zein interes izan lezake heriotz une konkretua eta adin-nagusitasuna jakiteak? Bai al du horrek eraginik gizarte harremanetan?
- Honelako Ordenantzek bai al dute zerikusirik boterearen zentralizazioarekin? Zergatik?
- Zeintzuk dira monarkia modernoaren aginte-tresnak? Sailka, eta azaldu.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testu historiografikoa da agiri hau: J.H. Elliott historilariarena. XV. mendearen azken herenean Gaztelaren bi aukera desberdinen artean garaile atera zenak, Fernando eta Isabelenak alegia, markatu zuen etorkizuneko Espainiaren norabide politikoa. Baina baztertua gertatu zen irtenbidea ere gogora daiteke gure gogoeta historikorako.

"Gerratearen askenak erabakiko zuen, salantzarik gabe, etorkizunearn Espainia-ren norabide politikoa. Joana (Enrike IV.aren ustezko alaba) garaile ateratzen baldin bazen, Gaztelaren etorkizuna Portugal-i lotuko zitzaion eta, ondoriobides, itsasalde atlantikorantz joango ziren haren interesak ere.

Alderantziz, Fernando eta Isabel-en garaitzapenak, **Espainia** hitzak Gaztela eta Aragoa esan nahiko zuen, eta batasun honen ondorioz Mediterraneoako interes aragoarrekin lotuko zen, hertsiki, **Gaztela**". (J.H. ELLIOTT, 1963)

J.H. Elliott historilari britainiarra, hispanista da, eta orain urte batzuk (1963) funtsezko obra atsegina idatzi zuen: "Imperial Spain (1469-1716)", gaztelaniara "La España Imperial" bezala itzuli zena. Cambridge-en eta Londres-en izan da irakasle, eta XVI-XVIII. mendeetako errebolta sozio-politikoak ikertu ditu batez ere, halanola, katalanena: "The revolt catalans: 1598-1640".

Penintsula Iberiarraren baterakuntza eta antolamendu politikoaz lehen argibideak jakiteko ikus "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 28-40. orr. Beste baterakuntza politiko batzuk ezagutzeko, berriz, ik. liburu berean: 302-305. orr., edo "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 46-50 (Italia), 50-54. orr.

EGJTEKOAK

- a) Ikus, Atlas historiko batean, garai hartan Penintsula Iberiarra politikoki nola zegoen eratu.
- b) Begira historia kronologiko batean Penintsula Iberiarrari buruzko garai hartako zehaztasunak.
- c) Begira Historiako hiztegi batean, Juana, Enrike IV.a, Fernando eta Isabel-en biografiak.
- d) Jaso ezazu, testulibururen batetik, agirian agertzen den gerrari buruzko informazioa.
- e) Begira ezazu ahul duzun liburuetan Portugalek eta Errege Katolikoen jarraituko duten nazioarteko politika.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zerk erabakiko zuen Espainiaren norabide politikoa?
- b) Zein bi jenerala aipatzen dira agirian, eta bakoitzak zein interes defendatzen ditu: azter ezazu zehatz-mehatz.
- c) Zein da testu horren pentsamendua bere osan?
- d) Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

c. 1480

F. Soldevila historilariari zor diogu pasarte hau. XV. mende bukaeran Errege Katolikoek, aginte osoago bat izan nahirik, Aragoarekin duten zenbait arazo agertzen da. Erreginaren ahotan jartzen diren hitzen alkantzu politikoa, Estatu-erreforma baten gogotik uler daiteke, noski.

"Aragoa ez da gurea; premiazkoa da berriz ere hura konkistatze-ra joatea", esaten omen zion Erregina Katolikoak bere senarrari, hangoen lege-abantaila eta askatasunaz gogaituta. Hala kontatzen du Francesco Guicciardini Florentzia-ko enbaxadariak.

Beste behin, Isabel alaba lehenjaiotsat aitortzeko aragoarrek eragozpenak jartzen zitustela ikusirik, hala zioen Erreginak: 'Hobe genuke aragoar horiek arma bidez menperatuko bagenu, eta ez ibili beti haien Gorteen arrokeria jasaten'".

(F. SOLDEVILA, 1973)

F. Soldevila i Zubiburu. Barcelona, 1894-1971. Historilari eta idazle oparoa. Poesia, teatroa eta nobela historikoa ere landu zituen, eta, historilari bezala, Kataluniako historia ikertzen ahalegindu zen, alde batetik, eta Espainiaren Historia, Gaztelatik ezezik, periferiako ikuspuntu berrietatik ere birpentsatzen. Informazio handi batekin eta bere ikusmolde berritu horrekin, iradokizunez betetako obra historiografikoa utzi zuen.

XV. mendearen bukaeran eta XVI.ean Penintsula Iberiarrean Aginte-Monarkia nola zegoen eraturata jakiteko ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa": 28-40. orr. Ik., nahi bada, baita 302-305. orr.

EGJTEKOAK

- Egizu mapa historiko bat. Penintsula Iberiarra garai hartan nolakoa zen adieraziz.
- Idatz itzazu Errege Katolikoek garaiko data garrantzitsuenak, historia kronologiko batean begiratu ondoren.
- Bila entziklopedia batean Isabel Erregina Katolikoaren biografia laburra.
- Libururen bat kontsultatuz azal ezazu labur-labur Errege Katolikoek ezkon-politika.
- Ikus hiztegi egoki batean "Gorte" haien esanahi historikoa (ez ahantz XV.aren azkenetan gaudela).

ERANTZUTEKOAK

- Erregina Katolikoak "Aragoa ez da gurea" dienean zer esan nahi du, eta Monarkiaz zein kontzepzio ateratzen da agiria irakurri ondoren?
- Erreginak, bere Monarkia kontzepzioa inposatzeko zein medio erabiltzea proposatzen du?
- Aragoaren subiranotasuna non isladatzen da, agirian?
- Gorteak Isabel alaba lehen jaiotzat aitona zezaten nahiak zein helburu zuen? Eta zergatik jar zitezaketen eragozpenak?
- Zein da testuaren pentsamendua bere osoan?
- Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik?
- Aragoako Gorteetako diputatu bazina, zer erantzungo zenioke Isabel Erregina Katolikoari, agiriak diotenaren berri jakingo bazenu?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Jose M. Lacarra historilariak Penintsulan Errege katolikoek gidatu zuten bateratze-prozesuaren une bat azaltzen digu: Nafarroaren konkistarena. Europako monarkia modernoak eraikitzean, lurralde-batasuna Koroen bazterrezineko nahia eta helburua zen. Baterakuntz prozesua diplomaziaz edo armaz burutu zen, hau da, politikaren abildadeak erabiliz, eta baliabide doilarragoak ere ahanzi gabe.

"Italia-ko gerretan zaildutako armada handi eta gogortu hark, Alba-ko dukearen armagizonek alegia, Nafarroaz jabetzeko ez zuten izan ostopo larririk. Ustailaren 21ean Huarte-Arakil-en ziren abangoardiak (...). Joanes Erregek ez zuen deus eskaintzekorik, Errege Katolikoa bait zen indarra zuena eta honek nafarren artean ere bazuen laguntzarik. (...).

Arma-ekintzak bizkor bete ziren, Gipuzkoan eta Aragoa-n indar berriak bildu ondoren. Abustuaren 10ean hartu zen Irunberri. 15ean, Logroño-ra hurbildu zen Fernando, eta Bianan eta Lizarran (nahiz eta hemengo gasteluak oraindik bereari eutsi zenbait astetan) goardizioak jarri ziren berehala. Irailaren 3an menperatu zen Erronkari, eta San Tuteran. Egiaz, menperatutzat eman zitekeen Nafarroa osoa".

(J.M. LACARRA, 1972)

Jose Maria Lacarra, historilari nafarra zen (Lizarran 1907-1987). Irakaskuntzara emana, Zaragozako artxibo historikoaren zuzendaritza ere eramana zuen. Erdi Aroaz egin ditu ikerlanak: Nafarroa eta Aragoako historiari eman ditu onenak. Iruñeko Aurrezki-Kutxarekin argitaratu zuen (1975) ordurarterko lanen sintesi egokia.

XVI. mendean Penintsula Iberiarreko monarkien lurralde-bilketa nola etorri zen jakiteko ik. "Mendez Mendeko Aro Modernoa" 28-34. orr. Antzeko gertakariak ikus daitezke "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n: 46-54. orr.

EGITZAKOAK

- a) Ikus Euskal Herriko Atlas-ean konkista aurretik nolakoa zen Nafarroa.
- b) Mapa mutu batean koka agirian agertzen diren hiriak eta lurraldeak, arma-ekintzak eta datak zehaztu.
- c) "Euskal Herriaren historia. II" (Elkar): Nafarroako erresuma XVIII. gizaldirarte. Nafarroa galtzen. Begira 91-95. orrialdeak.
- d) Begira Historia kronologiko batean garai hartako zehuztasunak.
- e) Bila, Entziklopedia edo Histori hiztegi batean, agirian agertzen diren pertsonaien biografiak.
- f) Inleera bat egin daiteke agirian agertzen diren hiri batzuk bisitatu: Lizarna, Donreaga, Biana eta Logroño. Hiria morfologia: sinplanoa, kaleak, harresiak. Biana kale-azpiko bodegaren bat ikus: defentsarekin badu zerikusirik. Santiago-Bidearen zati hartako artea, etab. Tuterare ere oso interesgarria da.

ERANTZUTZAKOAK

- a) Zein arrazoi egon zitekeen Errege Katolikoa Nafarroaz jabetzeko.
- b) Nafarroa bi alderditan zatiturik zegoen, interesen arabera: Zeintzuk dira bi alderdi horiek, zeintzuk buruzagiak eta zein interes defendatzen dituzte.
- c) Garaileak zein abantaila zuen? Zehaztu arma-ekintzak.
- d) Zein da testuaren pentsamendua, bere osan?
- e) Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1474-1512

A. Domínguez Ortiz eta J.H. Elliot historilarien testuak dira agiriok. Arazo bat berari buruzkoak direnez, elkarrekin batera jaso ditugu, lanerako. Errege Katolikoek Penintsulan antolatu zuten monarkia federal eta pluralistaz ari dira autoreak.

"Gaztela eta Aragoia elkartzean, bi Erreinuetako erakunde propioetatik bat ere ez zen aldatu. Bien arteko muga ere mugazainek zainduta zegoen, eta pasatzean muga-zerga pagarazten zieten bidariei. Gastelauak, legez atzerritarrak ziren Aragoia-n eta alderantziz; horregatik, ez zezaketen kargurik har ondoko erreinuan. Gorreetik, bakoitza bere aldetik bilduz segi zuten; moneta ere ezberdina zen eta legeak ere bai". (A. DOMINGUEZ ORTIZ)

"Batasuna bera ere dinastikoa zen huts-hutsik: ez zen hura bi herrien batasuna, bi Erret Etxeena baizik. Aurrerantzean, Gastelak eta Aragoak Errege-Erregina berak izateaz aparte, teoriarik ez zen deus aldatzen ez egituretan, ez eta gobernukeratan ere".

(J.H. ELLIOTT, 1963)

Antonio Domínguez Ortiz historilari espainola da (Sevilla 1909). 1940-1967 urteetan irakaskuntza ertainetako katedraduna izan zen Granadan, Madrileko Unibertsitatean katedra lortu zuen arte. Antzinako Erregimenaren eta talde sozial saihestuen historia landu izan ditu bereziki. J.H. Elliot historilari britainiarrek Europaren Aro Modernoaz egin dituz lanak, eta Espainiako Austriarren garaiaz dihardu berezikiago.

Hemen aipatzen den garaiko antolamendu politikoaz argibide xeheagoak izateko, begira "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 28-40. orr.

EGITEKOAK

- a) Ikus Atlas historiko batean garai hartako Penintsula Iberiarra nolakoa zen.
- b) Begira Historia kronologiko batean Penintsula Iberiarreko garai hortako gertakari garrantzitsuenak.
- c) Atlas bat begiratu eta "Mendez Mende" kontsultatu, aldera itzazu Gaztelu eta Aragoa: Geografia, kanpo-politika, erakundeak, etab.
- d) Ikus hiztegi egoki batean kontzeptu hauek: erakunde, muga, mugazain, muga-zengua, Gorteak, moneta, legeak, dinastia, egitura, gobernuera.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Agiria irukurritz, azter itzazu Gaztela-Aragoetako erreinuen arteko desberdintasunak.
- b) Zein batasun-mota osatzen zuten Gaztelak eta Aragoak.
- c) Gaur egun, lurralde hauek XVII. mendean izan zuten autonomi mailarik bai al dute?
- d) Zein da testuaren pentsamendua bere osan.
- e) Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

H. Kamen-engandik jaso den testu historiko honetan minoria erlijiosoen aurkako politika ikus daiteke. Izan ere, XV. mendeko judu espainiar baten hitzekin haien bizi-egoera latza ipintzen da agerian. Gutxiengo erlijioso haien aurka joateak badu zerikusirik Errege Katolikoaren proiektu politikoarekin, garaiko monarkia moderno eta batua sortzearekin alegia.

Hona nola deskribatzen duen XV. mendeko judu espainiar batek bere herritarrei legez ezarri zitzaizen bizimodu gogorra:

"Jantzi arraroak janstera behartu gintuzten. Eragotzi egin ziguten salerosketan ibiltzea, nekazaritzan nahiz artisautzan aritzea. Bizarra luze ustera bortxatu gintuzten, eta ilea luze eramatera. Zetasko jantzien ordez, arlote jantzita ibiltzera behartu gintuzten, jendearen iseka gure gain ekartzera. Bizarrik kendu gabe, izaki galduak ematen genuen. Nornahiri ikusten zitzaion aurpegian, jasaten zuen gosea".

JUDU BATEK (1412)

*... (Judu iraitziok) merkatariak ziren eta saltzaileak eta alkabalen eta isumen errentariak, jaun-izendatzaileak ziren, oihal-zirratzaileak, jostunak, sapatariak, larruntuzaileak eta zurratzaileak, ehuleak, espeziariak, putzileroak, zetariak, errementariak, zilarginak eta antzeko ofiziokoak; baina ez zuen inork lurra urratzen, ez zen nekazari, esta zurgin edo ieltsero, baizik eta denek ofizio erosoak bilatzen dituzten, edota lan gutziako irabazmo-
duak.*

(A. BERNALDEZ, 1492)

1412an eman zen Gaztelan Erdi Aro osoko legeria antisemitarik gogorrena: juduen egoera, larria gertatu zen, eta horretaz ari da lehenengo pasartea. Bigarrenak, ostera, Errege Katolikoaren garaiko kronikaria izandako Bernáldez-ek juduen deskribapen sozio-profesionala ekaintzen digu.

Europako eta kristauen antisemitismoa ulertzeko, egoki etorriko da "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 32-34, 131-132, 284-288, 405, 410-411. orr., eta "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 195-197. orr.

EGITEKOAK

- a) Bila atlas historiko batean, Europako mapa bat (XV-XVII. mendetako). Azaldu aro modernoko egoera politikoa: Herrialdeak, mugak, gerrateak, aliantzak, etab.
- b) Zer dakizu Enrege Katolikoez eta haiek osatu nahi zuten monarkia modernoaz? Bila argibide osagarriak.
- c) Hartu Penintsula Iberiararen mapa bat, eta eman judu-komunitateen kokalekuak.
- d) Espainiatik nora aldegin zuten juduek? (Mapa batean eman dezakezu hurren berri, bizileku berriak kolore desberdinez markatuz).
- e) Zeintzuk ziren sefardiak deituak?

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zergatik ezarri zitzaion juduei lege-egoera berri hura?
- b) Inakurri duzuetik zein ondorio aterako zenuke?
- c) Juduek ez direnek politika honekiko nolako joera zuten? Zergatik?
- d) Arruntki, zein ogibidetan ari ziren lanean juduek (aipe sektore ekonomikoak)?
- e) Juduek irazitzeak zer nolako ondorioak zekartzan (demografia eta ekonomiarik begira, batez ere).

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1492-1609

Kamen historilariari hartu diogu pasarte hau: herri musulmanaren patu sozial eta historikoa oso garbiro azaltzen digu. Izan ere, Birkonkista-prozesua burututa gelditu zenetik, Espainiako musulmanen existentzia geroz eta zailago bilakatu zen: Baztertzea eta legez ezarritako bizimodu latza ezezik, azkenik, 1609. urtean iraipenak moztu zuen talde haren Penintsulako bititza.

"Espainia mairua (...), leku batsutan, zazpi mendez egon zen musulmanen eskuetan. Mairuak, beraz, kristauak eta juduak bezalaxe, Espainiaren egiturakoak ziren. (...). Baina Birkonkistak aldatu egin zuen hau dena. (...).

Granada 1492an erori zen. Botere politiko musulmana galtzeak, mairuen nazio-existentzia ukatzen zuen: ordutik, kristau-herri bateko minoria bihurtu ziren. Hala ere, haiek ez zuten sekula onartu kategori galtze hau. (...).

'Gu ez gara lapurtalde bat, erreinua baizik'. Amets hau ez zuten utzi nahi izan moriskoek, eta gogo horretrek eraman zituen, 1609an, arrazaren hondamendira". (H. KAMEN, 1965)

Henry Kamen, jatorriz birmaniarra, Britainia Haundiko Unibertsitateetan izan da irakasle: Edinburg, Warwick, etab. Historilari hispanista da, eta "The Spanish Inquisition" (1965) zor zaio. Gaztelaniaz ere argitarata emanda dago, eta historia oso irakurterraza gertatzen da obra (Alianza Editorial, 1973).

Europako eta kristauen arteko antislamismoa ulertzeko, ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa": 32-34, 165-167. orr., eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 42, 46, 104, 107, 118, 120, 125-126, 197-198, 529-538. 562, 572. orr.

EGJTEKOAK

- a) Zer dakizu Granadako Erreinuaz: kokapena, gobernuera, gizartea, garapen politikoa, kristauekiko harremanak, etab.
- b) Andatz kronologiko batean kokatu hiru datuok: Granadako konkista, Alpujarrerako gerra eta moriskoen irazpena.
- c) Penintsulako mapa batean Birkonkistaren prozesua azaldu.
- d) Egizu, XVII. mendearen bigarren erdialdeko mapa politikoa: monarkia handien arteko harremanak azpimarra (gerlak, hitzarmenak, aliantzak, etab.).

ERANTZUTEKOAK

- a) Agiriak Granadako Erresumaren konkista aipatzen du. Zer nolako ondorioak ekarri zituen gertakari horrek?
- b) Zein egoeratan bizi ziren Espainiako moriskoak? Zergatik zioten ez zi-rela haiek lapurtalde bat?
- c) Zergatik dio 1609. urtean arrazaren hondamendia gertatu zela?
- d) Zer esan nahi ote du esaldi honek: "Mairuak, beraz, kristauak eta juduak bezalaxe, Espainiaren egiturakoak ziren".
- e) Zein egoeratan gelditzen dira musulmanak Granada galduta gero?
- f) Juduen egoerarekin konparatuz gero, zein alde eta ondorio alderatuko zenuke bi herrien artean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1566

Testu honetan autorea Baionako Elizbarrutiaren muga-bilakaeraz ari zaigu. Aipatzekoa da diozesi honen mugek ez zutela bat egiten Estatuak zituztenekin. Hala, XI. mendetik aurrera Baionako elizbarrutia Pirinioez hegoaldera ere hedatzen zen, Gipuzkoa eta Nafarroako parrokia zenbait besarkatuz.

"Baionako Elizbarrutia, Nafarroa eta Gipuzkoara ere zabaltzen zen. Lapurdi, Baigorri, Garazi eta Arberu ez ezik, Hondarribia, Pasaia eta Bortzirietan besarkatzen zituen (Bera, Lesaka, Aranatz, Igantzi eta Etxalar), Lerin eta Bertizarana eta Bastan osatzen ere. Berrogei bat parrokia. Felipe II.ak eskatuta, 1566an Pio V.a Aita Santuak birmoldatu zituen elizbarrutien mugak, estatuarteko mugetara ekarriz, honela Euskal Herriaren bi mugaldeak elkarrengandik banatuz".
(E. GOIENETXE, 1979)

Eugenio Goienetxe azken urteetan Ipar Euskal Herriaz lan egin duen historikaririk ezagunenetakoa da. Erretiratu den arte (1984), Paueko Unibertsitatean egin du lan euskal kultura eta historia irakatsiz. Erdi Aroaz eta euskal erakundeez dituen lanen ondoan, aintzakotzat hartzekoak dira Euskal Herri osoaz argitara eman dituen sintesi historikoak. Lapurdiko Uztaritzen bizirik izan da.

Euskal Elizen, Eliza katolikoaren eta diozesien historiak ulertzeko zenbait argibide osagarri ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa" 34-38, 131, 272-273, 293. orr., eta "Mendez Mende. Aro Garaikidea" 210-215. orr.

EGJTEKOAK

- a) Euskal Herriko mapa batean koka testuak aipaturiko lekuizenak.
- b) Mapa berean ea zehazten duzun Baionako Elizbarrutiak izan duen muga-bilakaera.
- c) Zein berri daukazu, Felipe II.az eta Pio V.az: Eman ezazu datu biografikoren bat.
- d) Begira atlas historiko batean 1566. urteko Europa nolakoa zen: Arazo politikoak, aliantzak, ekonomia, etab.
- e) Euskal Herriko mapa batean (Atlas historikoren bat har) seinala Elizbarruti guztien mugak.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zenbat herri eta lekuizen aipatzen dira testuan? Sailka itzazu.
- b) Nola defini daiteke "diozesi"aren kontzeptua? Eta parroikia zer da?
- c) Nork eta zergatik birmoldatu zituen Baionako Elizbarrutiaren mugak?
- d) Zein ondorio zuen Elizbarrutiaren muga horiek estatuantekoetara egokitzeak?
- e) Bai al dakizu nolakoa zen Euskal Herriarekiko Felipe II.aren joera? (Foruekiko, batez ere).

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1520-1522

1520.tik 1522.era bitartean Komunitateen Gerlak lehertu ziren Gaztelan, Karlos V.ak eta beraren kontseilari flandestarrak zergak handitu nahi zituztela eta. Zerga-igotze honen aurka altxatu ziren hiriak. Funtsean, bi elementu hauek daude kontrajarrita: Batetik Karlos V.aren politika inperiala (nobleak berarekin ditu), eta Gaztelako burgesia (modu absolutistaren molde berriak onartzen ez zituen).

"Honela (Villalar-ko guduan eta comunero-en buruzagiak heriotzera emanez, 1521) izan zen garaitua gaztelauen protesta. Hiriek orduantxe galdu zuten beren botere politiko osoa. Harez gero, Gaztela Erregeren esanetara geratu zen erabat; honek, bere borondatearen edo aldartearen arabera egin eta desegiten ditu gauzak. Herri gaztelauak (ez bait zuen inoiz koroarekin batean legegintzan betean partehartu), orain ahalmen hau osorik galtzen du; zerga-kontrolan ere eskuharmen efikazik gabe geratzen da herria".

(F. SOLDEVILA, 1973)

Ferran Soldevila i Zubiburu (1894-1971), historilari katalana da, eta Katalunia eta Espainiaren Historien sintesi handiak eskaini zituen. Kataluniazkoaz egin zuenaz gain, badu interesik periferiatik begiratuta Espainikoaz izan duen ikusmolde periferiko landuagatik (1952-1959). Menéndez Pidal-en interpretazioei kontrajarrita agertu zen bere zenbait interpretaziotan.

Ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 28-38. orr. Eta Europakoaz, oro har, zerbait jakiteko, ikus liburu berean 106-109, 399-400. orr.

EGJTEKOAK

- a) Bila entziklopedia batean "komunari" (=comunero) eta "komunitate" hitzen esanahia.
- b) Har garai hartako mapa bat, eta ikus Karlos V.aren Inperioa nondik nora zabaltzen zen.
- c) Bila ezazu Karlos V.ari buruzko informazionik onena.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik hasi ziren hiriak Enperadorearen aurka?
- b) "Hiriak onduantxe galdu zuten beren botere politiko osoa": zer esan nahi du horrek?
- c) Zer esan nahi da esaldi honekin: "Harez gero Gaztela Erregearen esunetara geratu zen erabat".
- d) Atera konklusioak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1480-1834

Agiri hau, testu historiografikoa da. Inkisizioa, agintearen segurtasun-erakunde bezala ulertu ohi da historilarien artean: segurtasun ideologikoa ematen zion sistema politikoari. Kontrol-erakunde honen inguruan eztabaida handiak izan dira. Birmaniar-britainiar historilari batek hitzegiten digu hemen Espainiako Inkisizioaz.

"Inkisizioaz diharduten libururik gehienek eta gaur egun Espainian zabalduenak, tribunal hau nazioaren funtsezko osagarri eta salbabide bezala ikusten dute.

Legendazko Errege Katoliko batzuek sortua eta urrezko aro batean jaica izango litzateke Inkisizioa; herri erlijioso baten herentzian sakratuena zena hiru mendetan haretzek sinbolizatuko luke, beraz. (...). Errege Katolikoek erreinuan ezarritako bakeak, Austria-ko Etreak bortxatuta emandako erlijio-batasunak, ordurarte lortu gabeko nazio-identitatea eman zioten Espainiari.

*Baina urte haietako bakeak eta batasunak, XX. mendeko historilariari galdera bat utzi diete: zergatik lur jo zuen egitura hark guztiak? (...). Austriarren **pax hispanica** hura ustela izan zen, barneko justizia mantetzeaz arduratu gabe bortxaz ezarritako ordena zelako".*

(H. KAMEN, 1965)

Henry Kamen, jatorriz birmaniarra, Britainia Handiko Unibertsitateetan izan da irakasle: Edinburg, Warwick, etab. Historilari hispanista da, eta "The Spanish Inquisition" (1965) zor zaio. Gaztelaniaz ere argitaratu emanda dago, eta erakunde horren historia oso irakurterraza gertatzen da obra honetan (Alianza Editorial, 1973).

Errege Katolikoek garaiko Estatuak erakundeztapenaz informazioa aurki daitezke: "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 34-37. orr. Tolerantziaren arazoaz, ik. liburu berean 284-288. orr.

EGJTEKOAK

- a) Ikus mapa batean XV. mendeko Penintsula Iberiarraren zatiketa: "Mendez Mende. Aro Modernoa" 14. or.
- b) Irakur historia batean Errege Katolikoek balioztapen historikoa. Ahal baduzu, eritzi ezberdinak edo elkar-osagarriak bildu.
- c) Gombara itzazu Guztela eta Aragoako erakunde ezberdinak.

ERANTZUTIKOAK

- a) Zer esan nahi dute kontzeptu hauek: Monarkia federala, monarkia pluralista, monarkia, "comunero", "chancilleria", Erret Kontseilua?
- b) Bakea lortzeko ordena bontxaz ezartzea onartzekoa dela uste duzu? Zergatik?
- c) Gaur egunean nonbait erabiltzen al da Inkisizioaren antzeko sistemarik? Non? Eman ezazu zure eritzia.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1523

Gaztelako Komunitateen Gerrarekin garaikidea da València-ko Germanien altxamendua, baina germaniatuek Erregearen aurka baino nobleen aurka jo zuten, areago. Feudal kutsuko eskubideen eta nobleek udal-erakundeetan mantenduriko pribilegioen ezabapena eskatzen zuten.

"Agermanatuen porrotak ofiziodunen indar ekonomiko eta politikoaren azkena ekarri zuen València-n, eta estamentu pribilegiatuen indartzea. Altxamenduaren ondoko errepresioa, **comunero**-en kontraKoa baino askoz gogorragoa izan zen: València-ko erreinuan 100 eta gehiago izan ziren heriotzera emanak, Mallorca hirian bakarrik beste 200 (**comunero**-etatik 23 izan ziren Gaztela-n), eta ondasunen bahiketak esan nahi zuena ahantzi gabe. Ondorio demografikoak ere oro har hondamendi latsa izan ziren". L: Maccorca-n behera egin zuen, 1517tik 1524ra, maraiaren zerga-bilketak, 3.837 su galduz. Ondoko errepresio-agiriek ere berretsi egiten dute zifra hori. València-n gatz-eskubidearen errentariak --goitik jota, noski, eta Xàtiva eta Alzira errenditu aurretik-- zioenez, gerra-koan mairuen 7.000 etxek ihes egin zuen, guduetan 10.000 lagun hil omen ziren, eta 4.000 kristau-etxe hustu zen". (E. DURAN, 1981)

Duran i Sampere historilariaren alaba da Eulàlia Duran historilari katalana. Vicens Vives eta P. Vilar historilariak Herri Katalanetan urratutako Historia sozialaz arduratu da bereziki, "Història dels Països Catalans" obra zabalean ere parte hartuz. Beraren "Les Germanies als Països Catalans" doktore-tesitik hartu dugu pasarte hau.

Gertakari politiko armatu horri bere testuinguru historikoa aurkitzeko begira "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 14-19, 28-40, 114-115, 165-171.

EGITEKOAK

- a) *Hur garai horretako mapa bat, eta azter Aragoako Korroaren egoera: Koka-pena, monarkiaren antolamendua, etab.*
- b) *Agermatuen gerraz berri gehiago bilatzen saia.*
- c) *Nola laburtuko zenuke "Mendez Mende. Aro Modernoa"n ikusteko adierazi ditugunetako pasarte horietakoren bat.*

ERANTZUTEKOAK

- a) *"Ofiziodunak" eta "estamentu pribilegiatuak" aipatzen direnean, nortzuez ari da agiria?*
- b) *Zure ustez, zergatik dira hain kontrakoak hiriak eta nobleak.*
- c) *Saia zaitetz Germanien porrotaz balantze bat egiten.*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XIII-XVI. mend.

Testu honek, XIII. mendearen azkenetako Monarkia frantsesera garamatza, izan ere handik aurrera Felipe IV.a Ederra, (1285-1314) eta ondokoak, egitura feudal politikoetatik irten eta Estatu nazionala eratzen ahaleginduko bait ziren. Frantzia feudal hura Estatu "nazional" bihurtzeko, Estatu elebakartzea erabaki zen. Joera hauek bultzada handia izan zuten 1539ko Frantzisko I.aren Ordeantzekin. Galtzailerik handiena **oc** hizkuntza izan zen.

"Nahasia zen hizkuntz arazoa. Erreinua banatsen zuten bi hizkuntzen baitan (oïl eta oc hizkuntzetan) dialektu ugari aurkitzen zen. Elisgizonak latinez mintzatzen ziren, eta herria pikardiaz, normandiaz, burgundiaz edo gaskoinez. **Nazio** hitzak Erdi Aroan '**hizkuntza**' esan nahi zuen, eta nazio pikardiarrak hitz egiten zen, edo nazio '**burgundiarrak**'.

XIII. mendearen azkenetan pentsatu zuten erregeek Estatuaren oinarritzat hizkuntza (=oïl) hartzea; hau da: menpekoek nazio bakar bat egin ezatela erabaki zuten. Harez gero, hauxe izan zen xedea: Frantzia izan zedila Estatu bakarra, nazio bakarra eta hizkuntza bakarrekoa; labur esateko: izan zedila Estatu nazional bat".

(BIARD, 1981)

Pasarte hau ez da historiografia klasiko batetik jasoa, Pariseko A. Colin argitaletxe ezagunak zabalduko eskola-liburu batetik baizik. Hexagonoaren batasun politiko-estatala egiteko gaudituz edo ezabatu behar ziren eragozpenak gogoratzen ditu autoreak.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n argibide ugari aurki dezakezu Frantziako Erresumari buruz: 20-28. orr. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n: 54, 126, 324. orr.

EGITEKOAK

- a) Zer dakizu Felipe IV.aren historiari: arazoak, aliantzak, gerrak.
- b) Frantziako mapa batean zehaztu monarkiaren lurralde-hedakuntzako prozesua.
- c) Mapa bera aprobetxatuz oñ eta oc hizkuntzen arteko muga zehazten saia zitez.
- d) Frantzian, frantsesaz aparte beste hizkuntza batzuk ere mintzatzen dira. Esan non eta zein egveratan dauden.
- e) Zer da "Frankofonia" deitu ohi dena.
- f) Begira zer diren hiztegiak "nazioa" eta "Estatua" kontzeptuez.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik dio agiriak hizkuntz arazoa nahasia zela esaten? Zenbat hizkuntza desberdin zitaten dira?
- b) Zer dakizu oñ eta oc izeneko hizkuntzei buruz. Bizirik diraute? Frantsesarekin erlazionaturik al daude?
- c) "Nazio hitzak Erdi Aroan hizkuntza esan nahi zuen": Nola interpretatzen duzu esaldi hau?
- d) Gaur egunean ere nazio hitzak hizkuntza esan nahi ote du?
- e) Nolako batasuna zuen Frantziak Erdi Aro hartan: Alu batasun hori, egiteko zegoela esan behar da?
- f) Inakurri dituzunetatik zein ondorio aterako zenuke?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1512-1841

Ernazimentuko Monarkien batasuna armaz egin dene-tan ere, konkistariak bestelakorik nahiago izanda ere, erreinu konkistatuaren tradizioa eta historia instituzionala gehiegi ez itxuraldatzea zuhurtzia politikoa izaten da. Hala nola, Nafarroan Errege Katolikoek nafar Erakunde politikoak ez zituzten kendu.

"Hala ere, Nafarroak ez zuen galdu bere erregimen berarizkoa: Gastela-ko koroari eranstea Barcelona-ko Etxeko Erregeek segi izan zuten gisara egin zen, autonomia gordez (horretan, salbuespena izan zen Nafarroarena)". (J. VICENS VIVES)

"Erreinu hartako arazoaz arduratzeko Nafarroako Kontseilua sortu zen. Nafarroako Gorteak beren egitekoan ihardun zuten, eta Erregeekin batera legegintzan segi. Diputazio iraunkorrak ere berean segi zuen. Nafarroak bere moneta propioa mantendu zuen. Fernando-k berak ere zilarrezko errealak tranpondu zituen (...). 1513an, dukata onartu zen Nafarroan moneta-unitatetzat".

(F. SOLDEVILA, 1952-1959)

Ferran Soldevila i Zubiburu (1894-1971), historilari katalana da, eta Katalunia eta Espainiaren Historien sintesi handiak eskaini zituen. Kataluniazkoaz egin zuenaz gain, badu interesik periferiatik begiratuta Espainikoaz izan duen ikusmolde landuagatik (1952-1959). Menéndez Pidal-en interpretazioei kontrajarrita agertu zen bere zenbait interpretaziotan. -- J. Vicens Vives (1910-1960) historilari katalana izan zen Espainiako historiografian Frantziako "Annales" Eskolako metodo berri-tzailearen lan-prozedurak zabaltzen hasi zen lehenengoetakoa, horrela Kataluniako historiografia ere indarberritzen zuela.

XVI. mendean Penintsula Iberiarreko egoera politikoa nolakoa zen ezagutzeko, ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: 28-40. orr.

EGJTEKOAK

- a) *Ikus Atlas historiko batean garai hartako Nafarroa nolakoa zen.*
- b) *Begira Historiu kronologiko batean garai hartako zehaztasunak.*
- c) *Bila Euskal Herriko historiaren liburu batean Nafarroako kontseiluak.*
- d) *Gorteak eta Diputazio Inaunkorrek zein eginbehar zituzten.*

ERANTZUTZEKOAK

- a) *Zein da lehenengo testuko ideia ardatza?*
- b) *Zeintzuk dira bigarren testuko ideia ardatzak?*
- c) *Lot itzazu bi testuetako ideia ardatzak, eta atera ondorioak.*
- d) *Zure ustez zein autonomi maila zuen Nafarroak garai hartan? Eta gaur egun?*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Historilari baten testua da hau, eta ekonomiaz dihardu. Agiriaren xedea, artoaren garrantziaz eta balioaz gogoeta labur bat eskaintzea da; horretarako zenbait datu biologiko eta ekonomiko aurkezten du. Munduan, artoarena munta handiko fenomeno ekonomikoa da; baina artoak historia bitxia du europarrontzat, Mundu Berrian ondu eta handik zabaldua denez gero. Oraingo arto-ekonomia, beste lehenagoko historiarekin lotu behar da, beraz.

"Artoaren jatorburuak ez du bakarrik eskola-jakingarritasuna. Berau da, izan ere, eguzki-energia, karbono-dioxidoa, ura eta lurreko mineralak janari bihurtzen, zerealik emankorrena. Janari-kontsumotarako laboreetan munduan hirugarren lekua du artoak: Urteoro 200 milioi tona baino gehiago ematen dira, hau da, gariaren edo arrozaren ustak baino zertxobait gutxiago bakarrik. Usta horretatik giza janari bezala zuzenean hartzen dena erlatiboki gutxi da, baina haragi, esne, arrautza nahiz beste abere-produktu bihurturik datorkiguna gogoan hartzen badugu, artoa Mendebaldeko janari-iturri garrantzizkoena dela esan behar".

(G.W. BEADLE, 1985)

G.W. Beadle biologo amerikarrak artoaren datu sozio-ekonomikoak eskaintzen dizkigu, labore honek duen historia berezia gogoratu aurretik. Izan ere, artoa giza kulturak mendeetan zehar maneiatu duen landarea da, eta kasu honetan Ameriketako kulturen fruitua, baina geroztik munduan indar handia hartu duena, ordea.

Artoaren historia ezagutzeko, ik. "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 45, 46, 54-56, 59, 71-72, 94-96. orrialdeak.

EGITEKOAK

- a) Zenbat arto jango duzu zuek urtean? Artasororik bai al da zure herrian? Beti berdin izan al da? Galde zure guraso eta aitona-amonei.
- b) Artoz egindako jakiren bat saltzen al da gaur eguneko supermerkatuetan?
- c) Onain dela 50 urterarte arto gehiago produzitu eta konsumatzen zen Euskal Herrian? Zergatik.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Agiriaren ideia nagusia labur ezazu.
- b) Ideia hori indartzeko erabiltzen diren besteak ere bai.
- c) Ados al zaude ideia horrekin? Arrazoiak eman.
- d) XVI. mendean ezagutu arren, Mendebaldean XVII. menderarte ez zen artoa jateko erabiltzen. Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

XVI-XX. mend.

Agiri hau Ekonomiaz ari da. Amerikako ohizko zama-riak eta Europatik hara eramandakoak aipatzen dira. Amerika kontinente handia da, eta aberatsa, berez; baina bizitza ekonomiko azkar batek garr-ai-oi-indar egokia eskatzen zuen. Amerika kolonia-lean eta XIX.ean arazo astuna izan zen garraioare-na.

"Amerindiarrek zeukaten garrantzisko herentzia bakarra llama izan da, 'Andeetako aharia': nahiko zamari txarra, baina Mendialde garaietako aide urritura molda zitekeen bakarra. Gainerako anima-lia gustiak (bikuina eta indioilarra ezik) Europa-tik etorriak dira: idi-behiak, ahari-ardiak, ahuntzak, zaldiak, zakurrak, he-gaztiak.

Mandoak ziren, ordea, bisitza ekonomikorako garrantziskoena, eta berauek gertatu ziren 'kamioizale' premia-koak. Salbuespenak gutxi dira: Ipar Amerikako eta Brasil kolonia-leko zenbait es-kualde, eta panpa argentinarra; hemen batez ere gurpil handiko gurdien tiratzailea idi-parea izan ohi zen, XX. menderarte.

Espaziorik gehienetan, ordea, manda-talde-
en txilin-hotsa zen nagusi".

(F. BRAUDEL, 1979)

F. Braudel historilaria, Frantziako "Annales" eskolakoa da, eta urte-sail batean zuzendu ere egin zuen albistari berau. Eskola historio-grafiko honek metodo-berrikuntza bat ekarri zuen, batez ere herri lati-noetan Historian ari zirenen artean. Historiaren osotasuna eta eritmo ezberdinak azpimarratu izan ditu "Annales"ek.

Amerikari buruz ia hiru kapitulu oso daukazu "Mendez Mende" liburuan: "Aro Modernoa"n bata jatorrizko kulturei dagokiena: 41-96. orr., eta konkistaz diharduena: 177-232. "Aro Garaikide"ra bagatoz, berriz, 229-333. orr. Garraioak zituen arazo batzuk ikusteko, begira: "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 58 (eraikuntza), 82, 86 (bideak), 95 (zamariak, gurpila), 186-187 (nabigazioa), 188 (Afrikan), 194-195 (untziak), 227-229 (zamari berriak); "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ik. 233, 298, 304, 316, 318. orrialdeak.

EGJTEKOAK

- a) Begira entziklopedietan garraioen tekniken historiaz zer dagoen.
- b) Ikus atlas historikoren batean Amerikaren konkistan eta kolonizazioan nondik nora joan ziren konkistariak: zein eragozpen edo erraztasun sumatzen dira geografian?
- c) Aurreko mendeetan, zein bide eta modutan egiten zen garraio-lana zure herri inguruan?
- d) Eman lau ki batean lamarren eta mandoaren garraio-gaitasunak, bata besteari kontrajarrita.

ERANTZUTEEKOAK

- a) Europan ere garraioaren arazoak ez ziren aurreko mendeetan gaurkoaren pare-parekoak: zer esango zenuke "Mendez Mende. Aro Modernoa"n, 99. or., ikus dezakegunaz?
- b) Mundu Zaharretik Berrira eramandako zamariak zeintzuk izan ziren? Eta alderantziz?
- c) Zein abere etxetar zeuzkaten aztekek espainolak berriak eraman aurretik?
- d) Zer uste duzu: 1450ean, garraio-indarretan zein ote zen aberatsagoa, Europa, Asia edo Amerika? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1492

Testu historikoa dugu agiri hau. Kolonek bere "Egunkarian" idatzi zuena, 1492. urtean. Zati honetan Espainiako Errege Katolikoei zuzentzen zaie, Guanahani irlan aurkituriko indiarrei buruz mintzatuz eta haien adimen argia azpimarratuz. Benetan Europatik bestelako mundu eta gizartea aurkitu dituen nabigariaren harridura sumatzen da Kolon-en hitzetan. Ernazimentuko "aurkitzaileen" pozarekin batera, Erregeen interesen zerbitzaria ere agiri da lerro hauetan, eta konkistari zuriaren moral berezia ere bai.

"Zerbitzari onak izan behar dute hauek, nonbait, eta argiak gainera: esan ala ikasten dituzte gauzak; eta laster bataiatuko lirarteke, ez bait dute, itzuraz, bestelako sektarik. Nik, Jainkoak nahi badu, hemendik irtetean, sei bat eramango diskizuet zuei, Jauin-Andere Agurgarrioi, mintzatsen ikas dezaten. Irla honetan (Guanahani) abererik ez dut batere ikusi, papagaioak ezik".

(KOLON: *Egunkaria*, 1492-XII-24)

K. Kolon (Genova, c. 1451 - Valladolid, 1506). Gaztetandik nabigazioan eman zuen bere bizitza. Portugalen bizi izan zen; baina Ozeano Atlantikoa mendebaldetik zeharkatuz "Espezien Lurraldetara" iristeko bere proiektua, Gaztelako Erregeen babesari lortu arte ez zuen aurrera eraman ahal izan.

Aurkikuntzei buruzko informazio orokorra "Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuan bila dezakezu: 177-232. orr.; Kolonek eginikoari buruz begira 200-206. orrialdeak. Konkista eta kolonizazio-burubideez, ik.: "Mendez Mende. Aro Garaikidea", 82-83, 89-93. orr.

EGJTEKOAK

- a) Kolonen biografi labur bat egin, "Mendez Mende. Aro Modernoa" (201. or.) eta enziklopediak aztertuz.
- b) Idatz. XV-XVI. mendeetako Aurkikundeen arrazoi geopolitiko eta sozio-ekonomikoak.
- c) Egin mende haietako Aurkikundeen mundu-mapa bat: Kolonenak berezikiago.
- d) Bigarren mapa batean "Tondesillas-eko Itunaren" ondorioz suertatutako lur-banaketa adieraz.
- e) Kronologikoki eman lur berrien aurkikundeak.
- f) "Aquirre, la cólera de Dios" ikusterik bazenu (W. Herzog, 1973), nola lotuko zenituzte filme horrek ispiatzen dituen arazoak "Mendez Mende"n ikus ditzakezunekin.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Nor izan zen Kristobal Kolon?
- b) Zergatik eman zitzaion lur berriei "Indiak" izena.
- c) Zer izan zen Tondesillas-eko Ituna? Zergatik egin zen? Zeintzuk izan ziren haren arazoak?
- d) Zenbat zibilizazio ezberdin topatu zituzten lur hietan?
- e) Zein lurralde aurkitu zuten lehena?
- f) Zeintzuk izan ziren Aurkikundeen ondorio ekonomikoa? Eta demografi-koak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1492-1825

Ondoren ikus dezakegun testua historilari baten kritika da: Amerikako historiografia saihestu bati buruz ari da; baina, interesak tarteko zeudelako, kronikari zaharrei ezarri zitzaizen zentsura gogoratzen du pasarte honek.

"Kolonaurreko herri amerikarren Historia ezagutzeko behaztopo itzelak izan dira ia gaur egunerarte: konkistariak idatzitako historiak bakarrik eman ziren argitara, hasiera hartan.

'Ameriketako errealitate historiko hartaz ideiaren bat izateko nolako ostopoak tartekatu diren jakin nahi duenak aski du zera gogoratzea: XVI. mendeko ikerkuntza bikainetatik batere ez zen argitara eman XIX. mendearen askenalderarte; batzuk argitara berriak dira orain gutxi eta beste zenbait, oinarriskoak gainera, artxibategietako itszalpeetan daude oraindik itsxaroten. Lehenengo hirurehun urte eta gehiagotan, konkistarien azalpenetara mugatzen zen gure jakintza, gero historilari gortescuen albisteetara (...). Orduan metatutako gaizki-ulertzapenak eta kalummiak guganaino iritsi dira, borondate on edo txarragoz, dotrina finkatu bezala. Hori gustia ostopaharri larria da Ameriketako jatorrizko herrien historia ezagutzeko". (L. SEJOURNE, 1971)

Laurette Séjourné historilarisa frantsesa da (1914ean jaioa), eta obra oparca du Mexikoko kulturei buruz argitara emanda: Teotihuacan eta inguruko aztarnategiak izan dira berezikiago aztertu dituenak. Artea, pentsamendua, erlijioa eta pentsamoldeak izan ditu gairik maiteenak. Amerikan ongi ezagutu duen kolonaurreko Historia, sarritan ukatua, argitan jartzeko grina bizia izan du Séjourné-k, isilketa errudun batzuk ere salatuz.

Ameriketako jatorrizko kulturen zehaztasunak "Mendez Mende. Aro Modernoa"n ikus daitezke: 41-96. orr., eta 92-96. orr. batipat. Afrikari buruzkoak, ostera: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 398-407. orr.

EGITEKOAK

- a) Atlas Historikoa kontsultatuz, mapan lekutu Amerikako jatorrizko kulturak eta hiri nagusiak.
- b) Egin kultura hauen taula kronologiko bat.
- c) Entziklopediak aztertuz eta irakaslearen laguntzaz lor itzazu garai hartan sortutako kolonizazioaren kontrako kritikak.
- d) Informa zaitetz Bartolomé de las Casas, Francisco de Vitoria eta Diego de Landa idatzirikoez.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Agiriaren irakurketa eta ulermenaren ondoren, zein konklusiotara heldu gara?
- b) Zergatik jartzen du zalantzan Séjourné-k, historia ofizialaren baliotasuna?
- c) Zein kalumniaz ari da Séjourné?
- d) Posible al da, zure eritziz, Historia objektiboa egitea? Nola?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

XV-XVII. mendeak

Ondoko testu hau biologo historilari batena da, hain zuzen arto-landarearen historiaurreaz eta eboluzio-datazioaz arduratu da Beadle. Bestalde, Ameriketako jatorrizko kulturetan artoaren laboreak izan duen pisu sozio-ekonomia azpimarratu du, hain zuzen berau bait zen amerindiarrei jatena ematen zien landarea eta Estatuaren zerga-sisteman ere garrantzizko lekua zuen laborea.

"Azteka, maia eta inken bistanleria trinkoa, eta beraien kultur maila txundigarria, ez ziren lortu ahal izango artorik gabe. Uzta-unekoa janari-beharretan ezezik, igartu, ondu, garraiatu eta biltegietan sartu ondoren epealdi luzeetarako balio izaten zien artoak. Azteken azken Errege Moctezuma-ri eman behar izaten zitzaizkion zergen artean, erreinuko hogeitazietatik erret biltegietan 7.500.000 kilo arto pilatsen ziren".

(G.W. BEADLE, 1985)

G.W. Beadle biologo historilariak, gizakiak hibridatutako landare garrantzizkoenaren iraganaz arduratu da, iragan horretaz teoria berriak landu eta zabalduz. Jakinaenez, gaur egun ere, gari-arrozekin batera, artoa da gizadiaren janaririk zabalduena munduan, askotan giza janari zuzena delako eta batez ere gero okela emango duten abereen pentsua delako.

Artoaren historiaz zerbait jakiteko, begira "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 45-46, 54-56, 59, 71-72, 94-96. orr. Hortik hasi zaitetzke Euskal Herriko artasoroez eta laboreez zure gogoeta historikoa egiten.

EGJTEKOAK

- a) Labore hauen garrantzi historikoz informaz zaitetz, gero laborpen bat egin dezazun.
- b) Mapamundi batean, kontinente edo lurralde bakoitzean nagusi diren labore nagusiak koka itzazu: garia, arroza, artoa...
- c) Bai ote duzu XVI. menderako beste horrelako mapa bat egiterik?
- d) Nola banatzen dira zure herriun labore-lurrak: zein leku du artoa? Azken hamarkadetan izan al da aldakuntzarik? Galde herriko adinekoei.

ERANTZUTEKOAK

- a) Agiriaren ideia nagusiaren azalpen bat egizu.
- b) Garaiko aztekek zuten dietaz informaz, eta esan Beadle-k arrazoirik duen.
- c) Zein zen Moctezuma?
- d) Zer diozu "Mendez Mende. Aro Modernoa"ko 70. orrialdean erakusten den irudiaz eta 72.eko estatistikaz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

c. 1520

Maiena, Ertamerikan kokatuta dagoen herri bat dugu. Oso kultura luze eta zabala izan zuen, eta haren arorik onena Kristo ondorengo 300-900 bitartean suertatu zen. Geroago gorabehera handiak izan zituzten, XVII. mendean osorik espainolen menpean erori ziren arte. Herri amerikar guztiena bezalaxe eztabaidatua da hauen sorrera, baina badirudi Prehistorian Asiatik joandako herrien jarraitzaileak direla. Hemendik esplikaturako lirerateke hauen ezau-garri mongoloideak.

"Sendo eta indartsuak dira, gogatsuak eta bortitzak, inoiz gutxitan egoten dira gairorik eta lanerako egonarri aparta dute. Txinarren antz handikoak dira. Alaiak, histunak eta lagunartekoak, gogokoak dituzte txantra eta barrea. Fidakorrak dira, atzerritarrekin eskuzabalak, ondrauak barru-barrutik, sogile onak, irudimentsuak eta badute ederraren sena. Haien artean, familiarteko sentimenduak oso estuak dira. (...). Baina ohiturak oso libreak dituzte, senar-emasteek errazki elkar zapuzten dute, batzutan 10 edo 12 aldiz ezkontzeraino iristen dira, emakume eta neskatilek beren amorante eta seme-alabak dauzkate, eta, hori gorabehera, ostoporik gabe ezkontzen dira". (R. MOUSNIER, 1958)

Roland Mousnier historilari frantsesak, Frantziaren Aro Modernoa aztertu du batez ere, hau da, XVI-XVIII. mendeak. Frantziako izen handi sagaratuetakoa bat da, noski historilarietan. Ikerlan mugatuagoen ondoan, Historia Unibertsalari liburu eder bat eskaini dio (XVI-XVII. mend.): sintesi irakurgarri eta bizia (Barcelona, Destino).

Ameriketako herrien jatorriaz, begira "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 44-46. orr. Maien historia nahikoa zabalki ikus dezakezu, 53-64. orr., eta hemengo pasarte honi beste agiri batzuk gehitu nahi badizkiozu, bila 59. or. Gaur eguneko testuinguruaz zerbait jakiteko: "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 232. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egizu maien lurraldearen mapa, ahal baduzu aro desberdinak zehaztuz.
- b) Ikus eta esplika mapa batean nola pasa zitezkeen asiarrak Amerikara (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 44. orrialdeko agiria).
- c) Marraz ezazu maien gisako eredu antropologiko bat.
- d) Egizu gizarte maiaren eskema bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Bila itzazu liburu batean maien batezbesteko neurriak.
- b) Konpara maien eraketa politikoa greziarrenarekin.
- c) Esplika maila sozial bakoitzaren ezaugarriak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Maien gizartea nekazari ekonomian oinarritu zen; inguruneak (antza, desegokia zenak) ipintzen zituen trabak eta eskainitako baliabideen eskastasuna harrigarriro gainditu zituen. Honela Peten-eko oihanean zibilizazio garatua eraiki zuten maiek: artoa izan zen Ertamerikako zibilizazio haren oinarri ekonomikoa.

"Petén-go oihanak ez du ematen zibilizazio baten garapenerako leku egokia denik; baina, hala ere, maiek gainditu egin zituzten horko ingurumenduaren mugatasunak. Inguruak ezarri zien laborantza-sistema, iraupenerako ezezik, soberakinak sortzeko ere pentsatuta zegoen. Baliabide naturalen eskastasunak aurrerapen teknologikoaren parte on bat eragotzi zuen, baina garatu zuten teknologias abildade gustis baliatu ziren, produkzio handia ez, baizik produktuen onketa estetikoa areago bilatzen zuen herri honen beharrianak asetzera. Inguruak eta produkzio-sistemak, bizilagunen kontzentrazioa eragotzi egin zuen; baina, hala ere, beste lekutan hirigintzaren fruitu ziren gizarte-antolamendu eta kontrol-sistema batzuk sortu zituzten maiek. Beren egokitzapen ekologiko hau arrakastaz egin eta nekazal oinarriak eta zutabe teknologiko eta sozio-politiko asegarriak jarri ondoren, maiek beren arreta osoa lorpen erlijioso eta intelektualei eskaini zieten. Hauek dira, hain zuzen, zibilizazio maiaren sinboloak. (...).

(Zibilizazioa izadiarekin adostasunean garatze horretan) maiena da, oraingoz dakigunez, balio ekologiko honetan halakorik lortu duen goi-kultura bakarra". (BETTY BELL, 1980)

Ertamerikako antzinako kulturetan lan egin du Betty Bell arkeologo eta historikarisa ipar-amerikarrak. Zibilizazio maiaren analisi kritiko bat argitara emanda dauka: lan laburra, baina interesgarria (ik. S.G. MORLEY (1968): "La Civilización Maya". Mexico, 442 or.).

Egoki izango da, agiriari behar dituen oharra egiteko, "Mendez Mendeko. Aro Modernoa"n maiet buruz esaten denari begiratu bat ematea: 53-64. orr. Komeni da laborantzaren, eraikuntz tekniken eta gizarte-antolamenduaren artekoak begiratzea.

EGJTEKOAK

- a) Yucatan penintsulako mapa bat hartu, eta aztertu bertan dauden komunikabideak, hiriak, herriskak, etab.
- b) Saia zaituz atlas geografiko batean Peten-eko oihanaren ingurune geografikoa aztertzen: Landare-motak, eurioak, tenperaturak, mendilerroak, lakuak, etab.
- c) Mapa berean bila aztarnategi arkeologikoak.
- d) Ahalegin zaituz horien historia lauki kronologiko batean laburtzen.
- e) Maien gizartea lau klasetan banatuta zegoen: egin eskema bat, klase bakoitzak dituen ezaugarriak aipatuz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Esango al zenuke maien zibilizazioa zibilizazio garatua zenik? Zergatik?
- b) Nola deskribatuko zenuke maien zibilizazioaren eta inguru fisikoaren arteko zerikusia? (Lehengaiak, laboreak, bizilagunen metaguneak, etab.).
- c) Zergatik dio autoneak maien kulturak balio ekologikoa duela?
- d) Maien laborantza nolakoa zen: iraupenezkoa ala soberakinak sortzen dituen horietakoa.
- e) Zeintzuk ziren zibilizazio maiaren sinboloak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1000-1697

Edozein kultura garatutan teknikak sortu behar izaten dira ingurune fisikoa menperatu eta izadian aurkitutako baliabideez probetxu hoberik ateratzeko. Horixe da maiek egin zutena ere, baina europarren edo asiarren ondoan muga nabariak izan zituzten beren teknologian.

"Primitibotzat eman dezakegu maien teknologia. Itxuraz, metala ez zen ezagutu Aro Postklasikoa arte, eta garai honetan ere joia eta apaingarrietan bakarrik agertzen da, gehienbat beste eskualdeetatik ekarritakoetan. Erabat ezezagunak ziren metalezko erremintak; zermahitarako harrisko erremintak erabili zituzten maiek: esteletaroko harlosak ebakitzeko, blokeak egiteko, eta eskulturarik finena egiteko ere. Ez zuten gurpilaren printzipioa ezagutu; ez zuten inolako ibilgailurik, eta eltsegile-tornua ere ez zuten ezagutzen. Galtsadetan erabili zituzten arrabolek iradoki zezaketen, noski, gurpilaren printzipioa, nahiz eta gurpil-ibilgailuen aurkientza beti ere, dirudienez, trakzio-animalien baliagarritasunarekin oso lotua egon, eta maiek, ez zeukaten animalia etxekotuetan txakurra baizik".

(MORLEY/B. BELL, 1980)

Sylvanus G. Morley-ri zor diogu maien buruzko historiari onena: arkeologo amerikarra zen, eta beronen lanei esker aro berri bat hasi zen arkeologia maian, Uaxanctún aurkitu zenetik (1916). Chichen Itzá-n egin zuen lan, eta aurkikunde sonatuak zor zaizkio Morley-ri: Bonampak, Palenque, etab. Honen eskolako ikasleetako batena da hemengo pasartea: Betty Bell (ik. HA 4:027).

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n badauzkazu argibide jakingarriak maien teknikari buruz: ik. 53-64. orr. Berezikiago, ik. 58. or.

EGITEKOAK

- a) Agirian azaltzen diren elementu kulturalak Europako mendebaldean noiz lortu ziren seinalatu, eta horretaz komentario labur bat egin.
- b) Adieraz, lauki batean, Ertamerikako eta Europako geografia fisiko-klimatikorearen aldeak.
- c) Neolitoko Iraultzaren hedapen-mapa ikus, eta Amerikan aldi berean zen pasutzen zen beha. Deskribapena, idatziz egin beharko zenuke.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Agiriko tesi nagusia azaldu laburki.
- b) Tesia indartzeko erabiltzen dituen beste ideiak ere aipa itzazu.
- c) Nola azalduko zenuke maien zibilizazio-aurrerapenen eta mugen historia?
- d) Nola deskribatuko zenuke idatziz "Mendez Mende. Aro Modernoa"ko 58. orrialdean ikus daitekeena.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

c. 1520

Hiri-estatu bakoitzaren antolaketa politikoan "halach uinic" deituriko pertsonai bat zegoen buru. Agintari politiko eta erlijiosoa zela dirudi. Eta honen menpean zeuden gizarte osoa, maila desberdinetako agintariz osatua. Oso nahasita zeuden maila guztietan aginte erlijiosoa eta politikoa. Hauen azpitik herria zetorren, ia dena nekazariz osatua. Azkenik, esklabuak zeuden, gerretan hartuak bati-pat, baina baita beste bidetatik horretara iritsiak ere.

"Maien artean Gobernua teokratikoa izan bada, soilik erlijioak eta errito-zeremoniek herriko jendearengan izan zuten indar nagusiagatik izan da, nonbait. Apezek ez zuten jakintza ekonomikoki balioskorik, apez egyptiarretan bestelakorik gertatzen zen bezala, hauek gai bait ziren Nilo-ren goraldi ongarriak iragartzeko. Apez maiek ez zuten kontrolatzen, gainera, garrantzisko iharduera ekonomikorik, Mesopotamiako apezek erregario-sistemaren monopolioarekin egin ohi zuten gisara".

(BETTY BELL, 1980)

Ertamerikako antzinako kulturetan lan egin du Betty Bell arkeologo eta historikarisa ipar-amerikarrak. Zibilizazio maiaren analisi kritiko bat argitara emanda dauka: lan laburra, baina interesgarria (ik. S.G. MORLEY (1968): "La Civilización Maya". Mexico, 442 or.).

"Mendez Mendeko Aro Modernoa"n ikus daitezke gizarte mailari buruzko albisteak, eta bereziki 54-57. orrialdeetan aurkituko dituzu honako jakingarriak.

EGJTEKOAK

- a) Egizu maien eraketa sozialaren eskema bat.
- b) Deskriba ezazu opalkuntza baten zeremonia.
- c) Bila jainko maila garrantzitsuenen izenak, eta eman beraien ezaugarriak.
- d) Irakur 55. orrialdeko agiriak, eta ideia horiekin komentatu 56.eko goiko irudia (badu oin-oharra ere).

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer da gizarte teokratiko bat?
- b) Nola esplikatuko zenuke klerwaren prestigioa?
- c) Zein funtzio zuten opalkuntzek.
- d) Zer esan maien arteko jakitunei eta apezpei buruz: bai al zuten elkurrekin zer ikusirik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. 1520

Maiak nahiko sakabantuak bizi zirela dirudi, eta hiri hitza erabiltzen bada ere, kontutan hartu behar dugu artasoro eta basoen artean zeudela, hots, ez zela, haiena biztanleria trinkoa. Etxeak arruntak ziren eta eraikin garrantzitsuenak erlijiosoak ziren, aipagarrienak, gainera, tenplo txiki bat duten piramide eskaileratuak dira. Kontutan hartzekoak dira pilotalekuak, dorreak, jauregiak, etab.

"Zibilizazio konplexuetan, agi denez gehienetan, hiriak faktore erabakiorrak izan badira ere, benetako hirigintzak --hau da, biztanleria trinkoa duten bilguneek-- ez du lekurik izan maien Aro Klasikoan. Haien nekazal sistemaren izaerak aski sakabanatuta bizitzera behartu zituen maiak, zeremoni lekuetan bilduz bakarrik, bates ere erlijio-ospakizunetarako. Eskualdearen isolamendua izan liteke hain luzaro iraundako bizi-molde hau mantendu zuen faktore garrantzitsu bat, zeren izan ere bestela biztanleria hain sakabanatua (batere gotorleku edo kolonia defendatsailerik gabe) gustiz ahula izango zitzakeen kanpotiko eraso eta inbasioen aurrean".

(B. BELL, 1980)

Ertamerikako antzinako kulturetan lan egin du Betty Bell arkeologo eta historikarisa ipar-amerikarrak. Zibilizazio maiaren analisi kritiko bat argitaratu emanda dauka: lan laburra, baina interesgarria (ik. S.G. MORLEY (1968): "La Civilización Maya". Mexico, 442 or.).

Maiei buruz "Mendez Mende. Aro Modernoa"n aurki ditzakezun langaien artean, ik. 53-64. orr.: bila hirigintzarekin eta hiri-landen arteko harremanekin zerikusirik duten datuak. Berezikiago, begira 58, 59 (kultura ekologista), eta 62-63. orrialdetakoa 60. orrialdeko irudiarekin alderatu.

EGJTEKOAK

- a) Bildu liburuetatik maien eraikinik errepresentatiboenak.
- b) Bila eta esplika ezazu eraikuntzetan erabiltzen zuten teknika.
- c) Bila, maisuaren laguntzarekin, maien hizkuntzaren berrinen bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer esan nahi du ganga faltsoak?
- b) Zer esango zenuke maien pintura eta erliebeeiz?
- c) Zein egutegi-sistema erabiltzen zuten?
- d) Ulertzen al da maien idazkera?
- e) Nola lortu zuten astronomiaku jakintza hura?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1000-1697

Ertamerikan loratu zen maien kulturaren ezaugarri batzuk ematen dizkigu testu honetan. Hango arkitekturaren garrantziak, gizarte antolatu bat ispi-latzen du. Eraikinek eta berauetako dekorazio aberatsek maien finezia estetikoak erakusten dute. Oihanetako kultura hau ez zen batere basatia, oso landua eta guztiz jasoa baizik.

"Egiasko arku jatorra erabili ez bazuten ere, harlandu irtenekin tenplu eta jauregi handiak jaso ahal izan ziren, inoiz baita zenbait oinekoak ere. Arkitektura maiaren berezgarri nagusia bere dekorazio fin eta konplexuan datza, bere tamainan baino areago. Tikal-eko sare-gailurreriek bezala Uxmal-eko mosaiko-fatxada eder-ederki landuek finezia estetikoaren halako kezka bat erakusten dute masen ezarpen itzel bat baino gehiago". (B. BELL, 1980)

Ertamerikako antzinako kulturetan lan egin du Betty Bell arkeologo eta historikarisa ipar-amerikarrak. Zibilizazio maiaren analisi kritikoa bat argitaratu emanda dauka: lan laburra, baina interesgarria (ik. S.G. MORLEY (1968): "La Civilización Maya". Mexico, 442 or.).

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n baduzu zenbait irudi, zibilizazio ha-
ren aurpegi-modu bat ezagutzeko (53-64. orr.). Entziklopedietan ere bila
dezakezu argibide zabalagorik.

EGJTEKOAK ETA ERANTZUTEKOAK

- a) Non daude maien arte-lan ugarienak eta ezagunenak? Koka mapa batean.
- b) Zeintzuk dira maien eraikuntza mota ezagunenak eta erabilienak?
- c) Zein materialez eginak dira maien eraikuntzak? Nola lantzen eta jasotzen dituzte eraikin horiek? Nolako zailtasunak zituzten?
- d) Zein antolaketa sozialek eraman zituen aurrera hainbeste lan eskatzen zuten eraikinak?
- e) Testuak dienez, maiak ez zuten egiazko arku jatorria erabiltzen. Nola-koa da erabiltzen zuten arku faltua, ondea? Marraz biak, eta argi beren arteko desberdintasunak.
- f) Artearen garapenak bai al du, maien artean, parekorik, bere alde teknikoetan?
- g) Hara hiru argazki, eta konparatu maiak, azteka eta inken eraikin handi bana. Zeintzuk dira berorien ezaugarri amankomun eta bereziak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1000-1697

B. Bell-ek maien artelanaz dihardu hemen. Maien obra ezagunenak arkitekturakoak izan arren, ez dira eskultura eta pintura ere ahantzi behar, Ameriketako kulturek duten arte-multzo ederrenetakoa eta interesgarrienetakoa baita hau ere.

"Maien arte grafikoa ere oso garatua zegoen. Eskulturek formalegiak izatera jotzen dute, estilizatuegiak, eta marrazkiak nahasiegiak gaur eguneko gusturako, baina ukazina da lanketa horretan eman den ardura. Zeramikan, libreago eginak dira lanak, hainbeste formaltasunik gabe eta, marrazki askok, Uaxactún-eko plater sonatuan ikus daitekeena bezalakoek, erakusten duten estilizazio-mailak ez du galtzen gaur eguneko zeramika modernoaren ondoan ere. Bonampak-eko muraletako irudi batzuk, berriz, Europa-n zenbait mende geroago bakarrik lortuko zen naturalismoarekin eginda daude".

(B. BELL, 1980)

Ertamerikako antzinako kulturetan lan egin du Betty Bell arkeologo eta historikarisa ipar-amerikarrak. Zibilizazio maiaren analisi kritiko bat argitara emanda dauka: lan laburra, baina interesgarria (ik. S.G. MORLEY (1968): "La Civilización Maya". Mexico, 442 or.).

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n badituzu irudi batzuk (ik. 53-64. orr.), baina, beren koloreagatik, entziklopedia eta kolorezko argitalpenetan ere erreproduzio egokiagoak bilatu eta komentatzea komeniko da.

EGJTEKOAK

- a) Bila eskolako nahiz etxean dauzkazun entziklopedia eta arte- eta histori liburuetan maien erliebe-lanak, pinturak, etab.
- b) Marraztu aurkitutako irudiren bat, eta deskriba ezazu, maien gizarte-egiturak gogoan izanik.
- c) Bila, liburuetan, Mesopotamiako nahiz Egiptoko eskulturaren bat, maien artelanen batekin antzen bat izango duena: zertan dira antzekoak, zertan ez?
- d) Egin Yucatan-eko mapa bat, eta lekutu bertan maien arte-toki garrantzizkoenak.

ERANTZUTEKOAK

- a) "Eskultura maiak, formalegiak dira" esan izan da; "zeramika, osteria, libreagoa": Zer esan nahi du horrek? Eta zergatik esaten da hori?
- b) Zergatik esan liteke Bonampak-eko pintura naturalagoa dela? Mendebaldeko pinturaren historian, arazo estetiko hau aurkitzen al da presente? Erromanikoan, Gotikoan, Ernazimentuan eta abarretan?
- c) Zer da, maien artelanetatik, pinturan eta eskulturaren gehien gustatzen zaizuna? Zergatik?
- d) Obra maien balio estetikoetatik, zeintzuk dira zuk Egiptoko eta erromanikoko obretatik edo Picasso-rengandik hurbilen ikusten dituzunak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1428-1520

Testu historiografiko honetan azteken justiziaren antolamendua deskribatzen zaigu. Justizia gogorra, eta gure ikuspuntutik begiratuta, basatia izanik ere, familia, gizartea eta Estatua babesteko pentsatuta zegoen. Mendekua eta erantzun pertsonala onartzen ez zuen betekizun publikoa zen justizia, aztekentzat. Gizartea, legeen esanetara jartzen zuen justizia antolatu honek.

"Gaizkile-zigorrak oso gogorrak ziren, eta familia, gizartea eta Estatua aldartekerietatik eta moralik ezetik babesteko pentsatuak. Heriotz zigor-mota ezberdinak zeuden: ezkon-nahastaileak harrikatu egiten ziren, giza hiltzaile eta lapur handiak hurkatu, traizio larria zutenak zatikatu, eta, horrelakorik egindakoa noblea zenean, lepamoztu; sexu-desbiderazioak, abortoak, azoketako moral-hutsegiteak, abusario burokratikoak edo isil-estalpenak heriotzera emanez zigortzen ziren. Juramentu faltsuak eta kalumniak, mingaina eta espainak moztuz; eta lupemeak pikutan jarriz. (...). Halako animaliakieriekin ere, justizia egiten aurrerapenik egin zen (...), izan ere norbera bakoitzak ezin zuen horrela bere eskuz justizia egin, ezta ezkon-nahastaileak berean topatuta ere. Delitok epaitu eta zigortzeko eskubidea Estatuak beretzat gorde zuen".

(W. KRICKEBERG, 1977)

Walter Krickeberg irakasleak, Mexikoko kulturei eskaini zaien libururik helduenetako bat dauka argitara emanda: "Altmexikanische kulturen" (Jatorrizko kultura mexikarrak, 1956. Gaztelaniaz: F.C.E.). Azken laurogei urteetan arkeologia amerikarrak erakutsi dituen altxor historikoak bizitasun handiarekin azaldu ditu ikertzaile aleman honek.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n ikus daiteke testuinguru historikoa (64-76. orr.). Komeni da irakurtzea, azteken gizartean justiziak zuen lekua ezagutzeko. Konkista ondokoak jakiteko, ik. 209-214. orr.

EGITEKOAK

- a) Galde ezazu, familian, tribunaletan inoiz arazoren bat izan duten? Zer?: Justizia egin zitzaiela uste al dute?
- b) Zein zigor-modu izaten dira, Estatu modernoetan, ohizkoenak?
- c) Bila ezazu, ahal baduzu, euskal Foruen edizioen bat, eta begira tribunaletan buruz zer esaten den? Gaizkileak nola tratatzen zituen Foruak?
- d) Zure herrian edo inguruetakoren batean hiltzailereren bat izan bada, nola izan da epaitua tribunaletan? Galde, egin behar den zuhurtzia.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zeintzuk lirateke justizi administrazio egoki baten ezaugarriak eta garrantziak?
- b) Deskribatu gaur egun Justiziak duen funtzionamendua, ematen dituen pausoak eta erabiltzen diren prozedurak.
- c) Azteken artean, mailaketa sozialak badu eraginik justiziaren aplikazioan?
- d) Esplika esaldi hau: "Halako animalakeriekin ere, justizia egiten aurrierapenik egon zen". Zein gizarte-motatan ematen dira horrelako zigorrak?
- e) Justiziaren antolaerak ispiatzen ote du gizartearena ere?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Ameriketara bazegoen zibilizaziorik, kolonizazioak hasi aurretik ere. XVI. mendetik hona aztertu dira. Hasiera hartan, hango ohiturak egoera politiko berria ezartzeko ezagutu behar zituzten konkistariak. Interes ekonomiko-politiko horretatik aparte, bertakotarren aldeko historikaririk ere izan zen laster. Guztien albisteekin, kolonaurreko gizarte haien erretratu-molde bat badugula esan genezake. Inperio amerikar haietan ere, adibidez, gizabanakoaren eta Estatuaren arteko gatazka, ezaguna da.

"Gutiengo baten probetxutan eraturiko sistema politiko-administratiboa zen inkena. Gobernu autokratikoa.

Talde nagusiaren agintea erlijioan oinarritzen zen, eta herria honen menpe, ezjakintasunean eta etengabeko lanetan. Alferkeria --grina txar guztien ama-- zigortu egiten zen; herriak beti ekinean edukitzeko, eta ahalegin horri eustearren, inoiz agindu zen milaka eta milaka sorri, zerga gisa, biltzeko ere.

*Zorion negatiboa baizik ez zen hura: bisitza erabat arautua zegoen, janariak eta jantziak berdinak ziren, klan eta **ayllu**-ari lotuta zegoen gizabanakoa (...), guztien ginetik Estatu, dena arautzeko".*

(F. MORALES PADRON, 1962)

Francisco Morales Padrón Amerikako historiaz (Aurkikundea eta independentziaren artean) espezialista famatua dugu. Sevillako Unibertsitatean Amerikako departamentua zuzendu du Sevillako tradizio historiografiko amerikanistan sartzen da Morales Padrón.

Herri edo Inperio inkari buruz "Mendez Mende. Aro Modernoa"n badauzkazu albiste batzuk: ik. 77-96. orr., eta berezikiago 84-85. orr. konkistakoaz ere ik. liburu berean 214-216. eta hurrengo orr.

EGJTEKOAK

- a) Mapa egizu, inperio inkaren mugak beren lekuan emanez.
- b) Inken egitura soziala azter, eta eskema grafiko bat egin. Zeintzuk dira probetxua lortzen dutenak?
- c) Egitura politikoaren eta erlijioaren arteko loturaren analisisa egin.
- d) Egizu lauki bat, eta adieraz bertan, biak alderatuz, Erromatarren eta Inken Inperioetan aurki daitezkeen antolamendu-ezberdintasunak eta antzak: zer egin ohi zen herriak menpe edukitzeko?

ERANTZUTZEKOAK

- a) Gobernu autokratikoa ala/edo teokratikoa zen inkena?
- b) Zer da "ayllu" a?
- c) Alferkeria, zergatik ez zen onartzen?
- d) Testuan deskribatzen den sistema Antzinatean arrunta al zen? Beste non aurki liteke horrelakorik?
- e) Espainiako Monarkiak ez al zituen inkek erabilitako baliabide berdintsuak eskuratu, hain zuzen inkak berak menperatzeko?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

c. 1530

Inkena da Ameriketara garatu zen inperio bakarra, gainerakoak ez bait dira federakuntzak besterik. Inperioari Tahuantinsuyu deitzen zaio eta Inkaren menpean dago. Hau, hasieran, gerrarako gidaria izan zela dirudi, baina gerora aginte politikoa ere bereganatu zuen. Ez zen aginte hori askotan pentsatu den bezain osoa izan, ingurukoak behin baino gehiagotan kontrajarri zitzaizkiola garbi bait dago. Dena den, sistema osoaren giltzarria da.

"Inken gobernuak, alde batsutatik begiratuta, totalitarioa izan zen. Batez ere efikaziaren kezka eta bizilagunen ongizatearen ardurak izan zituen. Bere aurretik izandako sibilizazioez eskuzabalki probetxatu zen, izadi egoskor bati etekinik onena ateratzeko. Eraikitza eta arte-obra izugarriak jasotzen zituzten, eta beren sistema sozio-ekonomikoaren sinpletasunagatik mirezgarriak gertatzen zaiskigu inkak gaur egun ere. Honek gustiak gobernamendu zentralizatu oso boteretsu bat eskatzen zuen, aginte oro Inkaren eskuetan bildus. Erregea zen Inperioaren giltzarria. Piramide-antolatamendu honek esplikatzen ditu Inperio haren indarra eta hauskortasuna, aldi berean".

(D. LAVALLEE, 1979)

D. Lavallée, historiarisa frantsesa da, eta azken hamarkadetako Frantziako historiografia amerikanistaren tradizioan egin du lan. CNRSeko ikertzailea da D. Lavallée.

Gai honi buruz, "Mendez Mende. Aro Modernoa"n, 77-91. orr., nahikoa albiste daukazu, baina, berezikiago, antolamendu sozio-politikoari dagokiona ikusi beharko zenuke: 83-86. orr.

EGITEKOAK

- a) Egin Inperio Inkaren mapa bat, izan zuen garapen historikoaren aroak ahal duzun neurrian zehaztuz.
- b) Jarri, kuadro batean, kolonaurreko hiru kulturen kronologia eta ezauariak. Konpara itzazu, eta ikus, berdintasun-desberdintasunak.
- c) Egin errege inken kuadro kronologiko bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Inperioaren batasunean galtzadek izan zuten garrantziaz hitzegin, eta egiteko sistema ikusi.
- b) Nekazaritza da iharduera ekonomikorik garrantzitsuenak: ikus zein sistemaz lantzen zuten lurra, nola zegoen banatua, zeintzuk ziren produkturik garrantzitsuenak, etab.
- c) Nolako balio historikoa eman diezaiekegu inken aurkikunde teknikoei? Zergatik?
- d) Antolamendu politiko bezala, zein da, zure ustez, hobea: uztekenu ala inkena?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testu honetan Inken Inperioko bide-sarea deskribatzen zaigu, bikaintasun eta egokitasun handiko sistema bezala azalduz. Are harrigarriagoa zen hori, eragozpen geografikoak handiak bait ziren, Andeatako bi isuraldeetan hedatutako inperio hartan. Harreman-sare paregabea zen hura Ameriketan.

"Ongi daudela iruditzen zaigu eratuak gaurko gure bide eta kaminoak: tarteka beren ostatuekin, beren gasolindegiekin, etab. Ez dira gaur goizeko asmaketak horiek! Erdi Aroko Inken Inperio hark ere bazituen bereak: hogeit hamar kilometrotik hogeit hamar kilometrora 'tanbo' zeritzeten etxe batzuk zituzten bidariei ostatu emateko eta guda-rientsako edozein klasetako gauzaz beteak (erropak, oinetakoak, animalientzako jatena, etab.). Bi edo hiru kilometro bakoitzeko, berriz, 'txaski' izeneko langileen etreak zeuzkaten; korreo-lana egiten zuten, alde batetik bestera berriak ahoz eramanez. Urte garairik hoberenean izaten zuten bi mila kilometro bost egunetan egindakorik, eta jeneralean galtsadaren 5.000 kilometroak hogeiren bat egunetan ibiltzen zituzten: geroago espainiarrek jarritako saldiek baino lau aldiz denbora gutxiagoan, alegia".

(ZELAIA: *Egutegia*)

Bide-sarearen betekizun sozio-ekonomiko eta politikoa ezaguna da Inperio kontinentaletan, hau da, ibai-ardatz batetik edo kostalde nabigagarritik urrun hedatu izan diren Inperioetan. Komeniko da beste adibide batzuk ere bilatzea: Erroma, Txina, Pertsia eta, trenbidea jaio denetik, berorri esker egindako kolonizazio-inperioak.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n aurki ditzakezu Inkei buruzko hainbat albiste: 77-96. orr. Bide-sareari dagokiona, ik. 82. or. Begira, gainera, "Historia/1"ean 81. or. (Txina), 121, 130, 132 orr. (Erroma), 221. or. (Santiago-Bidea). "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 23, 75, 76, 98, 108, 285-288. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egin inken inperioaren mapa bat, haren bilakaera markatuz. Seinala bide-sareak lotuko zituen hiri nagusienak.
- b) Egin beste Inperioaren bateko bide-sarearen mapa bat.
- c) Begira zure herriko planoak, eta marraztu bertan herriko mendi-bide nagusienak: zein da bide bakoitzaren betekizunik aipagarriena? (Ekonomia, kulturala, erlijiosoa, komunikatibo hutsa...?)

ERANTZUTZEKOAK

- a) Noiz sortu ote zen Inken bide-sare hau? (Gogoan har, duzun inperioaren bilakaeraren mapa).
- b) Nola funtzioak betetzen ditu hurrelako bide-sare antolatua? (Ekonomikoak, politikoak, militarrik, etab.).
- c) Zer adierazten digu testu honek Inken Inperioaren antolamenduari buruz?
- d) Nola eraiki ote zen komunikabide-sare hori? Iniziatiba pribatuaren ondorioz edo Estatuak erabakita?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1438-1431

Bushnell-en testu historiografiko honetan nekazaritzaren antolamenduaz hitz egiten da, lurraren eta etekinaren banaketa gizartean mailaketa sozio-ekonomikoaren argigarri bezala agertzen zaigula.

"Ayllu bakoitzak hiru partetan banatutako lur-sailak izaten zituena, bat erregearentzako, bestea Eguzkiarena, eta hirugarrena ayllu-arena berarena; lehenengo bien laborantza zen, herriarentzat, Estatuari zerga ordaintzeko modu arrunta, eta bion fruitua zen gobernu eta erlijioa mantentzeko baliabidea ere. Ayllu-ak probintziatan biltzen ziren, eta hauen barnean bizpahiru moietetan (...)"
(G.H.S. BUSHNELL, 1962)

Geoffrey Bushnell, arkeologo britainiarra da. Latin Amerikan petrolio-bilaketan urteak eman ondoren, 1938an Arkeologiara pasa zen, Cambridge-n eta Ameriketara bertan, eta 1948an Cambridge-ko Museo-zain bilakatu zen, baina tokian tokiko landa-lanak utzi gabe. Peruri eta bertako zibilizazioei eskainitako liburu bat du autoreak.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n datu interesgarririk jaso dezakezu, hemengo testu honi osagarririk emateko: 77-91. orr. Sistema ekonomikoari dagokiona ik. 87-89. orrialdeetan.

EGJTEKOAK

- a) Egizu inken antolamendu ekonomikoaren grafikoa.
- b) Mapa batean emango al zenituzke Inperioaren probintzia eta eguzkialdeak?
- c) Inken kronologia txiki bat eratu al zenuke? Eman berri ardatz kronologiko egoki batean.

ERANTZUTEKOAK

- a) Labore-lur guztiak *ayllu*-en eskuetan al zeuden?
- b) Lurra norena zen? Jabetza pribatu osorik badagoenik esan ote liteke? Arrazoitu erantzuna.
- c) Konpara ezazu sistema hau feudalismoarekin.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Inken Inperioan Estatuko estatistiken informazioa jasotzeko erabiltzen zen tresna berezi batez dihardu pasarte historiografiko honek: tresna hori, lokarri korapilotsu bat zen, "quipu" a. Jaun jakitun eta horretan trebatuek zuten "quipu" landua (korapiloz osatua, alegia) ulertzeko aski oroimen eta jakitate.

"Nonnahi ere, inkek bazuten uneoro Erreinuko estatistiken informazio sabala. Beren goardizioez jakin beharko zutena bazekiten, berdin burokraziaren lanaz, eskualde ezberdinetako bizilagunek eta baita lanetarako zeuskaten gizoneskoen eta emakumeskoen arteko portzentaiak ere.

Oroimen-lorpen miragarria zen hau, hain zuzen quipu deituriko tresnaz lortutako ahalmena. (...).

Horretarako arduradunak (oroimen-dohainez horrela jantziak) buruz jakiten zuen quipu-aren lokarritxo eta korapilo bakoitzak zer esan nahi zuen. Bizitza osoa ematen zuen datu horiek jaso eta gogoratzen, eta bere ardurapean zituen funtzionarioei xehetasun denak eman diezaskiekeen.

Bestalde, gertakari historiko oroigarrien bilduma mota bat zen, gainera, quipu-a, edo gutxienik talde agintariak gogoratu nahi zuen Historiaren bilduma". (J.E. FAGG, 1970)

John E. Fagg, ibero amerikar ipar amerikarra da: Chicago eta New York-eko Unibertsitateetan lan egin du. Hego Amerikaren historia eta gaur eguneko errealitatea ongi ezagutzen ditu. Historia orokor guztiz irakurgarria dauka argitara emanda: "Latin America. A General History" (N.Y., 1963).

Inken zibilizazioaz eta beraien Estatu-antolamenduaz argibideak jasotzeko, ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 77-96. orr. "Quipu"ari buruz 89. or. Beste molde bateko "quipu" bat "Encyclopaedia Universalis"en ikus daiteke: 8, 782.

EGJTEKOAK

- a) "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 89. orrialdean esaten direnak osa entziklopedietan bila ditzakezun albisteekin.
- b) "Mnemoteknia" hitzaren esanahiaz jabetu zaitetz, hiztegia kontsultatuz.
- c) Testua ulertu ondoren, idatzi berorren esanahi orokorra.
- d) Atlas Historikoetan begira eta egizu mapa bat, inken zibilizazioaren eskualde eta mugak jarritz ("Mendez Mende. Aro Modernoa"n 80. orrialdea ere begira).

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer zen "quipu" a?
- b) Zentarako erabiltzen zen? Zergatik zen garrantzizkoa ekonomian, historian eta abarretan.
- c) Horren ardurarunek gizarte-maila berezia osatzen zuten: zeintzuk ziren?
- d) Zein gizarte-motatan erabiltzen zen informazioa gordetzeko sistema hau?
- e) Zure eritziz, zer suposatzen du horren erabilerak? Nolako inperio-mota? Zein aurrenekan edo atzerapan kultural?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Inkak oso injineru onak izan zirela esan daiteke; artista baino injineruago, alegia. Eraikuntza funtzionalak dira hauenak; alde dekoratiboei garrantzi txikiagoa ematen zitzaien. Ez dute arku eta gangarik erabiltzen, baina oso eraikin handiak egin zituzten. Material desberdinak erabili zituzten eraikuntzarako, bete behar zituzten funtzioen arabera: kareharria, diorita eta andesita.

"Eraikuntza erraldoi hauen hondakinak misterios beteta daude guretzat. Ez dakigu, urruneko harrobietatik, mendikate, amildegia eta zintzurak zehar nola eraman zituzten harritzar hauek. Ez zuten horretarako inolako makinarik, ez animaliarik. Polea bera ere ezesaguna zen inkentzat, nahiz eta beharbada zurezko enbor borobilak erabili izan, harez gero eguraldiak ustel arazi dituenak. Milaka langilek egindako garraio-lana dela pentsatu beharko da (...), baina berriz ere beste zerbait harrigarriekin topoegiten dugu: nola landu ote zituzten harriak, bultzaka ekarri ondoren, eraiki-puntuak? Harrien tamaina esberdina, alde aurretiko plan baten arabera zen. (...). Ez zen ia inoiz porlanik erabiltzen; elkarren gain juntu-juntu moldatzeko moduan lantzen ziren harriak. (...). Oraindik ere, zutik jasan dituzte inken murruek gainerako edozein eratako eraikuntza lur-joarazten duten lurrikarak".

(J.E. FAGG, 1970)

John E. Fagg, ibero amerikanista ipar amerikarra da: Chicago eta New York-eko Unibertsitateetan lan egin du. Hego Amerikaren historia eta gaur eguneko errealitatea ongi ezagutzen ditu. Historia orokor guztiz irakurgarria dauka argitaratuta emanda: "Latin America. A General History" (N.Y., 1963).

Ikus "Mendez Mendeko Aro Modernoa" liburuan 77-91. orrialdeak. Bereziago hemengo gaiarekin datozenak 89-91. orrialdeetan dauzkazu.

EGJTEKOAK

- a) Bila liburuetan, eta egin eraikuntza tipikoekin mural bat.
- b) Aldera itzazu holoaurreko kulturetako eraikinak: zer dute aztertzeke-rik, zer bakoitzak bereizgarriak?
- c) Aipa inken jainko-izenek garrantzitsuenak, eta eman bakoitzaren ezaugarriak.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zein eraikuntza teknika erabiltzen zuten inkek?
- b) Nola garrantzitzen zituzten eraikuntzetarako harriak?
- c) Antolamendu sozio-politikoak bai ote zuen arkitekturaren obra hauekin inolako zerikusirik? Zer esan liteke horretaz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1438-1531

Kolonaurreko inken zibilizazioaren ezaugarri batzu aipatzen dira ondoko testu honetan. Historilari baten pasartea da. Produkzio-baliabideen jabeago pribatuaren eza, politika anexionistaren praktikatzaileak, etab. gogoratzen ditu autoreak inken Inperioaren alde sozialak aztertzean.

"Inkek, izan ere, bete zuten sozialismoaren oinarriko hastapen hura: haien artean ez zegoen produkzio-baliabideen jabetasun pribaturik. Hala ere, haien gizartea osatzen zuten hiru klaseak (hau da, apezgoa, noblezia eta hirugarren estatua esan ditzakegunak) elkarrengandik erabat banatuta zeuden, gutxienez Frantzia 1789-aren aurretik zeuden bezalatsu. Inkak, gure Errege Eguzkia (Roi Soleil) bezain jainko-eskubidezko botere absolutuz jantziak zeuden; inken politika anexionistan herrien taldekako leku-aldakuntza bortzatuak ere egin ziren. Mundu Zaharrean ez da halakorik ezagutu... XX. menderarte".

(H. LEHMANN, 1973)

Henri Lehmann, Gizakiaren Pariseko Museoan irakaslea izan da. Kolonaurreko arteaz hainbat lan egin du, Hego eta Ertamerikakoez batipat. Hango zibilizazioez badu, gainera, sintesi erabilgarria ere: "Les Civilisations Précolombiennes" (Parise, 1973). Latin Amerikaz, eta beronen erroez berezikiago, arduratu diren historilarien artean kokatu behar da Lehmann-en lana.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n aurki ditzakezu Amerikako jatorrizko zibilizazioen berriak. Inkei buruzkoak 77-94. orrialdeetan daukazu.

EGITEKOAK

- a) Amerikako mapa batean koka ezazu Inken Inperioa, bere muga eta hiriekin.
- b) "Mendez Mende" liburutik atera itzazu inken antolamendu sozio-politikoaz ideia nagusiak, eta eman eskema batean.
- c) Sistema ekonomikoaren berezitasunak ere laburtu, eta gomendakiñaren (=encomienda) ezaugarriak azpimarra.
- d) Hiztegiari begira, eta idatz hitz hauen esanahia: anexionista, produkzio-baliabidea.

ERANTZUTEKOAK

- a) Non finkatu zen Inken Inperioa? Handia izan al zen?
- b) Nola zegoen banatuta hango gizartea?
- c) Zer adierazi nahi du "Jainko-eskubidezko boterea" zutelako ideia horiek?
- d) Zeri esaten zaio "politika anexionista": praktikatzen al da gaur egun?
- e) Halako taldetako leku-aldakuntza birtxatuak XX. menderarte ez direla ezagutuko, dio autoreak. Zergatik esaten du hori?
- f) Norekin parekatzen du autoreak "Inka" delakoa?
- g) Zein da "Inka" hitzaren esanahia?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XVI. mend.

Asko entzun izan dugu Europak amerikari eman zionaz. Europak kulturizatu du Amerika, esan izan da. Baina, ez dugu ahaztu behar Amerikari zor diogula gaur erabat normal iruditzen zaigun zenbait produktu. Handik ekarria da, esate baterako, Euskal Herriko elikaduraren hobekuntzan hain garrantzitsua izan zen artoa.

"Amerikak, gaur eguneko munduko kulturei eskaini dien ekarpena batez ere lurgintzari dagokiona izan da. Indiarrak izan ziren lehenengoak kakahuete eta artoa, patata eta manioka laboratzen. Haiengandik ikasi zuen Europak eta munduak kina-azalaz eta koka-zuhaiskaz baliatzen. Berdin kautxuaren izerdiaz eta ekilorea-ren olioaz; tomatea, bainila, kakaoa eta tabakoa ere laboratu zituzten.

Hala ere, indiarrei gorpila eta gurdia faltatu zitzaizkien, ez zuten golderik, eltsegile-tormurik edo hausporik, esta burdinarik nahiz beirarik; ez zuten ezagutu ganga jatorrik. Haien artean, kultura gehinetan egiten ziren giza opalkuntza ankerrek espainiarren eta mundu kristauaren arbuioa piztu zuten". (P. CHAUNU, 1973)

Pierre Chaunu, historilari-maisua da, frantsesa. Sevilla, Atlantikoa eta Amerika izan dira batipat ikertzaile honen aztergaiak, eta lan gaitza egin du horretan: "Séville et l'Atlantique" (Parise, 1959). Sintesi guztiz fidagarriak eskaini ditu, gainera, Espainiaren hedapen kolonial amerikarrari buruz.

Datu gehiago "Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuan, 92-96. orr. Komeni da informazio-sintesi hau ongi irakurri eta aztertzea. Gainerako albiste orokorrak aurreko orrialdeetan ikus ditzakezu: 41-91. orr.

EGJTEKOAK

- a) Bila zure herrian Ameriketatik ekarritako landareak dituzten lur-sailak, sorwak: egin laguntzat zerrenda bat.
- b) Galdetu lur-sail horien jabetakoren bati, zein arazoirengatik aukeratu duten landare hori.
- c) Ameriketan egondakoren bat zure herrian bizi bada, galdetu hango indiarren bizimoduan gehien harritu izan duena zer den (halakorik ezagutu bada, bederen).

ERANTZUTEKOAK

- a) Esplika ezazu indiarrek erabiltzen zuten laborantza-sistema.
- b) Aipa itzazu Ameriketatik ekarritako produkturik garrantzitsuenak, eta egin bakoitzaren historia.
- c) Zein abantail ekarri zuen artoak Europara, eta zehazkiago Euskal Herri-ra?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Harrigarria da amerikarrek lortu zuten aurrerapen teknikoan maila eskasa. Izadia hain emankorra izanik, badirudi ez dutela lan egin beharrik sentitzen, behar dutena ia besterik gabe lortzen dutelako. Dena den, subsistentziarako lanetatik kanpo ezer egin behar dutenean, erabat mugatuak daude. Ez dugu aurkituko gizakiaren beraren lanean hain oinarriturik dagoen beste zibilizaziorik munduko beste partetan.

"Aisia libre ugariko kulturek automugapenak sortzen dituzte: bizilagunak gauzen menpe gutxiago zeudelako edo, paradoxaz gizonaren beraren ahalmenetara mugatuta zeuden zibilizazio amerikarrak.

Gisa muskulu-indarraren maila ez zuten gainditu artoaren kulturek.

Gizaki haieiako bat, XVI. mendeko edozein europar baino hogeitaldiz ahulagoa zen bere baliabideetan, baina hango lur oneko hektarea batek bizilagun gehiagori eman diezaiokeen jaten, eta amerikar batek bere denboraren hiru laurden libre zeuzkan --subsistentzi lanetatik aparte-- nahiago zituenetan emateko.

Baina, askenean, halako erraztasunek aurrerapen teknikoa ezindu egin zuten, aurrerapenari berari sortzeko arrazoia kendu bait zioten".

(P. CHAUNU, 1973)

Pierre Chaunu, historilari-maisua da, frantsesa. Sevilla, Atlantikoa eta Amerika izan dira batipat ikertzaile honen aztergaiak, eta lan gaitza egin du horretan: "Séville et l'Atlantique" (Parise, 1959). Sintesi guztiz fidagarriak eskaini ditu, gainera, Espainiaren hedapen kolonial amerikarrari buruz.

"Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuan kapitulu oso bat daukazu Amerikari buruz: 41-96. orr. Hemen, berezikiago zuri interesatzen zaizuna, 92-96. orr. topa dezakezu.

EGJTEKOAK

- a) Bila itzazu Ameriketako gaur eguneko indiarren mapa egokiak: Entziklopedietan egoten dira honelakoak.
- b) Mapa bat beraren gain eman Estatuaren mugak eta Independentzi ondoren ere indiarrek dituzten eskualdeak: zenbateraino datoz bat haiek eta hauek?
- c) Aldera itzazu hemen Amerikako bizilagunei buruz esaten direnak ("Mendez Mende. Aro Modernoa": 42-46. orr.) eta Afrikaz ikus ditzakegunak ("Mendez Mendez. Aro Garaikidea": 409-413. orr.).

ERANTZUTEKOAK

- a) Teknikaren aldetik, zein da zure ustetan amerikarren hutsunerik garrantzitsuena? Zergatik?
- b) Zein da amerikarregundik jaso behariko genukeen erakutsia? Arrazoitu erantzuna.
- c) Egunkariaren, maisuaren eta abarren laguntzaz komenta ezazue Hego Amerikako indiarren historia.
- d) Zergatik galdu dira ia erabat indiarrek Ipar eta Hego Ameriketako lurralde handietan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

Gomendakina: 1503-1542. 1720
Mita: 1573

Konkista espainiarrak Ameriketara izan zuten ondorioez hitz egiten du testu honetan D. Lavallée-k. Indiarren sistema sozio-ekonomikoaren suntsiduraren mekanismoak eta bideak (**gomendakina** eta **mita** alegia) deskribatzen ditu, eta beronen ondorioak, noski.

"Encomienda deituaren gain eraiki zen Espainiaren sistema Ameriketara: sekulako 'hacienda'k (lurrak) banatu ziren handiki espainolen artean, egindako zerbitzuen ordainetan. Era guztietako gehiegikerietarako ateak ireki zituen erabakiak, eta Peru-ko ordenamendu sozio-ekonomikoa hautsi egin zuen horrek. Milaka indiarrek beren lurak utzi egin behar izan zituzten eta herrisketan bildu, edota noraezean etxetako zerbitzari nahiz esklabu bezala geratu. Gisa berean, meatzetako lan bortxatuetan eman behar izan zuten bizia, **mita**-n alegia; giza langile ikaragarri irentsi zuen, hain zuzen, honek. Dirudienez, konkistaondoko lehenen hogeitamar urtetan bistanleria erdira jaitsi zen Peru-n". (D. LAVALLEE, 1979)

D. Lavallée, historiarisa frantsesa da, eta azken hamarkadetako Frantziako historiografia amerikanistaren tradizioan egin du lan. CNRSeko ikertzailea da D. Lavallée.

"Mendez Mendeko Aro Modernoa"n, 77-96. orrialdeetan ikus ditzakezu inkei buruzko xehetasunak. Konkista-ondokoak, berriz, 214. orrialdetik aurrera daukazazu.

EGITEKOAK eta ERANTZUTEKOAK

- a) Zer da gomendakina (=encomienda)? Nolako abantailak eta betebeharrak zituen espainiarrentzat?
- b) Gomendakinak Peru-ko ordenamendu sozio-ekonomikoa hautsi zuela dio testuak. Esplika ezazu hori, adibideak jarritz. Nolako antolamendu sozio-ekonomikoa eta politikoa sortu ziren kolonietan?
- c) Nolako harreman ekonomikoak eratu ziren metropoliaren eta kolonien artean?
- d) Espainiarrek inken ohiturarik erabili al zuten beraien ustiapen ekonomikorako? Esplika erantzuna.
- e) Zer zen "mita"?
- f) Aipa biztanleriaren jaitsieraren arrazoiak?
- g) Gaurko herrien entziklopediaren batean bila gaurko lan-sistema ekonomikoaren albisteak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

J.Soustelle-k idatzitako pasartea da testu hau. Mexikoko aztekek egiten zituzten errito erlijio-soen artean, "giza opalkuntzarena" zegoen. Opalkuntza hauen deskribapen literarioek oihartzun bizia izan zuten, europarren artean amerindiarrekiko irudi kolonialista zabaltzean.

"Mexikarren erlijio-ospakizunetan gizakien opalkuntzek leku nabarmena zuten, tolteken garaietatik hasita. Prisonerak edo horretarako ere erositako esklabuak ziren opalgaiak. Inoiz, kategoria berezietatik ere aukeratuak izan zitezkeen (emakumezkoak, gazteak). Heriotza horrek --hala uste zen-- opalduari betiereko bizitza segurtatsen zion; horregatik, estoikoki onartzen zen, eta borrodatuz eskatu ere bai batzutan. Opaltzekoak jainkoaren jantziak eta apaingarriak jansten zituen eta **ixiptla** deitzen zioten, hau da, jainkoaren 'irudia'. Apezek opal-harriaren etzanarasten zuten opalgaiak; haietako batek, kolpe batez irekitzen zion bularra obsidianazko labanez, eta bihotza ateratsen zion, harrizko kutxa batean erretzeko. Zeremonia batzuetan, lepamoztu, ito edo erre ere egiten zituzten opalgaiak. Ospakizunean, hildakoaren haragirik jan ere bai".

(J. SOUSTELLE, 1982)

Jacques Soustelle historilari eta politikari frantsesa da. Historilari bezala, azteken historiaz eta beraien pentsamendu sozio-erlijiosoaz lan onak eman izan ditu argitara. Berezik bat gogora dezakegu hemen: "L'Univers des Aztèques" (Paris, 1979).

"Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuan 64-77. orrialdeetan lortuko dituzu berri zabalagoak. Zehazki testuari lotzen zaiona 74-76. orrialdeetan.

EGJTEKOAK

- a) "Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuararen aipatutako orrialdeetan bila pentsamendua eta erlijioari buruzko xehetasunak.
- b) Atlas Historikoak begiratu. egizu mapa bat, herri aztekaren hedapena eta hiri garrantzitsuenak lekutu.
- c) Historian zehar opalkuntz mota hauek non egin diren gogora ezazu.
- d) Aztekek eraikitako irudiak eta tenpluak begira diapositiba edo liburuetan.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nortzuk izaten ziren opalkuntza hauetarako aukeratuak?
- b) Zeintzuk izan ziren opalkuntza berritze honen arrazoiak? Esprika erlijio-ideologia hau politikarako nola erabili izan zen.
- c) Nola azaltzen zuen erlijioak opalkuntza hauen beharra?
- d) Ulergarriak gertatzen al dira gaur egun arrazoi horiek?
- e) Nola esplikatuko zenuke garai hartako haien onarpena?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Jeronimo Mendietakok testu honetan, azteken ahozko tradizioek gizarte hari iragartzen zioten etorkizuna jasotzen du. Iragakizun horretan, azteken gizartearen erabat aldatuko zuen kanpotar batzuren etorreraz hitz egiten da.

"Españolak agertu baino urte asko lehenago, lau belaunalditan bederen, gurasoek biltzen zituzten beren seme-alabak, eta zaharrek familiarteko gazteak, eta etorkizunean gertatzeko sirenak kontatzen zizkieten.

Jakizue, zioten, bizardun batzuk etorriko direla, buruak **apastle**-z (hau da, lurrezko ontzien antzekos) estalita, (...). Eta kolorez jantzita agertuko dira (ohitura hau berria bait zen haientsat). Eta hauek etortzean gerra gustiak amaituko dira, eta nonahi bakea eta adiskidetasuna izango da lege. (...). Eta gehiago zioten: gure jainko gustien hondamendia izango da orduan, eta ez da bat baizik izango munduan, eta bakoitzari emaste bat baizik ez zaio geratuko. (...). Eta zahar gustiak honela zebiltzan itxaropenez eta beldurtuta (...). Honegatik zion halako beldurra Moctezuma-k Cortes-en etorrerari". (JERONIMO MENDIETA, 1525-1604)

Jeronimo Mendietako (1525-1604) Gasteizen jaio zen. Bilbon ikasi ondoren, Espainia Berriko Bizerreinura joan zen frantziskotar hau. "Historia Eclesiástica Indiana" idatzi zuen 1573-1597. urteetan. Amerindiarren eskubideak defendatzen zituen, honelako beste hainbat obra bezala, ez zen 1810erarte argitaratu eman; baina XVI. mendeko Mexiko ezagutzeko oinarritzeko obra da gasteiztar honena.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n aurki ditzakezu agiri honen lagungarri izango dituzun albisteak: begira, oro har, 64-76. orrialdeak, eta ez ahantz 208-232.ak.

EGJTEKOAK

- a) Espainiarrak iritsi aurreko azteken Inperioaren mapa bat egizu. Mapa horretan koka Entamerikako beste kultura eta zibilizazioak ere.
- b) Ahal baduzu, bila atlas historiko batean aztekek menperatu zituzten herriak eta beraien lurraldeak.
- c) Ameriketako konkistaren kronologia batean koka Mexiko-ko konkista.

ERANTZUTEKOAK

- a) Badirudi, batzuek diotenez, Hernán Cortés-en konkista asko erraztu zutela azteken arteko ahozko tradizio, sineskeria eta iragarkizunek. Horrekin bakarrik uler al daiteke Mexiko-ko konkista?
- b) Gizarte batek, bere hondamendia abisatu eta beste gizarte-antolaketa bat proposatzen duen iragarkizunik izatea harrigarria al da? Ezagutzen ote duzu beste horrelako adibiderik?
- c) Zein ondorio izan zuen Mexiko-rako espainiarren konkistak? Nola uldatu zen antolaketa sozio-ekonomikoa?
- d) Ekonomian, zer utera zuten espainiarrek Mexiko-tik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. 1520

Testuak adierazten duen bezala, aztekek ez ziren beti herri handi bat izan. Oso alderantziz, aztekek ez zuten azken mendeetararte garrantzi berezirik izan. XIII. mendean iritsi ziren Mexiko aldera eta luzaro beste herrien menpean egon ziren, horien mertzenari gisa jokatzuz, XV. mendean lortuko dute inguruko herrien gainetik jartzea. Ikus daitekeenez, beraz, inperio azteka oso laburra izan zen, XVI. mendean espainolak iritsi bait ziren.

"Munduaren hastapenetan, dena zen bisigabea, beltza, hila. Jainkoak, ilunpetan, Teotihuacan-en bildu ziren, eta elkarri zera galdetu zioten: 'Nor arduratuko da mundua argitzeko?' Bi jainko agertu ziren horretarako prest.

Beren buruak sutara botatzeko unean, batek zalantzak izan zituen eta atzera egin zuen: Hilargi bilakatu zen hura. Besteak, jainkotxo apal eta pobreak (garai bateko herri azteka xumearen irudia, noski), zalantzarik gabe bota zuen bere burua: Eguzki bilakatu zen hau.

*Baina hilda zeuden gainerako izarrak, ez ziren mugitsen zeru-sapaian. Han zeuden jainko gustiek beren buruak eskaini zituzten haiei jaten emateko. Premiazkoa zuten janaria, ordea, 'ur prezia-tua' zen, hau da, **odola**".* (M. SIMONI)

Aztekei buruz hitzegiten dugunean, hauen kulturatik giza-opalkuntzak dira aipagarri gertatzen zaigun lehena. Eta haien krudeltasuna harrigarria egiten zaigu. Dударik gabe, beraien ikuspegi erlijiosoari loturik ikusi behar da fenomeno hau, gauza funtzionala baita, eta munduaren esistentzia berak eskatzen duen zerbait bezala. Helburu erlijiosoz giza-haragia jan ere jaten zuten.

Ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa": 64-77. orrialdeak. Historia, gizartea, politika eta erlijioa, dena ideologia bat beraren barnean nola bil litezkeen ikusteko begira 74-75. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egizu Mexiko aldeko mapa bat, herri eta kultura desberdinak kokatuz. Ez da zaila entziklopediaren batean horrelakorik aurkitzea.
- b) Egin herri horien historiarekin kuadro kronologiko bat.
- c) Egin, maisuaren laguntzarekin, gizarte aztekaren eskema bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein da giza-opalkuntzen zentzua?
- b) Zeintzu ziren giza-opalkuntzak egiteko sistemak?
- c) Zein jende-mota eramaten zen heriotzera giza-opalkuntzetan?
- d) Zein da herri aztekaren ezaugarririk garrantzitsuena?
- e) Egokia al da "Inperio Azketaz" hitzegitea? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. 1520

Egutegia egiteko sistema desberdinak erabiltzen zituzten aztekek. Hauetako bik berrogeitamabi urteoro koinziditzen zuten egutegi errituala eta eguzti egutegia. Erlijioak duen garrantzia kontutan harturik, gertakizun garrantzitsua izaten zen, jainkoak alde jartzeko. Bide honetan odola zen jainkoak adiskidetzeko baliabidea, ea giza-opalkuntzez gain, autosakrifizioak ere egiten zituzten aztekek, beren gorputza, mihia, etab. zaurituz.

"Berrogeitamabi urteoro munduaren ziklo bat bukatzen zen, eta orduan ikuskizun zen jainkoek munduari bizia berrituko zioten ala ez.

Urte horien Aroa bukatzean, lurraldeko su guztiak itsaltzen ziren, eta herri azteka osoak barau eta otoitz egiten zuten, izarrak halako kokagune jakin batetara berriz itsuli ondoren, larrialdi izugarri hura amaitzen zen arte.

Une hartan berriz pizten zen su sakratua, eta zusi-eramaileek lurralde osoa ibiltzen zuten, jainkoek gizadiari beste berrogeitamabi urte ematen zizkioten berriona zabalduz". (J.E. FAGG, 1970)

John E. Fagg, ibero amerikanista ipar amerikarra da: Chicago eta New York-eko Unibertsitateetan lan egin du. Hego Amerikaren historia eta gaur eguneko errealitatea ongi ezagutzen ditu. Historia orokor guztiz irakurgarria dauka argitara emanda: "Latin America. A General History" (N.Y., 1963).

Ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa": 64-77 orrialdeak. Historia, gizartea, politika eta erlijioa, dena ideologia bat beraren barnean nola bil litezkeen ikusteko begira 74-75. orr.

EGJTEKOAK

- a) Aipa jainko azteka garrantzitsuenen izenak eta eman bakoitzaren ezaugarriak.
- b) Begira ezazu entziklopedia batean gaur eguneko Mexiko-n zeintzuk diren hango herri indiarrak?
- c) Bilu ezazu Mexiko-ko liburu ilustraturen bat: gaur eguneko ohitura erlijiosoenen bat erakusten duen argazkirik badago?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein lotura dute eraikin aztekek erlijioarekin?
- b) Zein sistema kronologiko erabiltzen zuten aztekek?
- c) Gerra egiteko zein arma-mota erabiltzen zuten?
- d) Zer adierazi nahi du erlijio erritualista dela esateak?
- e) Defini itzazu monoteista, politeista hitzak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

XVI. mendean garraioen egoera ez da funtsean ezer aldatu: Erdi Aroan bezalatsu daude. Itsas garraioetan zerbait aurreratu bada ere (zama-kapazitatea, segurtasuna, zabalkuntza, etab.), kontinentalak lehengo antzera daude, edo okerrago, iraganaldiko zenbait unerekin konparatuz gero (Erroma). Ez da, ba, harritzekoa itsasozko garraioak lehen-tasuna irabaztea.

"Garraioak garestitzen zituen batez ere prezioak. Indietako espezietan Toledo-n Lisboa-n baino bi aldiz gehiago balio zuten. Arkanjel-eko ale-prezioaren % 75 Mosku-tik (650 miliatara zegoen berau) ekartzearen kostua zen.

Rouen-dik Amiens-erako garraioak bakarrik heren bat garestitzen zuen alea bi hirien artean. (...). Parise-tik Rouen-era Sena-n zehar zihoazen merkatalgaiek hamabost atesari ordaindu behar ziztuzten, Rouen bertakoak pagatu aurretik. Nürnberg-etik Frankfurt-erakoan (150 milia), lau eskolta ezberdin hartu behar ziren, esku-barruti batetik bestera igarotzean, eta Frankfurt-en beste atesari bat ordaindu behar zen, gainera. (...). Garraio-gastuek iharduera ekonomikoa eskualdearen mugetara lotzen zuten funtsean".

(HALE, 1973)

J. R. Hale, historilari britainiarra da, eta Britainia Haundiko Unibertsitateetan irakatsi izan du: Warwick, Londres, Oxford. Italiara irakatsi zuen, eta Historian Aro Modernoa. Batez ere, Ernazimentuko pentsamendu politikoa, aurkikunde geografikoak eta gertakari militarrik azertu ditu. Eta 1480-1520. urteetako historia europarraren laburpena eskaini du: "Renaissance Europe" ("La Europa del Renacimiento". Siglo XXI).

"Mendez Mende. Aro Moderno"n ikus garai honetaz esaten dena: kapitululu oso bat daukazu Ernazimentuaz: 97-176. Bidaiei buruz; 99, 185-199 (laukietako agiri batzuk bereziki), 402, 407 eta 434. orr. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 21-23. orr.

ESJTEKOAK

- a) Testuan azaltzen diran toponimoak mapa batean koka.
- b) Rouen eta Amiens-en arteko merkatal garraioa nola egiten ote zen?
- c) Zenbat km egingo ote zituen karabana batek egun batean? Eta itsasoz?
- d) Garraio kontinentaletan benetako iraultza ekarri zuen garraio-sistema zein izan zen? Noizkoa?

ERANTZUTEXOAK

- a) Testu honen ideia nagusia zein da?
- b) Historian zehar zergatik mantendu dira garestiago garraio kontinentalak?
- c) Zer da atesaria? Zergatik ordaintzen ziren?
- d) Aipa itzazu Aro Modernoan ezagutzen dituzun beste zerga-motak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1481

Agiri hau dokumentu historikoa da: W. Caxton-ek eman zuen argitara (1481), garaiko gizartea deskribatuz, bere "Mirror of the World" liburuan, ingelesez argitara emandako lehen obra marrazkidu-nean. Erdi Aroa bukatzera zihoan, eta Ingalaterran baita "Bi Larrosen Gerratea" ere.

"Langileek, munduan bizi izateko premiazkoak direnak inguratu behar diskiete elizgizon eta saldunei; eta saldunek defendatu behar dituste elizgizonak eta langileak, laidogarririk egin ez daki-en; eta elizgizonek eskolatu eta irakatsi behar diete beste bi motatako lagun horiei, eta gidatu egin behar dituste, Jainkoa atsekabe ez desaten edo grazia gal".

(CAXTON: *Mirror of the World*, 1481)

William Caxton (1422-1491) Ernazimentuko humanista eta inprimatzaile ingelesa izan zen. Kontinentean (Brugge-n eta Kolonian) lan egin zuen, berriro Ingalaterrara itzuli zen arte (1476). Beroni zor zaio Ingalaterran inprimatutako lehen liburua (1477), eta, inprima-lanen ondoan, hainbat itzulpen ere egin zituen ingelesera. Caxton-en inprimategitik laurogei eta gehiago liburu kaleratu ziren, beti ere Errege eta nobleen babespean.

Estamentuei buruzko argibideak ik. "Historia/1" 186. or., "Mendez Mende. Aro Garaikidea" 29-32. orr. Batez ere "Mendez Mende. Aro Modernoa" 104-109. orr. interesgarri gerta daiteke.

EGJTEKOAK

- a) Egizu Britainia Haundiaren mapa, eta koktu garai horretako hiri-guneak.
- b) Begira entziklopedia bat, eta saia Bi Larrosen Gerrateaz berri zehatzagoa ematen.
- c) Estamentuen gizartea nolakoa zen adieraz lauki batean, talde bakoitzaren ezaugarriak jasoz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola defini daiteke Estamentua? Eta klase soziala? Gauza bat bera da?
- b) Zein Estamentu jabetu zen botere politikoaz: Feudalismoan, Ernazimentuan, Kapitalismo modernoan?
- c) Hirugarren Estamentuan zer klase sozial biltzen dira?
- d) Nola deskribatuko zenuke elizgizonen funtzioa?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

c. 1520

Hiriak suspertu zirenetik (XII. mendetik aurrera), burgesia geroz eta aginpide ekonomiko handiagoa hartuz doa, aldi berean noblezia ahultzen den bitartean. XV.ean noble asko gortesau bihurtzen ari da, bere nortasun politikoa Koroaren probetxutan galduz. Bienbitartean, nekazarien gain doa nekea eta presio fiskala.

"Nerea zurearekin alderatzean, ez ezazu inbiriarik izan... Gu landetan bizi gara, oihan eta gotorleketan. Gure baso, larre, mahasti eta soroak usten dizkiegun herritar abailduen lanari esker bizi garenak gara gu. Hortik jasotzen duguna eskasegia da, horretarako eman den lanaren ondoan... Babesik izango badut, printzeren bati lotu beharrean aurkitzen naiz. Bestela, normahik hartuko ninduke harrapakin errazegitzat... Ezin gaitzke ondoko ausunera al-dendu, arrantza edo ihizera joan, armaduraz jantzita espada... (...). Etorkizunaren kezka beteta dago eguna, etengabeko errebolta eta ekaitzak ditugu ... Urteren batean usta txarra badugu, orduan pobrezia deitoragarria dator gainera, ezinegona, asaldua".

(U. von HUTTEN, 1488-1523)

Ulrich von Hutten-ek gorabehera handiak ezagutu zituen bere bizitzan (1488-1523). Zalduna eta humanista alemana izan zen pasarte honen autore. Alemaniako zaldunen buruzagi bezala, Luter-en alde borrokatu zen, arma eta guzti, nahiz eta Karlos V.enarengandik (1517) poeta-ereinetza hartutakoa izan. Porrotaren ondoren, erbestean eta pobre hil zen Suitzan.

Ernazimentuko gizarteaz "Mendez Mende. Aro Modernoa"n hainbat albiste bil dezakezu. Zuzenkien gai horri buruz 101-109. orrialdeetan ematen dira xehetasunak. Monarkia handiez badago jakingarririk: 17-19. orr.

EGJTEKOAK

- a) Lauki batean deskriba ezazu noble eta herritar xume baten arteko aldeak.
- b) Begira eta azter "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 27, 36, 108, 109, 112. orrialdeetako irudiak, 103, 105, 107. orrialdeetako estatistikak. Nola ikusten dituzu hor klasearteko harremanak.
- c) "Maionazgoa" zer den hiztegi batean ikusita, saia zaituz, krisialdi honetan, maionazgoak zein leku izun zuen aditzera ematen.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein da testuaren ideia nagusia?
- b) Ideia nagusiarri eusteko ematen dituen adibideak, edota bigarren mailako ideiak, zeintzuk dira?
- c) Nobleen egvera ekonomikoa zergatik okertu zen? Zer egin zuten hori konpontzeko.
- d) Bai al zuten beste irtenbiderik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

c. 1530

Fitxa honetan bi testu modu bildu ditugu, bata batio historiko zuzena du; besteak, berriz, historiografikoa. Garai bateko histori liburuetan gutxi ageri ziren pertsonaiak ditugu hemen protagonista-tzat: herritar xume behartsuak. Azken buruan, hain zuzen, holakoak ziren herritar gehienak.

Ingalaterra-ko pobreak

"Hirietako bistanleetatik bi heren gutxi gorabehera pobrezia-aren mugan edo azpitik bizi ziren; gaineko beste herenak gizarte-piramidean gora egiten zuen, piramidearen erpinertatik orratz bat isateraino, artisau, merkatari eta profesional zori onekoetatik hasi eta, azkeneko puntan, komunitatearen gastuen heren bat bere poltsatik ordain zezakeen merkatari norbanakoarenganaino iritsiz".

(Joan SIMON)

Pobreak zergapean

"Printze onak zergarik arinenak esarriko dizkie gizarteko behartsuenentzat diren merkatalgaiei, halanola ale, ogi, garagardo, ardo, janzkiei eta giza bizitzarako funtsezkoak diren artikuluei... Baina egiaz, hain zuzen, produktu horietrek jasan behar izaten dituzte samarik astunenak; lehenik, nekazariei egiten zaizkien bortxakeriengatik...; gero, inportazio-eskubideengatik, eta azkenik, monopolioen bidez probreei egin ohi zaien ondasunen odol-hustuketagatik, eta hau dena printzeak interes-huskeria bat jaso dezan".

(D. ERASMOK Karlos V.ari)

Desiderio Erasmo (1466-1536), bere garaiko idazle eta intelektual entzutetsuena eta itzalik handienekoa izan zen: Humanismo kristauaren gidarietan miretsiena izan zen, eta Karlos V.a Enperadorearen inguruko asko eta asko (1540aren aurretik batipat) erasmista zen. Jakingarria da gizarte-talde aipatuari buruz dioena, eta orobat gaur eguneko historilari bati irakur diezaioketun beste hori ere.

Ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa": 103-109. orr. Pizkundeko gizar-teaz hor esaten direnak lagungarri on izango dituzu testuok ulertzeko.

EGJTEKOAK

- a) Ikus hiztegi egoki batean: Zerga, inportazio, esportazio, monopolio kontzeptuak, edo hiriarren alde sozio-ekonomikoaz zer esan daitekeen.
- b) Galde ezazu, zure familian, ordaintzen diren zergei buruz zer dakiten. Asko dira? Zein motatakoak?
- c) Zer da zeharkako zerga, eta nola ordaintzen dugu hori.
- d) Bila "Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuan agiri honen testuingurua: produkzio-sektoreak, demografia, etab.
- e) Errenta-deklarazioko inprimukiren bat eraman ikasgelara, eta ikus taldean.

ERANTZUTETAKOAK

- a) Zein hiru egoera ematen ditu autoreak: "Behartsuek" jasan behar dituzten zamarik astunenak zeintzuk dira?
- b) Azter itzazu hiru egoera horiek, horretarako "Mendez Mende. Aro Modernoa" kontsultatuz.
- c) Zein da testuaren pentsamendua bere osoan?
- d) Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Erdi Aroko Kristandade-sistema (Aro hartan bertan hainbat liskar sortu zituen) krisian erori zen XVI. mendean: Lurrealde-Monarkia handietan nola eratuko zen, eta gobernatuko, Estatu-nazioetako Eliza? Erromatik apartatu gabe Eliza Erromatarrean geratu ziren herrietan ere akordio eta modu juridiko berriak bilatu ziren, horretarako. Halanola, Frantzian, Frantzisko I. arekin (1516), eta halatsu Espainian, Erret Patronatuarekin.

"Erregea zen Elizaren buruzagi denborala. Hark berresten zituen eliz legeak eta hark bakarrik dei egin edo baimendu zitzakeen kontzilioak, eta hark zaintzen zituen Elizaren ondasunak. 1516ko Konkordatuak apezpikuen eta abadeen izendapena egiteko eskubidea hari ematen zion, Aita Santuak zegokiona egin ondoren.

Hauze zen aukerarik egokiena, familia nobleetako ondokosemeei benefizio gizenak eskainiz haiek beregana erakartzeko. Erreinuko zama eramaten laguntzera behartu zuen Erregek Eliza. Erregalien bidez, gotsaindegi eta abatetxe betegabekoetatik errentak jasotzen zituen". (R. MOUSNIER, 1958)

Roland Mousnier historilari frantsesak, Frantziaren Aro Modernoa aztertu du, batez ere, hau da, XVI-XVIII. mendeak. Frantziako izen handi sagaratuetakoa bat da, noski historilarietan. Ikerlan mugatuagoen ondoan, Historia Unibertsalari liburu eder bat eskaini dio (XVI-XVII. mend.): sintesi irakurgarri eta bizia (Barcelona, Destino).

Saia zaitetz monarkia modernoaren oinarriak aztertzen. Horretarako irakur "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 17-19. orr.

EGJTEKOAK

- a) Hartu atlas historiko bat eta bila monarkia modernoan kokapena eta lurraldeak.
- b) 1516ko Konkordatuak aipatzen da agirian. Bila entziklopediaren batean Konkordatuaren historia.
- c) Franco-k ere lortu zuen Erromarekin Konkordatu bat sinatzea (1953): Zer esan ote zuten garaiko egunkariek? Begira, ahal baduzu, hemerrotekaren batean, edo aldizkari-bildumaren batean.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Argi itzazu hitz hauen esanahia: Kontzilioa, Konkordatuak, Erregalia, Buruzagi denborala.
- b) Nola laguntzen zuen Elizak erreinuko zuma eramaten?
- c) Zer dakizu Frantziako Luis XII.az eta Frantzisko I.az?
- d) Zergatik galdu dute beren gaunkotasuna Konkordatuak? Zergatik Estatuak ikuspuntutik, zergatik Elizarenetik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

c. 1550

Herritar xumeen jatorduak eta jatena ezagutzea, gizakiaren Historiaren parte on bat ezagutzea da; hau da, gizakiaren funtsezko behar bat nola ase zen ezagutzea, eta garaian garaiko milioika lagunen eguneroko ardura nagusi baten berri jakitea. Beraz, gai horretaz ari den pasarte honek merezi du azterketa on bat.

"Mendebaldean XVI. mendearen erditik aurrera xurraldiak agertu ziren jatorduetan. Suabian, hala dio Heinrich Müller-ek 1550ean, 'nekazarien artean, garai batetik oso bestela jaten da. Orduan bazen okela eta jatekorik ugari; erronomia eta jaialdietan mahaiak bete-beteak ageri ziren. Gaur egun dena aldatu da. Garai batetik hona, egiaz nolako makurrak, nolako eskasia!. Nekazarien jatena gehienetan behinolako jomalari eta morroierna baino okerragoa da'. (...). 'Nere aitaren garaietan --hala idazten zuen noble normandiar batek, 1560an-- egunero zeukaten okela, platerak ugariak ziren, ura bailitzan edaten zen ardoa'". (F. BRAUDEL, 1966)

"Itxuragabeko harropuzkeriak ditu orain jendeak, eta buruberoak dira..., eta lehenago jainen aurrean apalak zirenak, eta gartxuak zirenez, ardoari ur asko botatzen zioten kristauak..., orain ardo hobea edan nahi dute, beren jainek bezala, batere ur eta bestelako nahaskinik gabe; hori dena guztiz arrazoiz kontrakoa da".

(S. CHAMPIER Kronikariak, Lyon)

Hil berri den F. Braudel Frantziako historia sozialeko historilaria da, eta "Annales" aldizkaria ere zuzendu zuen. Historia "arazo" bezala ikusten du, eta ez zerbait bukatua bezala. Arazo hori hipotesien bidez argituz doa. Hipotesien katea metodologikoak egiten du zientzia. Agiri honek nahikoa egoki erakusten dizkigu eskola historiografiko honen ezauzgarriak.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n 103, 105, 107, 109. etako irudi eta estatistiketan datu interesgarriak jaso litezke.

EGITEKOAK eta ERANTZUTEKOAK

- a) Begira, nahi bada, "Mendez. Aro Garaikidea"n 12 eta 13. etako irudiak: Zer diotsute horiek?
- b) Zer da zuk gaur egun jan ohi duzuna? Zure aitona-amonek berdin jaten al zuten, ala jan-ohiturak oso aldatu dira?
- c) Galdetu zure aitona-amonei eskolara zein hamaikatako eraman ohi zuten?
- d) Egin ikustaldi bat, adineko batekin, supermerkatu batera, eta begira zeintzuk diren orain 40 urte dendetan agertu ohi ez ziren jakiak?
- e) Galdetu herriko zaharrei gerratean eta ondoren zer jan ohi zuten?
- f) Ikasgelako lagunek bai al dakite estraperlou zer zen? Eta arrazionamendua?
- g) Presta itzazu bi menu: bata, estraperloko janariekin, eta bestea, arrazionamedukuekin.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

c. 1500

Agiri hau testu historiografiko bat da eta Hale historilariari hartu diogu. Fitxa honetarako aukeratu den gaiak Erdi Arotik zetorren fenomeno sozial bat erakusten digu: ofizio berekoak anaiartean elkartzen ziren kanpokoan kontra beren eskubideak defendatu eta beren lagunarte hartan guztien lanbidea arautzeko. Gremio hauek bazuten alde on eta txarrik.

"Ideia zaharrak, langileak prestatzeko eta kalitatea arautzeko kezka presente zeuden, baina horiek baino handiagoak ziren monopolioak sortzeko gogoia eta, kanpoko lan-ekuaren sarrera (alartzeko moduan ugaltzen ari zena) zorrotz arautzeko metodo bat burutu nahia. Monopolioen xedea ez zen ondasun berriak metatzea, elkarren arteko lehiaketa eta norgehiagoka gutxitzea baizik; bilatsen zuena ez zen baldintza berriak sortzea eta bai lehengo zaharrak egonkortzea eta erregulatzea".

"Gizarte-mailaketa bera ere zatikatua zegoen klan-afiliazioak, gremioak, kofradiak eta bezeri sistemak zirela medio, hauek murriztu egiten bait zuten termino klasista horizontaletan pentsatzea, eta irabazi apaleko jendea irabazi handiagokoekin elkartzen zuten batasunezko lotura batekin".

"Mendebaldean ere, gizarte-mailaz, profesioz eta klasez aldatzeko ahalbideak oso jende gutxiren esku zeuden eta bizi-mailaz aldatzea zekarten lanbide-aldaketak oso ere oso urriak izaten ziren".

"Gremioetako maisuen artean onartua izateko geroz eta eragozpen gehiago zeuden: beraz, are eta bakanagoak ziren ofizios gora egitea lortzen zuten ikastun saiatuak. (...).

Maisuak bere semeak ikastunetarako inolako mugarik gabe har zitezakeen bitartean, familiaz kanpokoak bizpahiru bakarrik onar zitezakeen. (...). Maisu-klasearen joera beren buruak betekortzea zen, eta beren egoera soziala tradizioaren eta familiaren gain eraikitzea, eta ez talentuaren gain edo merkatu-gorabeheren arabera".

(HALE, 1973)

J.R. Hale, historilari britainiarra da, eta batez ere Ernazimentuaren historiaz arduratu izan da. Garai hartako pertsonalak ahanzi gabe ere, bizilagun ahalik gehieni zegozkien bizimoduak eskaini nahi izan ditu batipat, lanaren mundua barne. Gogora dezagun hemen "Renaissance Europe (1480-1520)", gaztelaniara ere itzulia ("La Europa del Renacimiento". Siglo XXI).

Ikus "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 104-106. orr. Komeniko da, gainera, aurrekoa ezagutzeko ere, "Historia/1": 197-198. orr. begiratzea, eta Erdi Aroko fitxaren bat edo beste.

EGJTEKOAK

- a) Ikus "Mendez Mendeko Aro Modernoa" eta "Historia/1" eta labur-labur azter ezazu zer den Gremioa.
- b) Ikus espreski zein kategoria zeuden gremioan, eta maila batetik bestera nola pasa zitekeen.
- c) Zure herriko edo hiriko alde zaharra bisita ezazu, eta begira non egon zitezkeen kokatuta artisauen tailerrak: kale izenek lagun lezakete hori argitzen.
- d) Industrializazio-aurreko hiri bateko kaleetan eguneroko bizitza agertzeko antzezpen bat egin.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Gremioetako maisu izatera iristeko zein mailetatik igaro behar zuen artisauak, eta nola frogatu behar zuen bere balioa? Agirian esaten denarekin bat al dator?
- b) Agiri hiru parrafotan bana dezakegu: labur ezazu bakoitzak zer diuen.
- c) Zein da testuaren pentsamendua bere osan?
- d) Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

XV. mendearen azkenetan, Mendebaldeko Europan, kultura pizkundetarra klasizismo baterantz zihoan, Humanismoaren eskutik. Baina humanisten zeregina ez da autore greko-erromatarren irakurketara mugatzen. Aldi klasikoaren izpiritu eta jakituria ere Europa osora zabaltzea zen XV. mendearen hasierako idazleen helbururik maitatuena.

"Gizon eskolatuak 'ez du mugatu behar bere ikaslana logikara, baizik eta filosofia naturaleko alor orotan izan behar du familiartekotasun teoriko bat..., eta ez dadila ibil isadiko jainkosko ordenamenduaz sobera arduratuta, bienbitartean giza arazoak zabarkeriaz begiratus. Zuzenbide zibilaz jakin behar du..., iraganaldietako gertakarien historiak ongi esagutu behar ditu..., norbera jaio aurretik gertatutakoaz deus ez jakitea betiko haurtzaroan geratzea da"'. (CICERON)

(Argitalpenen gaiak Pizkundean geroz eta klasikoagoak izango dira, humanisten eraginez:)

"Strasbourg-en, adibidez, 1500.aren inguruan %10 liburuk bakarrik zuen Antzinate klasikoa gaitzat, 1500-1520. urteetan, berriz, edizioetatik %33, autore latino eta grekoenak edo humanisten idazlanak dira. Han, beste lekutan bezalatsu, argitalpen-kopurua 400 edo 500 eta 1.500 edo 2.000 aleren artean zebilen. Testu klasikoentzat batezbesteko kopurua mila bat aletan jarri liteke, eta, horrela, 200.000 ale izango lirateke Virgiliusenetatik argitaratutako emanak 1500aren aurretik, eta 72.000 Erasmo-ren 'Adagia'tik 1500 eta 1525aren artean". (HALE, 1973)

J. R. Hale, historilari britainiarra da, eta Britaina Haundiko Unibertsitateetan irakatsi izan du: Warwick, Londres, Oxford. Italiara irakatsi zuen, eta Historian Aro Modernoa. Batez ere, Ernazimentuko pentsamendu politikoa, aurkikunde geografikoak eta gertakari militarrek aztertu ditu. Eta 1480-1520. urteetako historia europarraren laburpena eskaini du: "Renaissance Europe" ("La Europa del Renacimiento". Siglo XXI).

Pizkundeko Humanismoaz "Mendez Mende. Aro Modernoa"n ikus ditzakezu albiste lagungarriak: 116-123. orr. Argibide zabalagoak, honen aurreko eta ondoko orrialdeetan daukazu.

EGJTEKOAK

- a) Bila entziklopedia batean Humanismo hitzag zer esaten den.
- b) Saia Erasmo eta bere obrak berriren bat biltzen.
- c) Egizu lauki bat, Endi Anoko kultura eta Pizkundeko kultur balioak kontrajarri.
- d) Egin Europa pizkundetarraren mapa bat, Humanismoaren kulturgune emankorrenak behar den lekuetan adieraziz.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zure ustez, zein da humanisten idazlanek horrenbesteko arrakasta izateko arrazoiak?
- b) Zer esan nahi du Pizkundearen guiak geroz eta klasikoagoak direla baieztatzeak?
- c) Zein ondorio aterako zenuke testu honetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. 1500

XV. mendearen azkenetik aurrera aldaketa ugari somatzen da merkatalgoaren munduan, batipat Mundu Berriarako eta Ekialderako bide berriak irekitzen direnean. Hala eta guztiz ere, administrazio moderno batek behar zituen jakintza aritmetiko-kontableak falta zitzaizkien Aurrerakunde garaiko merkatariei. Alde horretatik, ekonomi sistemak ez zuen artean bere tamainako jakintzarik.

"Alfabetatutzat jo ditzakegunen artean ere (irakurri, idatzi eta liburuetatik ikasten zekitenean artean alegia), ez zekiten alfabetatuok batuketa, kenketa, biderkaketa eta zatiketa birekin egiten baizik. Erdia baino fraksio trikiagoen eragiketak gehienetsat matematiketako eskutukiak ziren; inork gutxirik zekizkien. Biderkatzeko taula ez zen ikasten, eta batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketako zeinuak ez zituen inork erabiltzen. Batuketa eta kenketa ez ziren zehatzak, zeren eta ezkerretik eskuinera egiten bait ziren. Gutxienik, bazeuden sortzi biderketa-metodo, eta gehiago oraindik kenketarako".

(HALE, 1973)

J. R. Hale, historilari britainiarra da, eta Britainia Haundiko Unibertsitateetan irakatsi izan du: Warwick, Londres, Oxford. Italiara irakatsi zuen, eta Historian Aro Modernoa. Batez ere, Ernazimentuko pentsamendu politikoa, aurrerakunde geografikoak eta gertakari militarrik aztertu ditu. Eta 1480-1520. urteetako historia europarraren laburpena eskaini du: "Renaissance Europe" ("La Europa del Renacimiento". Siglo XXI).

Ekonomia nola hiritartu zen ikusteko, begira "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 100-101. orr. Ernazimentuko ekonomiaz oinarritzko berriak: 108-113. orr.

EGITEKOAK

- a) Bila, entziklopedia batean edo matematikaren historianen batean, Pizkundeko matematikaren egoera nolakoa zen.
- b) Nola sailkatuko zenituzke merkatalgoaren aldakuntzak Aro Modernoan?
- c) Eman mapa historiko batean bidatz aldaketak.
- d) Merkataria, zein Estamentutan zeuden: adieraz lauki batean.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola labur daiteke agiri honen edukina?
- b) Zure ustez, merkatarien matematika-maila egokia al zen?
- c) Testu hau irakurri eta gero, zein ondorio aterako zenuke urte haietako bizitzaz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. 1500

Behe Erdi Aroaren bukaeran teknikak izugarrizko bilakaera izan zuen, eta horren fruitu bat inprimagailua izan zen. Aspaldidanik ezagutzen ziren zurezko inprima-moldeak eta hizki mugikorrak; baina, metal galdaketa egoki egin zen arte eta margolariek sortutako tinta-kalitatea aski ondu zen arte atzeratu zen inprimagailuaren atzerapena.

"...segurtaturik zegoen inprimategien zabalkundea. XV. mendearen azkenetan, liburu inprimatuen kopuru osoa sei bat milioikoa zen, horietan 30.000 bat titulu ezberdin. Mila bat inprimatzailek egina. Kopista profesional batek, bizkor laneginez, sei hilabete behar zituen 400 folio-orri egiteko; ez da harritzekoa, ba, ordu-rarteko ohiturak hautsi baldin baziren. 1470ean Vespasiano da Bisticci-ri burla egiten zioten sozialki apalagoak zirenekin zebile-lako, baina berrogei urte geroago Maximilian Enperadorea bera zen erretratu bat egiteko inprimatzaile baten lantegira zetorrena".

(HALE, 1973)

J. R. Hale, historilari britainiarra da, eta Britainia Haundiko Unibertsitateetan irakatsi izan du: Warwick, Londres, Oxford. Italiara irakatsi zuen, eta Historian Aro Modernoa. Batez ere, Ernazimentuko pentsamendu politikoa, aurkikunde geografikoak eta gertakari militarrek aztertu ditu. Eta 1480-1520. urteetako historia europarraren laburpena eskaini du: "Renaissance Europe" ("La Europa del Renacimiento". Siglo XXI).

Komeni da "Mendez Mende. Aro Modernoa"n begiratu bat ematea. 121-123. orrialdeetan ikus daiteke zenbait datu jakingarri. Ez da ahan-tzi behar Euskal Herriko inprimategien historia ere.

EGJTEKOAK

- a) Gutenberg-eri buruz informazio gehiago bilatu behar duzu.
- b) Inprimategi batera joaterik bazenu, egin ikustaldia. Besterik ezean begira irudidun entziklopedia batean inprimategietako teknikak? Zer dira inprima-probak? Nola zuzentzen dira errakuntzak?
- c) Begira ezazu "incunable" hitzak zer esan nahi duen.
- d) Bila entziklopediaren batean inprimategiaren historia labur bat, eta egin inprimagailuaren hedaper-mapa.

ERANTZUTEKOAK

- a) Inprentak aurreko ohiturak hautsi egin zituela dio agiriak: Zergatik?
- b) Paperak eta paper-produkzioak bai ul du inprimagailuaren zabalkundearekin inolako zerikusirik?
- c) Inprimategiak izan zuen garrantziaz eta hark sortutako ondorio kulturuz-laz idatz zerbaiz.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Ernazimentuko humanisten zaletasun bat erakusten du testu honetan Machiavelli florentziarrak: idazle klasikoek erakarmenik handiena zuten haiengan, betidanik ezagunak zituzten idazle erdiarotarren gainetik mundu klasiko urruna eskaintzen bait zuten.

"Ilunabarra iristean, nere etxera joaten naiz, ene ikastokira. Atarian eranstean ditut eguneroko nere lan-arropak, lokatza eta izerdiz zikinduak, eta jauregiko jantzi gortesauak jansten ditut. Eta janskera apain honekin sartzen naiz klasikoan Gortean; ongi hartzen naute han, eta berriz ere han dastatzen ditut nereak bakarrik ditudan janariak, horietarako jaioa bait naiz. Badut aski ausartzia haiekin mintzatu, eta haien ekintza eta burubidearen arrazoiez galdetzeko, eta haiek gizatasun osoz erantzuten didate. Eta lau ordubete luzetan munduaz ahantzi egiten naiz, ez dut inolako laidorik gogoratzen, ez naiz pobreziaz arduratzen eta herioaren aurrean ere ez naiz isutzen. Haien munduan sartzen naiz osorik".

(MACHIAVELLI, 1513)

Niccolo Machiavelli, (Florentzia 1469-1527), familia nobleko semea zen. Enbaxadari bezala ibili zen Europako zenbait herritan, Frantzian eta Alemanian, esaterako. Idazle bezala, obra luze baten egile izan zen. "Printzea" da Machiavelli-ren idazlanik ezagunena.

Pizkundeko Humanismoaz hainbat datu jakingarri jaso ditzakezu "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: ik. 116-123. orrialdeak.

EGITEKOAK

- a) Saia zaitez Pizkundeko giro historikoa laburtzen (Gizartea, egitura politikoak, oinarri ekonomikoak).
- b) Machiavelli-rekin hurremanak izandako pertsonai historiko batzuen biografia laburrak prestatu.
- c) Egin lauki kronologiko bat, Machiavelli-ren garaiko Florentziaren historia laburtuz.
- d) Irakur ezazu, eta komentu, autone klasikoren baten obra laburren bat.

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola uler daiteke Ernazimentuko idazleengan Antzinate klasikoak hainbesteko erakarmena izatea?
- b) Eta Aldi Klasikoaren beraren ideia nola defini liteke?
- c) Nola laburtuko zenuke testuaren pentsamendua? Zer esan nahi zigun Machiavelli-k hitz horiekin?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1500-1560

Lau testu bildu ditugu hemen, guztiak herri-hizkuntzei dagozkienak. XVI. mendean Monarkiek herri-hizkuntzekiko erabaki politikoak hartu zituzten, orduko hizkuntzalariek beren artean zituzten zalantza eta eztabaidei (Kulturarako latina ala herri-hizkuntzak?) aurre eginez.

Maximilian-ek zekizkien hizkuntzak

Umetan, alemaniera; Eskolan, latina; Nekazarientzat, valoniera; Emasteagandik, frantsesa; Gortean, flandesera; Diplomazian, espainiera; Armadan, italiera. (HALE, 1973)

Karlos V.aren hitzak (1536)

(Aita Santuaren aurrean gastelaniaz egindako hitzaldi baten ondoren Frantsiako enbaxadaria haserretu zitzaiola, honela erantzun zion Enperadoreak:)

"Apezpiku Jauna (Mâcon-ekoa zen enbaxadari frantsesa): Jakin beza berorrek, nahi badeza: ez beza itxaron hitzik neregandik hizkuntza espainolean ez bada, bere nobletasunagatik edozein jende kristauk ulertu eta jakitea merezi bait du berak".

Frantzisko I.aren erabakia (1539)

"Mandatuetakoko hits latinoen ulertzapenez sarritan estabaidak sortu ohi direnez, hemendik aurrera hau da nahi duguna: mandatu, erregistro, inkesta, kontratu, komisio, hilburuko eta beste edozein justizi ekintza ama-hizkuntza frantsesez, eta ez bestez, eman, erregistra eta egin dakizkiela alderdiei".

(VILLERS-COTTERËTS. 1539)

Gramatikari baten eritzia

"Jainkoak eta naturak eman digun hizkuntzak ez du izan behar guretzat latinak, grekoak edo hebraierak baino gutxiesgarriago. (...). Bere buruaren aski etsai da inoren hizkuntza norberarena baino maiteago duena".

(C. de VILLALON, 1558)

Hemengo testuon esanahia ezberdina da. Hale historilari modernoarenak Maximilian-en (1493-1519) hizkuntzak gogoratzen dizkigu: Ernazimentuko Enperadore hau hizkuntzak ikastera behartuta zegoen; Karlos V.ak, Aita Santuaren aurrean, latina utziz, gastelania defendatu zuen; Frantzisko I.ak, latina utzi eta frantsesari ematen dio leku bere Erreinuan. Neurri politiko hauek guztiak intelektualen pentsamendua ere bazuten atzetik (irakur Villalón-ena).

Hizkuntz arazoaren garaiko testuinguru politikoa ik. "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 14-28. orr., eta berezikiago: 27 eta 38. orr. Osagarri-tarako ik., nahi bada, "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 152, 162-163, 215 eta 228. orr.

EGITEKOAK

- a) Garaiko Frantziako hizkuntzen mapa bat marraztu.
- b) Bila, inguruko Parrokia batean, bataio-agiri baten fotokopia, dhalik zaharrena izan dadila. Zein hizkuntzatan daude idatzita?
- c) Egin bataio-agiri horren transkripzio bat; azter ageri diren datak, izen-abizenak, hizkuntzak, formulak, etab.
- d) Begira entziklopedia batean zer esaten den Villers-Cotterêts-eko Ondenantzei buruz.
- e) Zer dakizu edo jakin zenezake Karlos V.aren hizkuntzei buruz? Noizdanik zekien gaztelania?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik zekizkien Maximilian-ek hainbeste hizkuntza?
- b) Villalón-ek, zergatik aipatzen ditu batez ere grekoa, hebraiera eta latina?
- c) Zein hizkuntzaren alde ari da Villalón?
- d) Ezagutzen al duzu euskararen alde mintzatu zen XVI. mendeko inon?
- e) Zergatik izan zitekeen garrantzizko Karlos V.a Erroman gaztelaniaz mintzatzea?
- f) Emuzu, aurkeztutako testu hauei buruzko eritzi orokor bat.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. 1500

Historilari moderno honek XVI. mendearen lehen urteetako erlijiotasunaren ajeak aurkezten dizkigu pasarte honetan. Herri sinestunak, eliz irakas-kuntzak ematen zizkionetatik aparte, beste hamai-katxo sineskizunen uste eta irrika sentitzen zuen. Erreforma, honelako eske sozial batzuei erantzunez sortu zen.

"Predikari buruberoek jendeen sen inkontzienteak iratzartzen zituztenean, hostia santuaren profanazio-susmurruek edo errituzko hilketek juduen triskantzaren batera eramán zezaketen herria. Superstizio asko zegoen, gauzarik sakratuenen artean ere, eta predikariek ez zieten berabei aski erasotzen. Egoera ilun hau osatuz, aparizio, sorginkeria eta kiromantziaren irrika bizia zegoen fededunen artean". (H. TÜCHLE)

H. Tüchle, Eliz Historiaren irakaslea izan da München-eko Unibertsitatean, eta beraren iker-alor berezia Erreforma eta Kontrarreformaren aroa da batipat. Hain zuzen, belaunaldi haiei buruz liburu eder bat du, inoizko historiografia katolikoaren jarrera apologetikoei gaina hartu eta ikuspide berriak eskainiz: "Reforma y Contrarreforma", in: "Nueva Historia de la Iglesia" (Madrid: Cristiandad).

"Mendez Mendeko Aro Modernoa"n ikus daitezke historilarietako Pizkundean aurkitu ohi duten erlijiotasuna edo Erreformen ezagutu ohi dituzten kausa erlijioso-kulturalak: 128-133 eta 240-243. orr. Herriar xumeei buruz: 106-109. orr.

EGITEKOAK

- a) Eman mapa batean XVI. mendean hasieran Europako lurraldeak zituzten mugak.
- b) Bila ezazu "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n hemengo gai hau argitzeko balioko lezaketen irudiak edo laukiak: 129, 130, 131, 237. orr.
- c) Humanista izandako baten testu bat aukeratu, azter ezazu garai hartako mentalitatea (ik. MM/AM: 116-123. orr.).
- d) Hauta itzazu Pizkunde-garaiako hiru sorkuntza artistiko-erlijioso: zer esango zenuke horietaz (ik. MM/AM: 134-159. orr.).

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zergatik uste duzu Pizkundean erlijiotasuna ahuldu egin zela?
- b) Zeintzuk izan ziren Pizkundeko sinestunari kontzientzi baretasuna kendu zioten larritasunak?
- c) Zer esan nahi dute: kultura teozentriko eta kultura antropozentriko kontzeptuek?
- d) Nolakoak ziren Pizkundean Ama Birjinarekiko eta Santuekiko jarrera herriarrikak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Kulturgintzak baldintza sozio-historiko batzuk bete behar ditu posible izateko. Gutxieneko baldintza horiek definitu ondoren, Pizkundeko Europan baldintza hauek noiz, non eta nola bete ziren gogoratzen digu hemen historilariak. Orduan ere Europa ez zen bat eta berdina, ikus daitekeenez.

"Burgese hitzak ezer gutxi esan nahi du kultura burgesararekin lotuta ez bada, eta horretarako lau baldintza behar dira:

1. Diru-, zerbitzu- edo merkatalgai-trukean diharduten bizilagunen taldekatze hiritar aski esanahitsua.

2. Giza talde guzti honen ikusmoldeen ordezkapena nazio-, eskualde- edo lekuko gobernuren batean.

3. Talde burgese honen bizimolde propioko izaera eta balore berezien aitortzea, beroriek ohartuki nobleenekin nahiz lehen-ondasun produzitzaiileekin kontrajarrita ulertuz.

4. Eraikuntza eta mezenazgoaren bidez garaiko kulturaren aztarna fisiko eta intelektuala uzteko lain aberastasunik aski izatea.

Erispide hauekin hasten bagara, zaila da Oder ibaiaren ekialdean (Krakovia-n, Novgorod edo Mosku-n ere lanak) kultura burgese bat idorotzea. (Hain zuzen, Italia-n edo Flandes-en gertatutakoaren alderantziz)".

(HALE, 1973)

J. R. Hale, historilari britainiarra da, eta Britainia Handiko Unibertsitateetan irakatsi izan du: Warwick, Londres, Oxford. Italiara irakatsi zuen, eta Historian Aro Modernoa. Batez ere, Ernazimentuko pentsamendu politikoa, aurkikunde geografikoak eta gertakari militarrek aztertu ditu. Eta 1480-1520. urteetako historia europarraren laburpena eskaini du: "Renaissance Europe" ("La Europa del Renacimiento". Siglo XXI).

Ernazimentuko testuinguru soziala ezagutzeko, ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 101-109. orr. Eta alde ekonomikotik ere begiratu nahi baldin bazaio, hurrengo orr.: 109-113. Begira irudiak ere: 108, 109, 112 eta 114. orr. Ondoko mendeetakoak ezagutzeko, ik. 403-405 eta hurr. orrialdeak. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n begira 29-30. orr.

EGITEKOAK

- a) Egin mapa bat eta adieraz bertan XV. mendean Italiako Penintsula osatzen zuten lurralde eta errepublikak.
- b) Aipa itzazu Italiako Pizkunde-garaiko mezena garrantzitsuenak.
- c) Nola bereziko zenituzke lauki batean Pizkundeko nobleen eta burgesen arteko funtzioak?
- d) Zer esan nahi du "Estamentuzko gizartea"k? Bila hiztegi egoki batean.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Nondik dator "burges" hitza?
- b) Burgesak, beren interesak zaintzeko, zein talde-modutan biltzen ziren?
- c) Zer ziren gremioak? Ezagutzen al duzu Euskal Herrian gremioen izenak daramatzaten kaleak?
- d) Nola esplikatu dezakezu esaldi hau: "Humanismoak biziki azpimarratutako balorea zen gizabanakoaren sormena"?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1460-1520

Agiri honen testua A. Hauser soziologoari zor diogu. XV. mendeko artisten irabaziez ematen dizkigu berriak, Italiako hiri handitxoek gogoratu. Irabazien arabera artisten igoera soziala aipatzen du, batzuk nola aberastu ziren erakutsiz eta zeramaten bizimodu bikaina azpimarratuz.

"Artisten irabazietan ageri da batez ere haien igoera soziala. XV. mendearen azken laurdenean, Florentzian prezio erlatiboki altuak ordaintzen dira fresko-pinturengatik. Santa Maria Novella-ko famili kaperako pinturagatik 1.100 urrezko florin ordaintzen dizkio G. Tornabouni jaunak Ghirlandaio-ri. Erromako Santa Maria sopra Minerva-ko freskoengatik 2.000 urrezko dukat kobratzen ditu Filippo Lippi-k (hau da, florin-kopuru hura bera). Kaperak Sixtotaurreko sapaian egindako freskoengatik Michelangelo-k 3.000 dukat jaso zituen.

Mende horren azkenetan zenbait artista aberastu ere egingo da: Lippi-k nahiko ondasun biltzen du, Perugino-k etxeak dauzka, B. de Maiano-k etxalde bat. Leonardo-k, Milano-n, 2.000 dukateko soldata jasotzen du urtean eta Frantzian 35.000 libera. "Cinquecento"ko maisu sonatuenean, Raffaello eta Tiziano-k adibidez, itxurazko irabazbideak dituzte eta bizimodu bikaina daramate".

(H. HAUSER, 1951)

Arnold Hauser, Hungarian jaio zen (1892-1978), eta Budapest, Parise eta Berlin-en ikasi zuen, eta Viena-n eta Londres-en izan da irakasle. 1951n eman zuen argitara bere "The Social History of Art" (Londres), gero beste hainbat hizkuntzatara itzulia, eta gaztelaniaz Guadarrama argitaletxeak argitara emana. Benetan liburu estimagarria.

Hemen ukitzen diren arazoei buruz "Mendez Mende. Aro Modernoa"n topa litezke xehetasun lagungarriak: 134-138. orr. Kideko gaiak "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ere bila daitezke: 596, 598-599, 602. orr.

EGITEKOAK

- a) Ikus atlas batean Florentzia, Erroma, Milano hirien kokaguneak.
- b) Arte-liburu batean bila testu honetan aipatzen diren pintoreen obrak: Santa Maria Novellako freskoak, Vatikanoko Kapera Sixtotarrekoak, etab.
- c) Arte-liburu batean bila artista hauen autorretratuak: Perugino, Leonardo, Lippi, Raffaello eta Tiziano.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Noiz bihurtzen da "koadroa", merkantzia?
- b) Zer ziren florina, dukata, libera? Zenbatekoak ziren?
- c) Zer informazio-mota ematen du testu honek? Zein interes eduki lezake historikariarentzat?
- d) Zer deritzozu agirian sumatzen den artisten nazioartekotasun profesional horri?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1513-1521

XVI. mendean Aita Santuak zuen Gorteari buruz informatzen du: Pizkundeko ekonomia, politika, artea eta erlijioaren esperientzia soziala batera bizi ziren. Hilezkortasunaren antsiak jota, Elizako printze eta dignatarioek eta bankari aberatsek zuten artezaletasuna bizia eta grinatsua zen. Erroma, mezena hiria bilakatu zen une historiko hartan.

"Leon X. arekin (1513-21) jotzen du bere punturik gorenena Erromako gorteak. Enperadore baten gortea ematen du Aita Santuaren Kuriak; kardinalen etxeek printze-gorte trikiak ematen dute, eta eliz jaunenek, berriz, batak besteari aurrea hartu nahi dioten etxe aristokratikoak. Elizako printze eta dignitariotatik gehienak arte-zaleak dira; hilezkortasunaren antsiak ematen diete lana artistei, eliz artelanen fundazioen baten bidez, edo beren jauregien eraikuntza edo apainketetan enplegatuz. Bankari aberatsak ere haien antzera jokatu nahi dira, mezena bezala alegia".

(H. HAUSER, 1951)

Arnold Hauser, Hungarian jaio zen (1892-1978), eta Budapest, Parise eta Berlin-en ikasi zuen, eta Viena-n eta Londres-en izan da irakasle. 1951n eman zuen argitara bere "The Social History of Art" (Londres), gero beste hainbat hizkuntzatara itzulia, eta gaztelaniaz Guadarrama argitaletxeak argitara emana. Benetan liburu estimagarria.

Mezenazgoaz eta artista pizkundetarraren balioztapen sozialaz, ohar batzuk "Mendez Mende. Aro Modernoa"n ikus daitezke: 135-138. orr.

EGJTEKOAK

- a) *Itus atlas historiko batean Erromaren kokalekua.*
- b) *Bila entziklopedia batean Leon X.aren biografia.*
- c) *Begira arte-libururen batean garai honetako Erroman egindako eraikin aipagarrienak.*
- d) *Bila "Mezena" hitzak zer esan nahi duen. Hitzaren historia zein da?*

ERANTZUTEKOAK

- a) *Zer esan nahi du 'Aita Santuaren Kuriak Enperadore baten gortea' ematen zuela horrek?*
- b) *Esplika 'aristokratiko' hitzak adierazten duena.*
- c) *Nolako zenikusia izan dezake arte-lanak hilezhortasunaren antsiarekin?*
- d) *Zeintzuk ziren bankariak? Zergatik jokatu nahi zuten mezena gisa?*
- e) *Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esuten direnetatik?*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1500-1600

Berenson arte-kritikariaren eritziz, guztiz ezberdinak ziren Pizkundeko pintura-estiloak Florentziako eta Veneziako eskoletan. Testu honetan eskola ezberdin hauen berezitasunak aipatzen ditu, bata besteari kontrajarriz.

"Pizkundeko pinturaren historian bi eskola handi kontrajarri ohi dira: Florentzia eta Venezia. Biek eman zituzten obra maisuak, baina teknika eta pinturaren zentzu ezberdinekin beti ere. Florentzia, lerroaren marraskian eta mugimendu linealean da lehenengoa; Venezia, berriz, kolorean, gorputz eta hutsarteak argiz eta kolore bidez ematean alegia. Eskola bakoitzak bere garapen-bidea egin zuen, belawnaldiz belawnaldi. Hona Florentziakoaz zer dioten kritikari ezagun batek: 'Ez dago eskola banakoiago edo indibidualistagorik. Florentziako maisuetatik bat ere ez zen mugatu inoiz aurrerakoen errepikapen oihartzun hutsa izatera. Hala ere, guztiek --lehenengotik azkenekoaganaino-- gudu bat bera jo zuten zentzu honetan. Giotto eta Michelangelo ez daude kontrajarrita. Bion eta artista gustion indarrrik onenak pinturaren ukipen-balioak eta mugimendua, edo bi balio horiek batera, adierasten eman ziren Florentzian'".

"'Ukipen-balio' horiek, ukimenari dagozkionak dira: lerroa, marra, bolumena... Ikusmenak, ordea, kolorea da jasotzen duena: Ikus-balioak maisukiago eman ziren Venezian, baina linea-marraskia batez ere florentziarra da". (B. BERENSON, 1894)

Estatu Batuetako artearen historilari lituaniarra da Berenson (1865-1959), Harvard, Berlin eta Parisen ikasi ondoren Florentzian finkatu zen. Ernazimentuko pinturaz kritikari maisua izan zen. Argitara eman zuen lehenengo obratik hasita ("The Venetian Painters of the Renaissance", 1894), arte-kritika molde berria ireki zuen Berenson-ek. Begi behatzaille aparta zuen, eta arte-lanak hitzez analizatzeko luma abila.

Begira "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n 136-139. orr. Eta bi eskolen arteko zerikusi eta aldeak ikusteko, gogoan har ondoko orrialdeetan esaten dena: 140-143.

EGJTEKOAK

- a) *Ikus atlas historiko batean Florentzia eta Veneziako kokalekuak.*
- b) *Arreta handiarekin azter eta gonbara itzazu eskola hauen berezitasunak.*
- c) *Artearen Historia batean ikus ezazu eskola bakoitzeko margolari garantzitsuenen lan maisuak.*
- d) *Bila ezazu: lerroa, marra, bolumena, kolorea, mugimendua zer diren.*

ERANTZUTEKOAK

- a) *Zer emun nahi da aditzera Giotto eta Michelangelo ez zeudela kontrajarrita esatean?*
- b) *Nortzuek osatu zuten Florentziako eskola? Nortzuk ziren Veneziako eskolak?*
- c) *Zein eskola da zure gustuarekin bat diwana? Zergatik?*
- d) *Zer dira "ukipen-baliok" eta "ikus-baliok"?*

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1605

Testu honetan garbi azaltzen da gotikotasunak izan zuen harrera mugatua (modernotzat jotzen bait zen). Modernotasunak suposatzen zuena zen estiloen nahastea eta hau ez zen garai hartan onartzen.

"Eta ez zaitetz ausart erromatarra modernoarekin (gotikoarekin, alegia) nahasten, ez bila berrikeriak pieza baten laboreak besteez trukatus, oinaren moldurak buruari emanaz. Ezagutzen dut nik, eta suk ere bai, leiho batzuetako eskubandetan leihoburu eta zangoetako moldura berberak ezarri zituenena... Eta ez da falta taulamentuetako koroak eta hortzarkak basamentuetan jartzten duenik".

(SIGUENZA, 1605)

José de Sigüenza (1544-1607) eliz historilaria zen, jeronimotarra. El Escorial-eko liburuzaina izan zen, eta San Jeronimoren Ordenaren historia jakingarri bat idatzi zuen, bere prosa-moldeagatik baliozkoa. Garaiko arte-lanetatik hurbil suertatu zen, aipatutako monastegian bizi izan zenez.

Une honetako arte nagusia, Barrokoa, ezagutzeko komeniko da "Mendez Mende. Aro Modernoa"n, 357-361. (Europa) eta 371-373. (arkitektura barroko espainola). Aurreko eboluzioaz zerbait gogoratzeko, ik. liburu berean 144-147. orr. (Espainiako Ernazimentuaz).

EGJTEKOAK

- a) Bila Arte-Historiaren batean erromatarren eraikinak eta konpara eraikin gotikoekin.
- b) Lauki batetan jar erromatarren estiloaren arkitektur berezitasunak. Orobat, estilo gotikoarenak.
- c) Bila, irudietan, leihoko eskubandetan jarritako leihoburu eta zangoetako moldurak. Bila itzazu taulamenduetako korroak eta basamentuetan jarritako hontzaxkak.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Bai al du estilo gotikoak erromatarren estiloarekin zer ikusirik? Zertan? Zergatik?
- b) Nola deskribatuko zenuke erromatarren eraikinen izpiritua? Era berean, zer diozu gotikoaz?
- c) Estilo nahastuei buruz zein da zure eritzi pertsonala? Ados al zaude testu honek diotenarekin? Zergatik?
- d) Arkitekturari gotikoak aurrerakuntzarik ekarri zuela uste duzu?
- e) Aipu itzazu bost eraikin erromatarren eta beste bost gotikoen izenak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Mezenazgoak modu eta bide ezberdinak hartu izan ditu, mendeak zehar eta herri eta gizarte ezberdinetan. Tokian tokiko harreman sozialen arabera eratu eta moldatu da mezenazgoa, eta beti ere harreman sozio-ekonomikoen egiturak baldintzatu ditu artisten eta mezenaren arteko harreman-moldeak. Hona adibide bat Oñatin, XVI. mendean.

"On Errodrigo Gotsainak, bere ehorsketarako kapera bat eduki nahi zuen Oñatiko San Migel parrokian. Horretarako baimena lortzearren, Oñatiko jaun eta Gebarako konteari zera agindu zion: baimen-truke, parrokiari klaustro eder bat eraikiko ziola. Nahi zuena lortu ondoren, 1525etik aurrera bete zuen agindutakoa, maisu hargina zen Pedro Lizarazuko urretsuarra obrarako ekarriz".

(M.A. ARRAZOLA, 1985)

M.A. Arrazola historilari gipuzkoarrak ikerlan aberatsak ditu Gipuzkoako arteari buruz, XVI-XVIII. mendeetakoaz bereziki. Idatzizko eta diapositiba bidezko azalpen didaktikoagoak ere eman izan ditu. Ernazimentuko kapera interesgarri baten sorrerari buruzko informazioa ematen digu hemen.

Ernazimentuko euskal arteaz argibide zabalagoak "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n topa ditzakezu: 149-159. orr. Arkitekturaz zehazkiago, ik. 154-159. orr. eta horren barnean, Oñatikoaz: 157. or. Ikus, gainera, "Artearen Historia" II, 99-109. orr.

EGJTEKOAK

- a) Bila Gipuzkoako mapa batetan Oñatiko herriaren kokalekua.
- b) Inakur Oñatiko Unibertsitateari buruz liburuek diotena. Begira Unibertsitateak noiz arte funtzionatu zuen, eta nonk itxi zuen.
- c) Ikus nolakoa den San Migel elizako klaustroa. Zein berezitasun du: bila argibideak.
- d) Bila ezazu Pedro Lizarrasuri buruz Oñatiko historiak dioena. Begira non zen Gebarako Kontea, eta Konterri honi buruz informazio zaituz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zein estilotan egina dago Oñatiko San Migel elizako klaustroa?
- b) Nola deskribatuko zenuke klaustro hau? Eman berorren ezaugarriak.
- c) 1525ean Oñati ez zegoen Gipuzkoaren barnean? Zein zen beraren egoera?
- d) Zer iruditzen zaizu On Rodrigo Gotzainaren nahia? Logikoa al zen, kaperana bat edukitzeagatik klaustro bat eraiki-behurra? Nornahik egin ote zezukeen honrelakorik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Testu historiografiko eta ekonomiko hau Euskal Herriko itsas garraioez eta, zehatzago esanda, Urola bailarako itsas irtenbideaz ari da autorea. Honelako kaien garrantzia nabaria da, bai burdinari lur-lehorreko zokoetatik irteera eroso bat aurkitzeko, eta baita kostaldeko lantegien arteko harremanak errazteko ere.

"Zestoako Beduan biltzen ziren Urola bailarako burdinkiak, eta hemendik hartzen zuten itsasbidea berauek, Beduan bait zeuden kaiak, erreteria eta loa. Hona biltzen zen Bizkaitik Zumaiako portura zetorren mea, inguruetako oletara zetorrena noski. Beduatarrenak ziren, gainera, burdin garraiorako inguruko bideak. XIX. az gerostik, itsasotik urrunduta geratu da Bedua, baina mendetan izan zen Gipuskoako kostaldean bailara hartako lantegietarako erabat premiazko kaia eta lehengaien biltegia. Euskal itsasertzean, han-hemenka kokaturik zeuden antzekoak. Holakoetatik eta holakoetara zuzentzen zen burdingintzaren bisitza ekonomikoa; 'Peru Abar-ka'n irakur daitekeen bezala: 'Zenbat (irabasten du) itsainak, ikatzak olara eramaten, erreterietatik mea ekartzen?'. Erreteria izeneko herri eta auzoak honelako ibai-barnetan esagutzen ditugu, Gernika-n eta Pasaia ondoan, adibidez".

(Enciclopedia Auñamendi-tik egokitua)

Euskal Herriko historia ez dugu behar den bezala ezagutzen, are gehiago betidanik baztertuak eta ahaztuak izan diren ekonomiaren eta zerbitzuen historiak. Bidezkoa izango da, beraz, testu hori arretaz aztertzea.

Begira "Mendez Mende. Aro Modernoa"n Pizkundeko euskal gizarteaz esaten dena: 149-151. orr. Bestalde, komenigarri izango da Pizkundeko gizarte-ekonomiez ere albiste orokorrakoak bilatzea: 100-115. orr.

EGJTEKOAK

- a) Euskal Herriko mapa fisiko batean koka agirian aipatzen diren izenak.
- b) Mapa berean jarri. Urola ibaian Zestoa eta Zumaia (honen ondoan, Bedua).
- c) Elgoibar eta Eibarretik nola egingo ziren garraiokak?
- d) Egizu itsasorako inteeira nagusien mapa bat, eta adieraz bertan inteeira-puntuetakoko herri edo "errenteria" handienak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Azaldu agiriazen gai nagusia. Nola laburtuko zenuke?
- b) Zergatik ziren hain garrantzitsuak puntu hauek? Euskal ekonomiak bai ote zuen horrelakoen premiarik? Zergatik?
- c) "Errenteria" hitza ezagutzen al zenuen? Zer esan nahi du? Zer da loa bai?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Erdi Aroa amaitzean, Pizkundearekin natur zientziei buruzko interes berri bat aurkitzen dugu XVI. mendean. Ez da oraindik hurrengo mendean sumatu ahal izango den irrika eta ahalegin zabaldu hura izatera iristen, baina badu, hala ere, halako jite moderno bat, eta jakitun handienek bederen gizartean sarbide onak izan zituzten, nahiz eta sarritan boteredunekiko harremanetan nahikoa baldarrak izan.

"Joandaetorrikoak dira jakintsuak, leku jakin batean ezin finkatuak, ezinegonak eta nardariak, beti prest errege, lagun edo gozain printzeren batekin haserretzeko, mentura berritan sartzeko beti gertu. Ongien lekutuek ez dute erreparorik zaputz egin eta aldegitoko: Tycho Brahe, Danimarka-ko Erregea utzi eta Enperadorearenera doa handikiro, eta Leonardo da Vinci Antwerpen-era joan zen, (Frantzia-ko Erregearenetik). Baina (...) beti ere Pizkundeko jakintsua gizon bakartia da. Babesleak izan ditzake, baita miresle eta ikasleak ere; ez da talde politiko edo intelektual batekoa; ez da Eskola batekoa eta maiz asko bere lagunak dira lehiakide eta kontrakoak ere. Haren bizitzako ezinegona pentsamentu-agresibitateari dagokiona da (...) eta hauxe haren bakardadearen seinua ere".

(J. ROGER, 1972)

Jacques Roger, Zientziaren historilaria da, eta Tours-eko Letretako Fakultatean dekanok izana. Pizkundeko Zientziaz arduratu da batez ere. XVI. mende hark, izan ere, Zientzia positibo modernoan atarikoak jarri bait zuen, eta garaiko honelako eta bestelako jakin-grina guztiekin elkartuta berehalako aldakuntzen eragile izatearen interesa du historilariarentzat.

Begira "Mendez Mende. Aro Modernoa": 159-164. or. Eta Euskal Historietan Huarte Donibanekori buruz esaten dena.

EGJTEKOAK

- a) Har itzazu erdal entziklopediak, eta ikus zer dioten Huarte Donibane, Azpilkueta eta garaiko beste euskal jakitunei buruz.
- b) Begira ezazu "Euskal Herria" liburuan (J: 362. Jakin) Pizkundeko euskal kultura.
- c) XVI. mendean sortu zen Oñatiko Unibertsitatea: hara joateko aukerarik baldin baduzu, galde gidariari Zientzia positiboei zein leku izan zuten han.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik esaten da Pizkundea/Zientzia modernoaren egunsentia izan zela?
- b) Aipa itzazu kosmologia eta giza anatomia lundu zituzten bi jakintsu garrantzitsu.
- c) Esazu Koperniko-ri buruz dakizuna.
- d) Zergatik esan zuen Luter-ek, Kopernikoren teoria ezagutzear. "Astronomia osoa irauli nahi du honek!"?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

1543an bi datu kultural deigarri suertatu ziren: Vesaliok bere obra nagusia kaleratu zuen, eta Kopernikok, hil zen urte berean, bere "De revolutionibus orbium coelestium" eman zuen argitara. Eliz agintari zenbaitek, bere teoriak argitalpen batean kaleratzera bultzatu bazuen ere, oso berandu arte ez zuen horretarako erabakia hartu, beti ere teologoen beldurrez. Dena den, ausarta izan arren, teoria ez zen aintzindaririk gabea.

"Pentsamendu mendebaldarraren historian, Koperniko-ren obrak data erabakior bat finkatzen du. Izan ere, obra hartatik dago XVII. mendeko 'Zientzi Iraultza', (zere eta Antzinateko eta Erdi Aroko. Kosmo itxi eta hierarkizatuak garaialdi modernoetarako Unibertso berdindu eta mugagabeari egiten bait dio leku).

'Iraultza kopernikarrak' badu zer bait harrigarriak: aldez aurreritiko deirik gabe eta prestaketarik gabe agertzen zaigula. Ez Nikola Cusa-ko (agian esagutu zuena), ezta Leonardo da Vinci (Koperniko-k ziurki esagutu ez zuena) aitor bait ditzakegu Koperniko-ren 'aintzindaritzat'. Inork ez zuen errezelatu --Aristarko Samoko-ren ondoren eta Seleuko-z geroztik-- Eguzkia munduaren erdigunean egon zitekeenik eta Lurra orbitan mugit.

(KOYRE, A.; ROSEN, E., 1972)

A.Koyre (1892-1964), errusiarra zen jaiotzez, baina 1930tik aurrera (Amerikako egonaldiren bat tarteko) Frantzia burutu zuen bere ikerlana. Zientziaren historilaria izan zen, XX. mendeko handienetakoa. Zientziaren oinarri teorikoen historia egin du batipat, eta bereziki XVI-XVIII. etako jakintza zientifikoa historiatu du bere argitalpen aberratsetan.

Ernazimentuko zientziaren nondik norakoa hobeki ezagutzeko begira "Mendez Mendez. Aro Modernoa"n 159-164. orr. Batez ere, ongi azter Kopernikori eta Joanes Huarte Donibanekori buruz esaten direnak. Zientzia horien ondoko historia ezagutzeko, berriz, liburu berean 327-337. orr. Eta XIX. mendekoaz, "Mendez Mendez. Aro Modernoa"n 129. eta hurrengo orrialdeak daukazu.

EGITEKOAK

- a) Bila Historiako testuliburuaren batean Antzinatean eta Endi Aroan kosmologi buruz uste zirenak.
- b) Kopernikok Eguzkia jartzzen zuen Planeten erdian; Lurra, beraz, albora geratzen zen teoria berrian. Marraztu bi sistemok, elkarren ondvan kontrajarri.
- c) Kopernikoren ideiak ez ziren erabat berriak. Baina zergatik nagusitu ziren Endi Aroan Ptolomeo-ren ideiak?
- d) Bila Biblical ideia kosmologiko nagusienak..

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola esplikatuko zenuke "Trauliza kopernikarra"ren esanahia?
- b) Zer da Kopernikoren bizitza eta lanari buruz dakizuna?
- c) Norainokoa izan zen Astronomian Kopernikoren eragina?
- d) Zer dakizu Kopernikoren eta Galileoren inguruan sirtutako eztabaidei buruz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Giza gorputzaren ezagumendua ez da bapatean lortu-tako zerbait izan; Antzinatean eskuratutako lorpen zientifikoek ez zuten, alor honetan, jarraitasun saiatu bera izan Erdi Aroan. Iragan mendeetako ohiturak aldatzeari beldur zioten zientzi gizonak, eta lotura hori askatu zen arte, zaila izan zen ikerlari berriei ekitea ere.

"Egiaz, Vesalio-ren aurretik bizi izandako anatomistek ere egin zituzten aurkikunde interesgarriak eta den bezala irudizatu zuten Natura zenbait ikuspegitatik, ez Galeno-k egin zuen gisara; baina denek zeukaten ausartzia handiegitsat maisu hura zuzenean erreferentsatzea, azkenean haren altuerara igotzea bait zen gustien grina. Egoera eta burubide hauek ez ziren batere ongarriak Anatomia-aren aurreramendurako, eta, benetan, erori egin zen zientzia Vesalio hilezkorra agertu zen arte, honek hautsi bait zituen gero aurreritzi-entzuen kateak, Naturaren behaketa arretatsua ikaskizun garrantzitsu-entzuen eta bazterresinena bezala gomendatuz".

(KURT SPRENGEL)

K. Sprengel historilariak Vesalio aipatzen digu bere pasarte honetan. Andries van Wessel zuen jatorrizko izena, eta latineraturik "Vesalius" (1514-1564). Vesalio ez zen izan autodidakta bat, gutxiagorik ere: garaiko Unibertsitate-entzuen ospetsuenetan ikasi zuen (Leuven, Parise, Padova, Bolonia). Baina ez zen ikasletan geratu, eta jasotako ondare zientifiko-entzia berri-entzia eta ontze-entzia eman zen osorik.

Vesalio-ren lana Pizkunde europarraren barnean kokatu behar da: ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa": 159-164. orr.

EGJTEKOAK

- a) Zure herrian edo ingurukoren batean "petrikilo", mediku akupunturazale edo fisioterapeutaren bat ezagutzen baduzu, mintza berarekin, beren anatomi ezagutzek sendalanean nola laguntzen dieten galdetuz.
- b) Joan zaitetz herriko medikuarengana, eta galdetu zeintzuk diren herrian sortu ohi diren traumatismorik garrantzizkoenak. Zer egin ohi da sendatzeko?
- c) Kiroltzaleen arteko masajistek zer ikasi ohi dute batez ere? Beharrezkoa al da anatomia ongi ezagutzea? Galdetu halakoren bati kirol ezberdinetan zein gorputz-alde den gehien sufritzen duena.
- d) Joan harakin batengana, eta galde behi bat zatikatzean, anatomi ezagumendurik behar den? Zertarako? Zergatik? Ahal baduzu, begira nola zaitu ohi den aberea?

ERANTZUTZEKOAK

- a) Esazu Vesaliori buruz dakizuna.
- b) Zein izan zen Vesalioh Medikuntzan emandako pauso handia?
- c) Ezagutzen al duzu Vesalioaren atlas anatomikoa? Zertan datza?
- d) Nontzuk izan ziren Medikuntza modernoaren bideak urratu zituztenak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

P. Jeannin historilariari zor diogu ondoko zati hau. XVI. mendeko Europaren eraketa politiko ezberdin eta eranitzaren erretratua egiten zaigu testu honetan, garaiko antolamendu politiko desberdinak azalduz. Historilari berezitu baten baliua du testu honek.

"XV. mende-hasierako Europa, gorputz politiko oso ezberdinek osaturiko mosaiko bat da. Guztiz ezberdinki eratutako, baina beren independentzian irmoki oinarrituriko erreinuen ondoan, hiri-errepublikak edo hiriren baten inguruan jaiotako jaureerriak, laiko nahiz elisgizonen printzerriak ahantzi gabe; Alemanian edo botere inperialaren asmatzoz zapustu duen Italian honelako jaureerriek, gainera, benetako autonomia dute. Inperio Sakratua sakabanatuta dagoenez eta Kristandade-gidaritza denboralerako Aita Santuen nahikeriak hondatuta, monarkien esanahi nazionala garbiki sendotzen da Frantzian eta Ingalaterran; Granada-ren konkistak (1492) Espainien batasuna burutzen du. Europaren beste muturrean, Suediak --gataska luze baten ondoren eta Batasun Eskandinaviarra desegitean-- independentzia osoa lortzen du (1523)".

(P. JEANNIN, 1970)

Pierre Jeannin historilari frantsesa Europako iparraldeaz arduratu da, eta Eskandinaviatz berezikiago. Beronen bi obra gogora ditzakegu hemen, lan horren adibide bezala: "Histoire des Pays Scandinaves" (1956) eta "L'Europe du Nord-Ouest et du Nord". Berak sakonean ezagutzen duen mundu horren ondoan, Europa osoari ematen dio begirada bat testu honetan.

XVI. mendeko Europa politikoki nola zegoen eraturata jakiteko ikus "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 165-171. orr. Baduzu mapa bat 98. orrialdean.

EGJTEKOAK

- a) Ikus, Atlas historiko batean, garai hartako Europa nolakoa zen.
- b) Marraztu XVI. mendeko Europako mapa politikoa.
- c) Bila hiztegi egoki batean: Erreinua, hiri-errepublika, jaurreria, printzerria, autonomia, inperioa, monarkia, independentzia kontzeptuak.
- d) Aldera itzazu ematen diren antolamendu politiko desberdinak, bakoitzaren organigrama xume bat eginez.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer esan nahi du autoneak, "Europa... mosaiko bat da" esaldiarekin.
- b) Zergatik dio autoneak "Espainien batasuna" eta ez "Espainiaren batasuna"? Gaur egun zuretzat zein izan daiteke egokiena. Egungo Euskal Herriko politikariek nola erabiltzen dute? Ideologiaren arabera?
- c) Zein da testuaren pentsamendua bere osoran?
- d) Zein ondorio aterako zenuke testu honetan esaten direnetatik.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

X. mend.

Eurasiaren eta Amerikaren arteko Ozeano Atlantikoa hesi gainditu ezina izan zen Antzinateko nabigari ausartenentzat ere. Erdi Aroan, kolonaurreko itsasgizon europarren ahalegin goiztiarren adibide bat da vikingoen ondoko hau. Bere bitxitasunagatik ere ongi gogoan hartzekoa, noski!

"Beranduko haien kristautzearen aurretik (...) eskandinaviarren Groenlandia-ko lehenen kokalekuak X. mendekoak dira. Handik, berandu-beranduenik ere 1000. urtean, Vinland aurkitu zuten (hau da, oraingo Massachusetts Estatuaren hegoaldeak San Lorentzoren bokalera doan lur amerikarraren zirrinda bat), (...). XV. mendearen azkenetan, Europako Hegoaldeak bere itsas menturei ekitean, (Eskandinaviatik 2.500 kilometrotara, beraz) ibilaldi haien oroitzapena galduta zegoen. XIII-XIV. mendeetako eskandinaviarren atzerakada gutxiago izan zen gizonaren erruz, orduan gertatu zen klima-zitaltzeagatik baino". (P. CHAUNU, 1973)

Pierre Chaunu, historilari-maisua da, frantsesa. Sevilla, Atlantikoa eta Amerika izan dira batipat ikertzaile honen aztergaiak, eta lan gaitza egin du horretan: "Séville et l'Atlantique" (Parise, 1959). Sintesi guztiz fidagarriak eskaini ditu, gainera, Espainiaren hedapen kolonial amerikarrari buruz.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n bila ditzakezu testuan aipatzen diren bidaiari buruzko zehaztasunak: 178-180. orr.

EGJTEKOAK

- a) Bila vikingoei buruzko informazio zehatza, eta bilaketa-hedapenetako une garrantzitsuenak idatz.
- b) "Mendez Mende. Aro Modernoa"n jasotako datuekin eta beste liburu eta entziklopedietan aurkitutakoekin idatz gaiaz laburpen bat.
- c) Europa eta Ipar Amerikako mapa batean koka: Vikingoen sorrakua, Europako hedapena, Ameriketako usteko hedapena.

ERANTZUTEKOAK

- a) Non dago kokatuta Groenlandia? Zein mendetan iritsi ziren bertara vikingoak?
- b) Non kokatzen da San Lorentzoren bokalea?
- c) Zein izan zen bidai vikingoen atzerakadaren kausa? Arrazoiu.
- d) Zein arrazoi sozio-ekonomiko egon ote ziren, gainera, geraldi hurta-
rako? Egin hipotesiren bat edo beste.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

XVI. mend.

Kontinenteen arteko harremanen berrikuntzak garrantzia handia izan du, adibidez, Europako jan-edarien ohiturak aldatzeko. Eta, alderantziz, jan-edarien ohitura horiek izan dira harreman berrikuntza haien kausa, produktuen eskaintza-eskarien arteko orekarik ezak merkatu berrien bilaketa bultzatzean. Espezien bilaketa eta merkatua daude XV-XVII. etako Aurkikundeen hasieran, ondoren urrea, zilarra edo produktu kolonial aurkitu-berriak egon ziren bezala.

"Malabar kostaldekoa (India) da jatorriaz. Indiarrek 'pippali' deitzen zute, eta Alexander-en soldaduek 'peperi' tara aldatu zuten izena. Bere ohizko merkatal bidean, Indiatik Hego Arabiako kostaldera (gaur eguneko Yemen-era) etortzen zen, eta handik Egipto-ko Alexandria-ra, karabanetan. 408an Alariko bisigotuak Inperio erromatarrarengandik 3.000 libra piperrauts jaso zuen ordainetan, beste hainbat gauzaren artean. Piperrautsaren prezioa oso altu mantendu zen portugesez Lisboa-ra kargamendu handiak ekarri zituzten arte (XVI. m.)"

(ENC. LAROUSSE).

Aurkikundeen ondorio bat Europara jaki berriak ekartzea izan zen, eta Europako Estatuak hasieratik bertatik bizirik zegoen merkatal lasterketa eta lehiaketa sustatzea. Aurkikundeak ez ziren burutu ezagutzen platoniko interesik gabeko batek bultzatuta.

Aukikundeetako arrazoi sozio-ekonomikoak ongi ikustea komeni da: "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 185-190. orr. Orobat: 224-232. orr. Beste kolonizazioetan ere modu honetako arrazoi ekonomikoak bizirik egon dira (grekoenean, "Historia/1" (94-95, 121, 195. orr.). "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 80-90. orr.

EGJTEKOAK

- a) Mapa batean, agiriak deskribatutako bidea marraz. Era berean, zein zen espezien lehengo ohizko bidea?
- b) Mapa berean piperrautsa produzitzen zuten lurraldeak ere jarri.
- c) Merkatalgo honetaz estatistikarik bilatuko bazenu, egin horiekin grafiko batzuk.

ERANTZUTEKOAK

- a) Piperautsaren prezioa zergatik mantendu zen hain altu XVI. menderarte?
- b) Garai horretako merkatalgoa produktu garestietan oinarritzen omen zen. Zergatik? Gaur egunekoa ere bai?
- c) Espezien merkatalgoan lurralde-txanduketa bat gertatu zen XVI. mendean. Zeinen artean? Zergatik?
- d) Zertarako erabiltzen zituzten espeziak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1481-1490

F. del Pulgar-ek XV. mendean testu honek iturri historiko baten balioa du: haren "Crónica de los Reyes Católicos" (1481-1490) obran ikus daiteke berau. Bere laburrean ere pasarte esanahitsua da euskal itsasgizonen eta tekniken historiarako.

"Bizkaiko konterrian eta Gipuzkoako probintzian bizi direnak, nabigazio-zereginetan iaioak dira eta itsas guduetan saiatuak. Bazituzten horretarako ontzi eta tresneria egokiak. Eta itsas gerrateetan nagusienak diren zereginetan, munduko beste edozein nazio baino adituagoak ziren". (F.del PULGAR: XV.eko kronikaria)

F. del Pulgar (1436-1493). Humanista eta historilari gaztelaua. Errege Katolikoek kronikaria. Bere obrak gaztelaniazko historiografian garrantzi handia dute: "Letras", "Los claros varones de Castilla" ere baditu goian aipatutakoaz gain.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n ik. 178-232. orr. (Aurkikundeei buruzko datu orokorrak), eta euskaldunen nabigazioaren berriak: 192, 193, 194, 195, 197, 199, eta 204. orrialdeetan. Arazo teknikoak ulertzeko, ik. 186-187. orr.

EGITEKOAK

- a) "Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuko (192-199. orr.) agirietako ideiekin egizu laburpen orokor bat, Aurkikundeetan euskaldunak beteriko zeregina jakin ahal izateko.
- b) Idatz karabela untziaeren berezitasunak.
- c) Elkano eta Urdunetaren biografiak idatz.
- d) Mapan adieraz berorien bidaiak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik dio testuak, nabigazio zereginetan iaioak zirela euskaldunak?
- b) Zein untzia berriz ari zaigu testua?
- c) Noiz sortutakoak dira karabelak? Nolakoak ziren?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

XVI-XVII. mend.

XVI. eta XVII. mendeetan, Europako untxiak kasik munduko azken muturretaraino iritsiak ditugu. Batzuetan, espezia deituriko produktu exotiko ezezagun horiek; esklabuen bilakuntzak, bestetan, edo/eta abentura-egarriak ireki zituzten mundu berriak. Hala, Antzinate klasikotik Erdi Aroraino bizirik egon zen ardatz geografiko-kulturala (Mediterranea alegia), desagertu egin zen Atlantikoak ordezkaturata.

"Aurkikunde eta konkisten aroa, euskal izen gutxi-asko sonatu baina ugariz jantzia dago. Nabarmetzen direnak, itsasgizonak dira, ekintzara emanak. (...). Isasti-k, XVII. mendean, honela idasten zuen, Gipuzkoaz bakarrik ari zela: '(bertakoek)... Ozeano gehiena gurutzatu dute, Florida eta Indietaraino, Norvegia, Ingalaterra, Irlanda eta hainbat irletara, lemasain iaio eta eskarmen-tu handiko bezala'" (J. CARO BAROJA)

J. Caro Baroja (Madrid, 1914), historilaria eta etnologoa da. Historia, etnologia eta linguistikari buruzko ikerlan ugari du. Euskal Historiaz eman dituen lanengatik da batez ere ezaguna; baina beste hainbat ikaslan ere badu bere argitalpenetan: Saharari, Granadako moriskoei edo Penintsula Iberiarreko beste herriei buruzkoak, adibidez.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n ikus litezke argibide ugariak, bai garaiko euskaldunen itsas teknikak ulertzeko eta baita Aurkikunde berrietan zein testuingurutan ziharduten konprenitzeko ere: 192-207. orr.

EGITEKOAK

- a) Seinala mapa batean XV. eta XVI. mendeetako Aurkikunde berriak. (Bidaiak, datak, kontinente "berriak", abentura horietako protagonistak, etab.).
- b) Mapa berean koka zeintzu produktu aurkitu zituzten europatarrek lurralde horietan.
- c) Europako mapa batean komentatu lau erreinu hauen egoera politikoa (harremanak, erreinu-barrutiak, aliantzak, bakoitzari zegozkion Aurkikundeak, etab.): Gaztela, Portugal, Ingalaterra eta Frantzia.
- d) Konpara Afrikaren benetako profila eta XVI. mendekoa. Sailka diferentziak (ik. 183. orr.).
- e) Hego Amerikako mapa batean koka jatorrizko kulturen barrutiak.
- f) Antza denez, euskaldun askok hartu zuen parte bidaiari haiei. Zer dakizu honetaz (pertsonea ezagun baten biografia kontatu).

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik dio Aurkikundearen aroa euskal izenez jantzia dagoela?
- b) Zein faktorek bultzatu zuen lurralde berriak bilatzera?
- c) Bidaiari horietan parte hartu zutenak zeintzuk ziren (jende arrunta, goimailukoak...)?
- d) Bai al dakizu zer ziren espeziak? Zertarako balio dute?
- e) Euskal marinelak nonen zerbitzuan aritu ziren XVI. eta XVII. mendeetan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1492

Kolonek bere bidaietan idatzitako liburutik hartutako agiria dugu hau. Egunez egun gertatutakoaz idazten zuen, eta burutzen zuten bidea edo aurkitutako irlak eta gauza harrigarriak deskribatzen zituen. Erregeei zuzendutako txosten baten gisa egin zuen, eta, horregatik ere, ez du objektibitate handirik, indiarren inozokeria eta fede ona azpimarratzen dituenean, adibidez.

"Nik, neurekin dakardan jende honekin, beldurrik gabe ikustatuko nituzke irla hauek, isan ere ikusia bait dut, gure marinetatik hiru lur lehorrera jaitsi eta han zegoen indiarren jendetsak nola ihesegin zuen, inolako kalterik egin gabe. Ez daukate armarik haiek, eta biluzik dabiltsa, eta ez dute armatan inolako trebeziarik eta oso koldarrak dira: milak ere ez luke zer eginik hiruren kontra. Eta honegatik onak dira agindutakoa egiteko, eta lanean jartzeko, ereiten eta antzeko lanetan ibiltzeko; hiriak jaso, jantsita ibiltzen erakutsi, eta gure ohituretara ekartzeko ere onak dira". (KOLON, 1492)

K. Kolon (c. 1451-1506). Gaur egunean oraindik ez dugu honen bizitza guztiz ezagutzen, bizitzako azken urtetakoa ez bada. Italiarra zen, edo Italiako gurasoak zituela ematen dut (dialekto genovarrez ongi mintzatzzen bait zen). Lisboaara joan zen, eta bertan ezkondu. Afrikako kostaldea eta irlak ere oso ongi ezagutu zituen. Nabigaziorako prestakuntza ona eskuratu zuen bidaiariari, geroakoak ere burutu ahal izateko.

Aurkitzaile eta konkistarien asmo kolonialak ezagutzeko, begira "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n: arrazoi politikoak, 181-185.; arrazoi sozio-ekonomikoak, 185-190.; arrazoi politiko-ideologikoak 190-192. Geroagoko kolonialismoarenak: "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n: 84-93. orr. eta hurr.

EGJTEKOAK

- a) Atlas historiko batean ikus Kolonek egindako lau bidaiak: aipa bakoitzean aurkitutako lurrak.
- b) Bide berria aurkitzeko zituen arrazoiak ere aipa, "Mendez Mendeko"ko argibideez baliatuz.
- c) Bere proiektua Portugalen aurkeztu zuen Kolonek, Gaztelan baino lehen. Zergatik ez zioten jaramonik egin?
- d) XVI. mendean Penintsula Iberiarreko bi erresuma izan ziren horizonte geografiko berriak ireki zituztenak. Zergatik suertatu zen hori horrela?

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik "indiar" izena ematen zaie Amerikako bizilagunei?
- b) Indiarren ezaugarriak zeintzuk dira, Kolonen ustez.
- c) Zein helburu eta interes erakusten ditu Kolonek bere deskribapen honetan?
- d) Nola hartu zituzten Gaztelan Kolonek egindako bidaiak eta emandako deskribapenak?
- e) Bai al duzu eritzi eginik hemen esaten denaz? Zer diozu horretaz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Erdi Arotik zetozen ideia politikoak ematen dizkigu testu honek, Espainiak XVI. mendearen hasieran bizi zuen kolonizazio-giro eztabaidatsu batean, Gaztelako erret botereari oinarri teoriko batzuk emanez. Mundu Berriaren konkistarako ideia eta kontzeptu zaharrak darabiltza autore honek, hemen dokumentu historiko bezala har dezakegun honetan.

"Munduaren jaun bezala, iragandako Aita Santuek, oraingo honen aurretik dignitate eta aulki hartan izan direnek alegia, aipatutako Errege-Erreginei eman zizkieten Itsaso Ozeanoko Irlak eta Lehorralde Irmoa: Haiei eta hauen ondorengoei, haietan aurkituko zuten oro. Diotenez, hala esaten da eskritura batzuetan; horrelakorik nahi bazenu, irakur ditzakezu, noski. Beraz, Majestateok Irla eta Lehorralde Irmoetako Errege eta Jaun dira, dohaintza haren arabera. Eta eskubide hau aditzera eman zaien irlek ontzat hartu dituzte Majestateok, obeditu eta zerbitzatu egin dituzte, menpekoek egin behar duten eran borondate onez eta inolako erresistentziarik gabe".
(D. DE ENCINAS, 1531)

Mundu berriaren Aurkikundeak Nazioarteko Zuzenbidearen oinarria eta erizpideak bete-betean ikutu zituen, izan ere Aurkikunde haiek Europako Monarkien eta interes ekonomikoen irrikak piztu egin bait zituen. Nazio aurkitzaileen eskubideak, garaiko pentsamendu politiko-erlijiosoaren arabera indartu nahi izan ziren. Horretarako, pasarte honetan bezalatsu jarri ziren Koroaren eskubideen zimentarriak.

Begira "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 190-192. orr., eta kapitulu oso horretan zehar komeni dena; orobat "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 234-238. orr.

EGJTEKOAK

- a) Esplikatu itzazu zeintzuk izan ziren Ameriketako konkistaren arrazoizko-tasunak (ik. "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 216. orr.).
- b) Zer ziren Aita Santuek emandako Buldak?
- c) Zergatik onartu zituzten menpekotasunez Ameriketako biztanleek Europatik iritsitako konkistariak?
- d) Nolakoa izan zen herri eta zibilizazioen topaketa europarren eta amerikarren artean? ("Mendez Mendeko Aro Modernoa": 223-223. orr.).

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zeintzuk izan ziren kolonizazioaren ezaugarri onokorrak?
- b) Nolako biztanleria zen Ameriketakoa? Europarrekin topo egitean, zer gertatu zen Mundu Berriko bizilagunekin?
- c) Zer esan nahi dute: esklabu-merkatalgoa, Ameriketako ustiapen-sistema berria, merkatal monopolioa, Casa de Contratación-ek? (Ik. "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 227, 230; "Mendez Mendeko Aro Garaikidea": 470-476. orr.).
- d) Kontinenteen arteko harreman ekonomikoak zein ondorio ekarri zuten?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. orr.; II.: 32. orr.) nahiz monografikoak (35. orr.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1488-1520

Aurkikunde geografikoen arrazoiak aztertzeak ere jakinmin handiak sortu ditu Historiografian. Garai batean arrazoi ideologiko eta erlijiosoak besterik aipatzen ez bazituzten ere, gaur egun arrazoi ekonomikoak dira gehien erreparatu ohi direnak. Historiografia guzti horri esker, aurkikundeak geroz eta hobekiago ezagutzen ditugu.

XV. mendearen azkenetan eta XVI. hasieran, hiru bidai molde bereizi behar dira Ameriketako Aurkikundeetan, Penintsula Iberiarra ezezik gainerako europarrak ere gogoan hartuz:

a) Espainiak Ameriketako Mediterraneo-ra (Karibe-ra) egiten zituen bidaiak. Kolonek erakutsitako bideari jarraikitzen zitzaion holakoetan.

b) Ameriketako ipar-mendebalderantz egiten ziren bidaiak: ez mediterraneanren eta bereziki Bristol-eko marinelen bidea da hau, eta Asia-rako pasabidea bilatzen zuten.

c) Santo Domingo eta Kuba abiapuntu bezala hartuta egindako bidaiak; kontinentea ezagutu nahi dute eta, ahal dutela, Zipango-rako pasabidea aurkitu. Azkenik, Pazifikoa aurkitu eta konkistetarako bidea urratuko dute". (CHAUNU, 1973)

"Baliozko produktuen bilaketa seriosa eta praktikoa, batez ere urre eta espeziarena, izan zen europarrak mundura hain biskorki eraman zituen arrazoirik erabakiorrena. Horregatik ireki zen, batez ere, Europa mundu osora. 1488an biratu zuten Itzaropen Oneko Lurmuturra; 1492an aurkitu ziren India Mendebaldarrak; Indiaraino, itsasoz, lehenengo aldiz 1498an heldu ziren portugesak; 1500ekoa da Brasil-en lehen deskribapena; Balboa-k 1513an, alde aurretiko usteak itsaso 'berri' bat ikustean birretsi zituenean, Amerika kontinente bereziztat ezagutu zen. 1520an ingurubiratu zuen Magalhaes-ek Hego Amerika". (J.R. HALE, 1972)

Pierre Chaunu, historilari frantsesa da, eta, oro har, beraren lanak europarren hedapen koloniala aztertu izan dute, XIII.etik XVIII. mendertekoa batipat. Chaunu-ren obra handia, Sevilla eta Atlantikoari eskainitakoa da. -- J. R. Hale, historilari britainiarra da, eta Britainia Haundiko Unibertsitateetan irakatsi izan du: Warwick, Londres, Oxford. Italiara irakatsi zuen, eta Historian Aro Modernoa. Batez ere, Ernazimentuko pentsamendu politikoa, aurkikunde geografikoak eta gertakari militarrik aztertu ditu. Eta 1480-1520. urteetako historia europarraren laburpena eskaini du: "Renaissance Europe" ("La Europa del Renacimiento"). Siglo XXI).

Aurkikundeei dagozkien albisteak nahikoa xeheki dauzkazu "Mendez Mende. Aro Modernoa"n, kapitulu oso batean: 177-232. Aurkikunde-bidaien arrazoi ekonomikoak ezagutzeko: 185-190. orr.

EGJTEKOAK

- a) Vasco da Gama-k 1498an egin zuen bidaiak kopia Atlas historiko batetik, eta ikus zenbat denboratan burutu zuen ere.
- b) Kolonek egindako lau bidaiak ere ikus, eta deskriba.
- c) Zergatik jarraitu zituen Ozeanoan zehar hain bide zuzenak, eta Karibean hain bestelakoak?
- d) Begira Atlas batean Penintsula Iberiarraren lekumendua: zein alde on edo txar izan zitzakeen ondoren gertatu ziren Aurkikundeetarako?

ERANTZUTEKOAK

- a) "Itzaropen Oneko Lumuturra", "India Mendebaldarrak", "Amerika", "Magal-haeszen Itsastartea", etab. XVI. mendean jarritako izenak ditugu. Bakoi-tzaren jatorria edota arrazoia azalduko ote zenuke?
- b) Zergatik ziren espeziak merkatalgorako hain garrantzitsuak?
- c) Ados al zaude autoreak Aurkikundeak azaltzean ematen dituen arrazoiekin? Aipatu zuk ere beste hiru arrazoi edo zergati.
- d) Lontu al zuten helburu ekonomikorik? Nola?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1511

XVI. mendean bertan, gogor salatu zen indiarrek jasan behar zuten egoera latza, batez ere egunero-ko lan astunak egitera bortxatu zituztenean. Hitz hauek indiarren eskubideei buruzko eztabaidak piztu zituzten elizgizon eta legegizonen artean, eztabaida biziak sortu ere.

"Zein eskubiderekin eraso diezue, gerra anker batez, jende hauei, bake-bakean beren herrian bizi ziren hauei? (...). Zergatik usten dituzue horrela, erabat denegaturik? (...). Zuek akabatzen dituzue, egunoro urrea ekar dezatela eskatzean. Eta arduratzen ahal zarete horiei gure erlijioa irakasteaz? Ez ote dira, ba, gizakiak? Ez ote dute, gero arrazoimenik, arimarik? Ez ote duzue, ba, zuek zeuron buruak bezalaxe, horiek ere maitatu beharrik? Egon seguru: Burubide horrekin, ez duzue mairu edo turku batek baino salbabide hoberik zuek". (ANTONIO DE MONTESINOS, 1511)

Antonio de Montesinos (+ c. 1526), fraide domingotarra zen; Hispaniola irlan indiarren eskubideen defentsan emaniko hitzaldiagatik sona handia irabazi zuen. Indietarako legeria berria egin nahi izan zenean, (Burgos-eko Legeak), Montesinos-ek esku zuzena izan zuen. 1523an, Hispaniola-ra itzultzean bere Ordenako komisario eta Indiarren babestaille izendatu zuten.

Konkistak eta kolonizazioak sortutako arazo teoriko eta eztabaidak zein testuingurutan lehertu ziren ezagutzeko, begira "Mende Mende. Aro Modernoa"n 216-222. orr. Eta herrien eta zibilizazioen arteko gatazka praktikoak ezagutzeko: 223-227. orr. Ikus, gainera, "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 243. orrialdeko estatistikak.

EGJTEKOAK

- a) Hispaniola deituriko irla lekutu mapa batean. Azaldu laburki haren datu geografiko eta historikoak.
- b) Egin ardatz kronologiko bat. eta Aukikundeetako gertakari aipagarrienak koka bertan.
- c) Entamerikako mapa batean indiarren jatorrizko kulturak beren herrialdeetan eman.
- d) Montesinos domingotarraz aparte, indiarrek izan zuten beste defendatzaile teorikorik: Las Casas, F. de Vitoria, Tomas Zumarragako, etab. Zer dakizu hauetatuz?
- e) Bai al dakizu zer zen gomendakina ("encomienda") izeneko produkzio-sistema?
- f) Hartu "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 223. orrialdeko irudiak: zer diozu horietaz?

ERANTZUTEKOAK

- a) Montesinos-en agiri hau irakurritz, nola deskribatuko zenuke indiarren eskubideen egoera?
- b) Iduri du Montesinos-en garaian indiarren eskubide-etzabaida hasia zela. Nortzuen artean, ondea? Egin jokabide desberdinen laburpena.
- c) Zure ustez, noni zegokion kritika hau? Zergatik?
- d) Nola eta zertan aprobetxatzen zuten kolonoek indiarren lan-indarra?
- e) Antza denez, kolonoak arduratsu ibili ziren indiarrok kristautzen. Zer deritzozu kolono haien jokabide honi?
- f) Nola mehatxatzen ditu Montesinos-ek, indiarrek pertsonak bezala hartzen ez dituztenak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Beltzen merkatalgorako Erregeak, hitzarmen baten bidez, norbaiti ematen zion monopolio-eskubideari deitzen zitzaion "asiento". Amerika aurkitu zenetik berezikiago, sekulako negozioa izan zen beltzen salerosketa eta haien garraioa. XVI. mendea, artean ez zen izan negozio handienena garaia, baina geroko sistemari orduan jarri zitzaizkion oinarri eta ohitura juridikoak. Kristauak, arabiarak eta Afrika-barneko jauntxoak, denak, elkartu ziren negozioa antolatzeko.

"XVI. mendearen hasieratik 1595eraino ez zen egon 'asiento' orokorrik. Koroa espainolak merkatari partikular batzuei hainbesteko esklabu-kopuru ezberdinak ekartzeko eskubidea ematen zien: 4.000, 1518an, Laurent de Gorrevod-i. (...); beste 4.000, 1528n H. Ehinger-ekin egindako hitzarmenean. (...). XVI. mendearen erdialdera, Sevilla da lizentzia hauek negoziatzeko diren azoka handia.

Baina portugesak dira benetako esklabu-hornitzaileak. Espainia eta Portugal-eko Koroak bategitean (1580), haiek areagotu egin zuten beren nagusitasuna esklabu-trafiko horretan. 1595etik aurrera Portugal errebolatu arte (1640), Lisboa-ko merkatariekin sinatu zituzten 'asiento' orokorrak Errege espainolek: Koroari buru bakoitzeko 20/25 dukat ordainduz, urteoro 4.000/5.000 esklabu Mendebaldeko Indietara sartzeko monopolioa aitortzen zitzaion 'asientariari' (...). Mende-erdi batean, 150.000 beltz eraman ziren Ameriketara legez, kontrabando bidez sartutakoak kontatu gabe".

(J.-P. BERTHE)

Hemen aipatzen den beltzen esklabutarako merkatalgoa europarren kolonialismoari oso lotuta gertatu zen. Fenomeno historiko hau eta Ameriketako minoria beltzen eskubideen arazoak interes berri batekin begiratu direnetik, gaur eguneko historiografiak arreta handiagoa jarri du merkatalgo haren historia jasotzen.

Esklabutzaz, oro har, eta beltzen merkatalgoaz hainbat langai aurkitu ahal izango duzu "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: 188, 225. orr. Orobat, ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 232, 250, 251, 273, 294-295, 298, 313, 328, 330, 405, 470-476 (Afrika) orr. Ik., nahi bada, "Historia/1": 56, 66, 101, 122. orr.

EGJTEKOAK

- a) Bila itzazu. Europako historian zehar, sistema esklabistak praktikatu dituzten herriak.
- b) Esplika ezazu esklabu-sistemaren esanahi sozio-ekonomikoa.
- c) Azter ezazu gaur egungo munduan esklabismoak suposatzen duena.
- d) Zein da zure eritzi pertsonala XVI. mendeko esklabutzari buruz? Zergatik?
- e) Ikusi dituzun filmeetan esklaburen bat protagonista izan bada, nola agertzen zen berai? Laburtu eta komentatuko al zenuke han ikusitakoa.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk izan ziren indiarren bi defendatzaile garrantzitsuenak? Zer da beraien buruz dakizuna?
- b) Zer ziren Gaztelaren eta Portugalen artean sinatutako nazioarteko tratatuak?
- c) Zer da Nazioarteko Zuzenbidea? Nork jarri zituen honen oinarriak?
- d) Zeintzuk izan ziren kolonizazioaren ezaugarri orokorrak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1524-1786

Agiri historiko-ekonomikoak dira hemen elkartu ditugun bi hauek. Hemen, Monarkia "argiztatuak" kolonietarako antolatutako erreformak ikus daitezke: Razionalizazioa ekonomian, printzipio nagusia zen haientzat, eta hau lortzeko bien arteko koordinazioa eta produktibismoa indartzea nahitaezkoak ziren, honelaxe elkar-dependentsia horretan, gainera, uste zenez.

"Monarkiaren konstituzioari jarraikiz, komeni da Ameriketara lur-gintza, eta hango isadiak oparo ematen dituen laboreak, biskortzea, batez ere Espainiako lantegietako lan eta manufakturetarako lehengaiak direnean. Honela, aldeberean, bi kontinenteen merkatalgoa zaindu eta lagundu egiten da". (Indietako Kontseilua, 1786)

"Errepublikak batekobarne-ekonomia betiereko altxor bat da. Espainiak katea bat bezala begiratu behar du bere merkatalgoan, itsasoz harantzaldeko lurralde zabalak bere buruari lotuta gorde behar dituen katea bezala; baina Espainiak, Amerikak baino aberastasun handiagoak dauka bere baitan ea horregatik areago saiatu behar du seguruko hauek zaintzen, galsorian dituen haiek gordetzen baino. Flandes galdu genuen, Italia galdu genuen, zergatik ez ditugu Mexiko eta Peru galduko? Eta kasu honetan, zer egin behar dugu munduan?". (CONDE DE CAMPOMANES, 1723-1802)

Indietako Kontseilua 1524ean sortu zen eta Administrazio absolutistak bere gisara eratu zuen. Mendebaldeko Indiekin (Amerikarekin) zerikusirik zuten arazoez arduratzen zen. Erreforma "argiztatuak" bultzatzeko, XVIII.ean politiko berriak eta ideia berriak eraman nahi izan ziren Kontseilura eta Ameriketako politikara: Campomanes gobernuburua (1786) izan zen horietako bat: legegizona, ekonomista eta politikoa.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n daukazu testuinguru historikoa: ekonomiaz, 228-232. orr.; Despotismoaz, 426-428. orr., eta Amerikaz, oro har, "Mende Mende. Aro Garaikidea"n: 239-243. orr.

EGITEKOAK

- a) Agirian ikusitako asmoen arabera, badirudi Amerika Kolonial modernoa ustiapen-kolonia bilakatzea espero zutela. Zer da ustiapen-kolonia?
- b) Zer nolako koloniak zituen Espainiak erreforma hauek baino lehenago?
- c) Lortu al zuten aldaketa hau burutzeko?
- d) Bizitza luzea izan al zuen sistema ekonomiko erreformatuak?

ERANTZUTZEKOAK

- a) Goian apuntatu dugun bezala Agiriaren ideia nagusia kolonietako egoeraren nazionalizazioa da. Zer proposatzen dute hori lortzeko?
- b) Nola etorri zen Penintsulara erreformen izpiritu hori?
- c) Zertan datza Despotismo Ilustratua?
- d) Nazioarteko oireka politiko berrietan zein arrisku izan zezakeen sistemak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Agiri historiografiko honetan gai nagusia ekonomikoa dela esan dezakegu. Kontratazio-Etxeak betetzen zituen funtzioak azaltzen dizkigu laburki. Monarkiak, Amerika aurkitu eta kolonizatzen hasi zenetik, beharrezkoa ikusi zuen hango egitekoen ardura politiko-ekonomikoa izango zuen erakunde bat sortzea. Kontratazio-Etxea izan zen, hain zuzen, horretarako jarri zena.

(Erakunde honek egiteko nagusi hauek izan zituen, 1503-1778:)

"1. Nabigaziorako lemasainak eduki behar zituen. Hauen egitekoa zen, gainera, Indietan ontsien lemasain izan nahi zutenak alde aurretik astertzea.

2. Kontratazio-Etxeak eman behar zituen, mapetan, egindako Aurkikundeen ondorioak. Lemasain nagusien eginkizuna zen hau, erret lemasainek eta etreko kosmografoek lagunduta.

3. Ontzi, merkatari eta merkatalgaien kontrola Kontratazio-Etxearen ardurapean zegoen.

4. Koroari zegokion 'erret bostena' bildu behar zuen, gainera, Monarkiaren gastuetan laguntzeko". (F. MORALES PADRON, 1962)

Francisco Morales Padrón Amerikako historiari (Aurkikunde eta independentziaren artean) espezialista famatua dugu. Sevillako Unibertsitatean Amerikako departamentua zuzendu du. Sevillako tradizio historiografiko amerikanistan sartzen da Morales Padrón.

"Mendez Mendeko Aro Modernoa"n kapitulu gehiena irakurri nahi ez bada, 200-232. orr. komeni liteke behintzat 223-232. orr. begiratzea, Kontratazio-Etxearen eginkizunen zentzua ulertzeko.

EGITEKOAK

- a) Agiria irakurri ondoren ikus "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n 'aurkitzaileren gizartea' pasartea: 192-194. orr. Nola lotuko zenuke horako informazioa, Erregeek Amerikarekiko egitekoak Sevilla-n biltzearekin? Egizu idazlan labur bat.
- b) Egizu grafiko bat Kontratazio-Etxearen betekizunak aditzera emanez.
- c) Mapa batean eman Sevilla-tik Ameriketarako ohizkoak ziren itsas bideak.
- d) Penintsula Iberiarraren mapa batean adieraz zure ustez Amerikako merkatalgorako izan zitezkeen beste abiapuntu batzuk ere. Arrazoiak eman, diozuna argituzko.

ERANTZUTEKOAK

- a) Portu jakin batean merkatalgo amerikarra kontzentratzeak, zein alde on edo/eta txar izan zezakeen Gaztelako Korwaren hainbat lurralderentzat?
- b) Begira "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n 193. orrialdeko irudia: Zer esango zenuke Sánchez Coello-ren koadro honetan ikusten duzunaz?
- c) Noiz arte luzatu zen monopolio sevillarra? Zeintzuk izan zitezkeen aldakuntzaren arrazoiak?
- d) Euskal Herrian ondorioz izan al zuen merkatal politikaren aldakuntzuk?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

c. 1511-1525

Agiri hau testu historiografikoa da, eta J.R. Hale historilariari hartu diogu testu argigarri hau; hain zuzen, XVI.aren hasierako Elizaren sistema ekonomikoan ageri ziren ohiturak erakusten dizkigu beronek. Hierarkiaren eta herritarren artean gardentasuna falta zen. Burubide hauen kontra altxatu zen Luter-en ahotsa.

"Albert Brandenburg-ekoaren kasua eskandalagarria zen. Mainz-eko Artzapezpiku bilakatu ondoren, Magdeburg eta Halberstadt-eko apezpiku izaten ere utzi zitzaion aldi berean. Hogeitabost urte zituen orduan. Horretarako eskubideagatik ordainkizun astunak ezarri zituzkion, ordea, Aita Santuak. Erantzukizun ekonomiko horiei aurre egiteko Fugger-tarregana jo behar izan zuen, mailegu bila. Hala ere, Leon X.a Aita Santuak diru-bilketarako beste aukera eskaini zion: Albert-en eliz-barrutietan, San Pedro elizaren eraikuntzarako egingo zen indulgentzi predikaldian jasotakoaren erdia eman zion Aita Santuak Artzapezpikuari". (J.R. HALE, 1972)

J. R. Hale, historilari britainiarra da, eta Britainia Handiko Unibertsitateetan irakatsi izan du: Warwick, Londres, Oxford. Italiara irakatsi zuen, eta Historian Aro Modernoa. Batez ere, Ernazimentuko pentsamendu politikoa, aurkikunde geografikoak eta gertakari militarrek aztertu ditu. Eta 1480-1520. urteetako historia europarraren laburpena eskaini du: "Renaissance Europe" ("La Europa del Renacimiento". Siglo XXI).

Ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa": Bostgarren kapitulu osoak balio dizu, berez: 233-288. orr.; baina testu honetako arazoak lantzeko batez ere ik. 244-247. orr.

EGITEKOAK

- a) Koka mapa batean agiri honetan ugartzen diren lekuizen hauek: Brandenburg, Mainz, Magdeburg, Halberstadt, Erroma.
- b) Galde Parrokian edo erlijioiko irakasleari egungo eliza batek zein diru-iturri dituen.
- c) Oraindik une hartan Eliza Katolikoren Erreforma egin gabe zegoenez, begira ezazu zeintzu ziren garai hartako Elizaren diru-iturriak.
- d) Ikus hiztegi historiko batean: Fugger, Leon X., Luter, indulgentzi predikaldiak, S. Pedro eliza.
- e) Ikus hiztegi batean: mailegua.

ERANTZUTEKOAK

- a) Albert Brandenburg-ekoak zein kargu zituen aldi berean?
- b) Albert Brandenburg-ekoak zerren trukez lortzen ditu eskubide hauek Aita Santuarengandik?
- c) Autorea zertan oinarritzen da kasu hau eskandalagarria zela esateko.
- d) Fugger-tarrak zer eginkizun izan zuten Albert Brandenburg eta Aita Santuak egindako tratu ekonomiko honetan?
- e) Zein zen indulgentziei buruzko Luter-en tesia?
- f) Trentoko Kontzilioak, zein erabaki hartu zituen eskubide hauei buruz.
- g) Zein da testuaren pentsamendua bere osoan?
- h) Zein ondorio aterako zenuke agiri honetan esaten direnetatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1521

Testu guztiz laburra aukeratu dugu hemen, baina testuinguru historiko oso berezikoa izateaz gain, interesik handiena du, Erreforma luterarraren garaikide batek berak ere, mugimendu protestantearen erro sozialak hain argiro ikusi zituela erakusten digulako. Bestalde, garaiko gizarte alemanaren sentiera eta indarra azpimarratzen ditu. Nolabait ere, Erreforma guztia fraide setati baten burugogorkeria zela uste zezaketenen kontra idatzita dagoela esango luke batek.

(Erreforma protestante jaio berriaren alkantzu soziala Alemaniatik honela ematen zion aditzera Nuntzioak Erromari:)

"Luter mila bider hilda ere, beste mila Luter jaioko dira, eta badirudi Hutten horrek ere, inbiri eskuturen batek zirikatuta edo, bere lehentasuna nahi lukeela. (...). Hura hilda ere, gainerako noblesia honek eramango du, bai, aurrera hasitako ahalegin hau".

(Alexander Nuntzioak, 1521)

Jeronimo Alexander, humanista-ohia, Aita Santuaren Nuntzioa zen Alemanian, eta hain zuzen Luter-en mugimenduari hesia jartzeko izan zen bidalia hara. Inperioan Erreformari nolabait aitorten ofiziala emango zion Worms-eko Dietan hartu zuen parte (1521). Han egon zen Luter, epaitua izateko. Alexander-en borondatearen kontra hitz egin zuen, Dietaren eta Karlos V.aren aurrean. Luter-ek bere buruaz egin zuen defentsak oihartzun zabala izan zuen Alemanian. Alexander-ek Erromara bidalitako gutun hau ere honen ispilua da.

Erreformak izan zuen bere alde sozio-ekonomiko eta politikoa. Ikus horri buruz: "Mendez Mende. Aro Modernoa": 244-247. orr. Alemaniatik kanpo ere bai: 251-253. orr. Eta ez zitzaion alde kulturalik falta izan: ik., liburu berean, 240-243. orr. Luter-en doktrina: 250. or.

EGJTEKOAK

- a) Seinala itzazu, Europako mapa batean Protestantismoaren erdigune nagusiak, eta beraietatik eratorriak.
- b) Bila ezazu, ahal baduzu, Luter erreformatzailea herri alemanarekin lotzen duen beronen idazlanen bat (1520).
- c) Zure herrian edo hirian Eliza Ebanjeliko luterarrik balego, egiozu ikustaldi bat bertako Artzainari: Luter-ek gizarte alemanari zer berririk eman ziola uste du berak.
- d) Euskal Herrian dauden protestanteei buruz albisteen bat bilatuko ote zenuke? Elizbarrutiko Batzorde Ekumenikoari galdetuz bila zenezake zerbait.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk izan ziren Erreformaren arazo sozio-politikoak?
- b) Zer zioten Luter-en proposamenek?
- c) Zertan laburtzen da Luter-en doktrina?
- d) Zeintzuk izan ziren erreformatzaile garrantzitsuenak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1517-1555

Arrazoi sozio-ekonomikoen ondoan, leku nabaria izan zuten Erreforma protestantearen sorburuetan arrazoi eta eritzi teologikoen ere. Batez ere, erlijiotasunez blai eginda bizi zen XVI. mendeko gizarte hartan areago oraindik. Erreformaren jaiotunetik bertatik arazorik larrietakoa fededunaren eta Jainko salbatzailearen arteko harremanena izan zen. Hauxe zen Luter bera ere hain barnetik kezkatzen zuen galdera.

"Doktrina benetan iraultzailea eskaini zien Luter-ek bere garai-koei. Harreman berriak esarri zituen Jainkoaren eta gizakiaren artean; gisa berri batez azpimarratu zuen Jainkotasun ezkutu eta agertuaren paradoxazko izaera. Teologia lutertarrak, lehenago ezzaguna zen jaiera-modu bat sortu zuen. Izadiaren gaizkia, Jainko-haserrearen aurrean dugun bekatu-izua, Jainkoaren eskakizunen aurreko giza erantzun-ezin osoa: hori dena poz eta kontsola-mendu-iturri bihurtzen da Luter-engan".

(K. HOLL)

Doktrina teologikoen eragin historikoa, mentalitate-aldakuntzen historiaren barnean begira liteke, eta gaur egun halaxe aztertu du hainbat historikaririk. Aldakuntza sozialen aurpegi bat izango litzateke; hain zuzen, XVI. mendeko ezinegon sozialak erlijio-espresabidea aurkitu ohi zuten berehala, garaiko pentsamoldeei jarraikiz. Otoitza bera ere, gertakari sozial aldatzailea zen garai haietan.

Ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa": Erreformaren alde kulturala, 240-243. orr.; 247-249. orr. Luter-i buruzkoak; eta doktrina lutertarrak ezagutzeko, ik. 253-256. orr.

EGITZEKOAK

- a) Seinala itzazu Europako mapa batean doktrina protestantea onartu zuten nazioak.
- b) Eman lauki batean Luteranismoa, Kalbinismoa eta Anglikanismoaren ezau-garri garrantzitsuenak.
- c) Adieraz itzazu --hau ere lauki konparatibo batean-- Erreformako hiru adar handien sorrera-ezaugarri ezberdinak.
- d) Bila ezazu otoitz-liburu protestanteren bat (Luter-ek, adibidez, kantu erlijioso eta otoitz ederrak ditu).

ERANTZUTEKOAK

- a) Nor zen Luter? Aipa itzazu haren bizitzako datu aipagarrienak.
- b) Esan ezazu Kalbin eta Zwingliori buruz dakizuna ("Mendez Mende. Aro Modernoa": 261-263. orr.).
- c) Gogora Ingalaterrako Enrike VIII.aren bizitzako datu batzuk.
- d) Zer dakizu John Knox eta Teodor Beza-ri buruz? ("Mendez Mende. Aro Modernoa": 260, 266. orr.).

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Erljio-bizitzaren eta ekonomi jokabideen arteko zerikusia eta, berezikiago, Erreforma protestantearen eta ekonomi molde kapitalisten arteko loturak arretaz aztertu dituzte historilariak. Ekonomiaren nahiz Elizaren historiatic begiratu da arazoa, eta puntu baterainoko adostasunak lortu dira bederen.

"Oro har, ados daude historilariak, protestantismoak kapitalismoaren gain izan duen eragina aitortzean, baina estabaida dago eragin horren modiaz.

Weber eta Troeltsch-en arabera, gisabanakoari emandako egitekoa aspimarratu zuenean, Kalbin-ek eginkizunak ahalik ongien betetzera bultzatu zituen bere segitzaileak, izan ere konbentzitura bait zeuden horixe zela beren betebeharra.

Denbora berean, aszesi kalbindar latzak edozein gehiegizko gozamen debekatu egiten zuen eta, kontsumoa mugatzean, kapitalaren metaketa errazten zuen". (G. MARTINA, 1974)

Martina, historilari italiarra da; zalantzarik gabe, Elizaren Historia gisa moderno eta bizi batean ematen saiatu da. Cristiandad editorialean topa liteke lau liburuki erabilgarritan Elizaren azken lau mendeetako historia: Erreforma, Absolutismoa, Liberalismo edo Totalitarismoa eta Eliza. Arazo eztabaidatuak ezagutzeko egokia da.

Erreforma protestanteaz hainbat langai aurki dezakezu "Mende Mende. Aro Modernoa"n: 234-271. orr. Laburrago eta gaiari lotuagorik nahi baltiz, begira: 244-247, 257-258, 265-266. orr.

EGJTEKOAK

- a) Mapa banatan ikus lurralde protestante eta kalbinistek herrialde kapitalistekin duten kidetasun geografikoa: erakus bi mapetan zer gertatu den historian.
- b) Komentario kritiko bat egiozu hortik sor litekeen hipotesiari?
- c) Eman mapa batean Europako garapen kapitalistaren lekugunerik garrantzitsuenak.
- d) Zein zen Kalbin? Eman Luter eta Kalbinen doktrinen arteko diferentzia nagusienak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Labur ezazu kalbinismoaren doktrina teologikoa eta beronek ekonomiaz edo gizarteaz izan lezakeen pentsamoldea.
- b) Zer zioen arazoaz Max Weber-ek?
- c) Kontsumoa mugatzea, bide egokia al da kapitalak metatzeko? Zergatik?
- d) Erantzukizun pertsonal eta sozialak berez bai al du zerikusirik aurre-namendu ekonomikoarekin? Zergatik bai? Zergatik ez?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1545-1562, 1962-1965

Testu historiko hau Trentoko Kontzilioan emandakoa da. XVI. mendeko Erreforma protestantearen aurrean, horrela definitu ziren Trentoko Kontzilio Katolikoaren xedeak. Eztabaida egon zen, Kontzilioak batez ere bizi-erreformatzaile ala heresien kondenatzaile izan behar zuen. Teoriaz, eta berehalako praktikaz, dogmaren kezka nagusitu zen bilera hartan. Eta Europako kristau-herria zatikatu ta geratu zen.

"Beste ezer baino lehen, gure garaiko heretikoen errore nagusienak kondenatu eta anatematizatu nahi ditu Sinodo santuak, eta egiazko doktrina katolikoa zabaldu eta irakatsi, eta halaxe egin du kondenatus, anatematizatus eta definitus".

(TRENTOKO KONTZ., 1545-63)

"Vatikanoko II. Kontzilio ekumenikoaren asmorik behinenetako bat kristau gustien arteko batasunaren berristapena sustatzea da. (...) Kontzilio sakratu honek, ba, pozez ikusten ditu ahalegin horiek; eta, Elizari buruzko bere doktrina asaldu ondoren, Kristoren ikasle gustien arteko batasuna berritzeko asmoz jainkosko dei eta grazia hauei erantzuteko modu, bide eta tresnak proposatu nahi dizkie katoliko gustiei".

(VATIKANOKO II. KONTZ., 1962-65)

Alde dogmatikoarekin batera, ohitura eta eliz disziplina berritzeari ere begiratu zion Kontzilioak. Han emandako legeek, mendetan gidatu dute Eliza Katolikoa. Trentokoa, zalantzarik gabe, ondoriorik iraunkorrenetakoak izan dituen Kontzilioa izan zen: gure egunetararte luzatu zen haren itzala. Europako potentzia katolikoek eta Eliza erromatarrak bide eta oreka berria ezarri zuten orduan erlijio arazoetan. Vatikanoko II.a izan da azken hamarkadetan ordukoari modernotasunean gaina hartu diona.

Ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa": 272-284. orr. Kapitulu osoa da, gainera, orduko testuinguru historikoa ezagutzeko egokia. Bi Kontzilio hauen arteko modernotasun-krisia ezagutzeko, "Mendez Mende. Aro Garaikidea" begira liteke: 190-215. orr. Filosofia eta zientzia modernoei dagozkienak ere interesgarriak dira, noski (129-156, 580-584, 638-653. orr., azken liburu honetan).

EGJTEKOAK

- a) Bila ezazu euskal Literaturaren Historiaren batean, Kontzilio honek Euskal Herrian izan zuen oihartzuna: doktrinak, sermoitegiak, Sinodoak, etab.
- b) Bila ezazu euskal protestanteei buruzko informaziorik. Zure herrian edo hirian etxe edo lagun protestanteren bat ezagutzen baduzu, galdeiozu zer dakien XVI. mendeko euskal Protestantismoari buruz?
- c) Autoreen artean eztabaida dago Erreforma Katolikoaz ala Kontrarreformaz hitz egin behar den. Begira ezazu, ahal baduzu, libururen batean arazoa: Zer deritzazu? Hemengo testu hau kontrarreformista da, ala ez? Zergatik. ("Mendez Mende. Aro Modernoa": 235-236. orr.).
- d) Galdeiozu herriko Erretoreari katolikoek ekumenismoa nola ikusten duen guur egun.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk izan ziren Kontrarreformaren indarrak?
- b) Nor zen S. Inazio Loiolakoa? Zer da hark sortutako Jesusen Lagundia?
- c) Zeintzuk izan ziren Trentoko Kontzilioan hartutako erabakiak?
- d) Zeintzuk dira Eliza Katolikoarentzat Trentoko Kontzilioaren ondorioak?
- e) Zer esan nahi du "Ekumenismo" hitzak? Idatziko ote zenuke mugimendu horren historia labur bat?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. 1550

Testu honek XVI. mendean gertatu zen erreforma erlijiosoaren arazo larri baten aurrean jartzen gaitu. Erreformatuak Erromarekin hautsi zuela garbi dago; baina, erlijio-mailan, eta beste edozein mailatan, erabaki pertsonalak ezinezkoak ziren orduan. Lurralde bakoitzean, bertako Printzeak erabaki zezakeen, eta beste guztiak haren esanetara egon behar zuten. Kontzientzi askatasuna utopia huts zen artean, eta, eskubide bezala, XVIII. menderate ez zen errebindikatuko.

"Erantsukizun isugarria heretikoaren pertsegizioarekin Aita Santuak bere gain hartu zuena; orobat, erreformatuek ere geroago. Jainkoaren ohoreaz eta arimen salbamenaz kezkatuta ari ziren XVI. mendeko intoleranteen asmo sakonek argitzen dute, noski, burubide hori. Miguel Servet sutara boteta izan zen Geneva-n, 1553ko urriaren 27an. Beza kalbindarrak heretikoaren kontrako bortxa-eskubidea eta haiek heriotzera emateko eskubidea onartu egiten ditu".

(G. LIVET)

Inkiszioa, espainola batez ere, izan zen bortxa erlijiosoaren paradigma. Eta, agian, izan ere halaxe izan zen; baina ez zen bortxatzaile bakarra. Aginteak (Estatuek, Elizek...) beren eritziak ezartzeko eskubidea zuen, nahiz eta, horretarako, indarra erabili behar. Eta eskubide hori garaiko guztiak erabili zuten, horrela, bidegabeki joka zezaketenik pentsatu ere egin gabe.

Tolerantziaren edo bortxakeria instituzionalaren historia oso jakin-garria da, eta "Mendez Mende. Aro Modernoa"n aurki dezakezu horretaz zerbait: 284-288. orr. (orokorki dihardu), 405 (juduak), 410 (justizia), 411 (ediktua). Adibide hurbil bat: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 543. or. (Auschwitz).

EGITEKOAK

- a) Egizu XVI. mendean Europan sortzen diren disidentzia erlijiosoen zerrenda, eta eman bakoitzaren sortzaile eta teorizatzaile nagusien izenak.
- b) Egin disidentzia erlijiosoen mapa bat.
- c) Eman, irakaslearen laguntzaz, Luteranismo eta Kalbinismoaren artean dauden desberdintasun nagusiak.
- d) Ikus Anglikanismoaren hastapenak. Aipa pertsonai eta momentu nagusiak.
- e) Kontsulta liburuetan, eta zehaztu, nola jokatzen zuen Inkisizioak.
- f) Zergatik erabiltzen ote du herriak "Hori da inkixixioa!" bezalako esaldiak?

ERANTZUTEKOAK

- a) Non hasi zen Kontrarreforma katolikoa? Ikus nola izan zen prozesua.
- b) Zein euskaldun izan zen oso garrantzitsua Kontrarreforma katolikoan? Zergatik?
- c) Zer gertatu zen Enrike VIII.aren eta Thomas More-ren artean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTE

1475-1516

Dakigunez, Gaztela-Aragoetako Errege Katolikoek zeregin erabakiorra izan zuten Penintsularen eraketa politiko eta sozial berria moldatzean. Aldakuntza haietan Euskal Herria ere tartean aurkitu zen, nahitaez, haiek piztu zituzten gatazka eta larriuneetan.

"Errege Katolikoekin euskal herrialdeak haien kezka eta zereginen gurdina uztartuta aurkitu ziren; honela, morisko eta juduen minorien irenspenerako politikan tartean hartuta gertatu zen Euskal Herria. (...).

Ezin dugu segi ausitegi ezberdinek Euskal Herrian bete zuten egitekoa, bates ere Logroñoko ausitegiak zorrotz jokatu bait zuen Euskal Herrian eta Nafarroako mendialdean. F. Idoate-k Nafarroako sorginkeriaz egindako ikasketak datu ugari dakar J. Goñi-k eta Caro Baroja-k emandakoaz gain". (T. AZKONA, 1985)

Azkona historilari nafarra, Errege Katolikoek erlijiosoa aztertzen saiatu da, bereziki. Pasarte honetan beste zenbait historilariaren izenak gogoratzen dizkigu (Idoate, Goñi, Baroja...): hauen bibliografia ezagutzea itxurazkoa izango da, beti ere, euskal historiaren arduratuarentzat.

Begira "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n 284-286. orr. Hor esaten denak badu, agiri honetakoarekin zerikusirik. Ik. "Euskal Herriko Atlas historikoa" ere. Aipatutako autoreen bibliografiak ere lagun zaitzake.

EGITZEKOAK

- a) Koka itzazu ardatz kronologiko batean Gaztela, Aragoa eta Nafarroako erregeak (XV. mendeak), Errege Katolikoen iritsi arte.
- b) Errege Katolikoen garaiko Euskal Herriko mapa bat har. Koka hiribilduak, itsas portuak, industrialdeak...
- c) Euskal Herriko mapa batean lekutu beste talde batzuetatik: juduak, moriskuak, ijitoak, agoteak.
- d) Euskal Herrian, sorginkeriararen aurkako prozesu bat baino gehiago egon da. Saiu zaituz horietariko baten historia laburtua kontatzen.
- e) Sorginkeriararen arazoa ukitzen duen filmen bat ikusi al duzu? Laburtu argumentua.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Nola interpretatzen duzu esaldi hau: "morisko eta juduen minorien irenspenerako politikan tartean hartuta gertatu zen Euskal Herria"?
- b) Eta beste hau: "Errege Katolikekin Euskal Herrialdeak haien kezka eta zereginen gundira uztauta gelditu ziren".
- c) Agirian Logroño-ko auzitegia aipatzen da: Zer dakizu tribunal honetaz? Zergatik eraman ziren Logroño aldera sorginkeriararen aurkako prozesuak?
- d) Ixuraz, tribunal hark gogor jo zuen Euskal Herrian: berri zehatzguzorik bai al duzu jakabide honi buruz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

1541-1564

Geneva "Protestantismoaren Erroma" bilakatu zen. Han finkatu zen Kalbin, 1541ean, behin betiko: gobernu teokratikoa ezarri zuen hirian. Genevarren bizimodua haren kontrolpean gelditu zen erabat. Fede berriak osorik arautu nahi izan zituen hiritarren jokabide soziala eta politikoa.

"Geneva-k, bere independentziaz hain harroak, askatasuna erabat galdu zuen. Irakurgaiak, jokoak, kantuak, oturuntzak: zaharrek kontrolatzen zuten dena, eta hiritar gustiek --borondatez edo bortzaz-- onbidean bizi behar zuten. Zaharren eskuhartze hauen adibide asko daukagu, zorrotzak bezain barregarriak: dantza, karta-joko eta nobela-irakurketa debekaturik, ile-mosketa eta luxua kontrolaturik; zirimonia publikoetako asistentzia zaindu egiten zuten, eta jendaurrean erretzen 'Amadis', garai haietan arrakastarik handienetakoa zuen nobela".

(G. MARTINA, 1974)

Martina, historilari italiarra da; zalantzarik gabe, Elizaren Historia gisa moderno eta bizi batean ematen sailatu da. Cristiandad editorialean topa liteke lau liburuki erabilgarritan Elizaren azken lau mendeetako historia: Erreforma, Absolutismoa, Liberalismo edo Totalitarismoa eta Eliza. Arazo eztabaidatuak ezagutzeko egokia da.

XVI. mendeko giro erlijiosoaz berri ugari daukazu "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: 284-288. orr. Oro har, kapitulu osoa ari da horretaz. Genevakoaz behar direnak jakiteko, ik. 261-271. orr.

EGJTEKOAK

- a) Geneva hiria atlas batetan kokatu ondoren, azter ezazu honen inguruan zeuden potentzien egoera.
- b) Egizu mapa bat Genevatik hedaturiko kalbinismoaz (ik., adibidez "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: 236. or.).
- c) Saiatu zaituz "teokratiko" hitzaren esanahia argitzen.
- d) Idatzi Kalbini buruzko biografia labur bat

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik dio agiriak Geneva hiria bere independentziaz harro sentitzen dela?
- b) Zure ustez, bizitzaren kontrol honekin, zein xede zuten Geneva-ko agintariek?
- c) "Amudis" arrakasta handiko liburua aipatzean, zein nobelaz ari da testua? Zer dakizu horretaz?
- d) Zer deritzozu Geneva-ko eguneroko bizitza horri? Hori gertatutakoa salbuespena zen, ala fenomeno orokorra?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XVI. mend.

XVI. mendeko intolerantziaren arazoa larrietakoa izan zen orduko europarren artean: erlijioa, gerra, ideien zigor legala eta ez-legala elkarrekin ibili ziren. Mendebaldeko kristau eta Elizen arteko, botere politikoaren eta talde saihestuen arteko elkar-bizitza oso gaiztotuta zegoen, eta ideia erlijiosoak erraz bihurtu ohi ziren alderdi.

"Heretikoarekiko gorrotoa zabaldua zegoen. Frantzisko I.ak Vaux-eko 3.000 lagun garbitzen utzi zuen. Felipe II.ak bost 'auto de fe'tan garbitu zituen Espainiako protestante eta erasmistak. 30.000 bat erreformatu hil ziren San Bartolome Gauean edo ordukoaren ondorioz, Parisen eta probintzietan. Herbehereetan, 1572ko udaskenean, Mechelen hiria zakuratzea agindu zuen Alba-ko Dukeak, eta Zutphen-eko protestanteak lepamoztea. Baina elkarren artekoa zen gorrotoa: Ingalaterran, Maria 'Odoltsaleak' hainbat lagun hil zituen Elisabetek ere". (DELUMEAU, 1973)

Jean Delumeau, historilari frantsesa dugu. Honen asmo metodologikoa batez ere soziologiaren irakaskizunak jaso eta erlijio-bizitzaren historiari aplikatzea izan da. Hori egin du, adibidez, bere "Le Catholicisme, de Luther à Voltaire" liburuan (1971), fenomeno erlijiosoentzat argitasun soziologiko berriak bilduz.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n kapitulu osoa daukazu Erreformari buruz: 233-288. orr. Zehazkiago, tolerantziaz, ik.: 130-131, 284-288. orr. Komeni da hau irakurtzea. Ik., gainera, 411. or. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ere ikus daiteke zenbait irudi eta dokumentu: 32, 43, 53, 60, 153. orr., esate baterako.

EGJTEKOAK

- a) Azaldu itzazu XVI. mendeko Europako mapa batean Erreforma-hiri nagusiak eta Erreforma-gune eratorriak.
- b) Esprika itzazu Erreforma-zaleen oinarri nagusiak. Zergatik aldendu ziren Katolizismo ortodoxotik?
- c) Aipa itzazu erreformatzaile garrantzitsuenen izena, tesia eta jatorria. Eman datuak lauki batean.
- d) Egizu grafiko bat Anglikanismoaren sorrera-arrazoiak emanez.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zein ezberdintasun daude Luteranismo, Kalbinismo eta Anglikanismoaren artean?
- b) Zeintzuk izan ziren Erreformaren arazo sozio-erlijiosak?
- c) Nor zen Luter? Aipa itzazu haren biografiako datu interesgarrienak.
- d) Nolakoa izan zen Eliza Katolikoaren erantzuna Erreformari zegozkionetan?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1651

Gerra eta elkarren arteko liskarrak utzita, norberaren bizi-eskubidea segurtatzeko bide bakarra da Estatua sortzea eta beroni hiritar bakoitzak bere eskubideak pasatzea, gizaki bati nahiz giza biltzarren bati botere eta indar osoa emanez. Estatuaren oinarri teorikoak zuzenestea premiazkoa gertatu zen Absolutismorako bidean.

"Erabaki hau guztien adostasun edo ituna baino zerbait gehiago da: lagun bakar eta batberaren baitan lortutako batasun erreala da, gizaki bakoitzak gainerakoekin egindako abenikoz lortua, norbera bakoitzak denei zera eango balie bezala: 'Baimentzen dut lagun hau edo giza biltzar hau eta hari nahiz beroni nere burua gobernatzeko dudan eskubidea ematen diot, zuek ere zuen eskubide bera hari berari ematekotan eta haren egintza gustiak nik bezala baimenduko dituzuelakoan'. Hau eginik, lagun batengan bategin den gizataldeari **Estatu** izena ematen zaio, latinez **Civitas**. (...). Estatuak halako botere eta indarra dauka ze gai da (herrian bake-rik izan dadin) terrore eta izuikaraz guztien borondateak bategiteko". (T. HOBBS, 1651)

Hobbes, Bacon-en ikaslea eta laguna izan zen. Gai ezberdinak landu zituen: politika, etika, psikologia, matematika, etab. Hobbes-en urtean, gizona librea zen lehenbiziko egoera naturalean, eta denek eskubide berdinak zituzten. Baina elkarren arteko lehiaketa arautzeko arbitro bat behar izan da: Estatua. "Leviathan" da teoria politiko guzti honen obra klasikoa.

Honetaz baduzu informaziorik "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: 291-292. orr. Gainerako argibide orokorrak seigarren gaien irakur litezke: 290-324. orr.

EGJTEKOAK

- a) Irakurri eta ulertu ondoren, har testua berri, eta deklama pasartea: Ahots altuz irakur, behar duen entonazioa emanez.
- b) Bila ezazu "Leviathan" izenaren esanahia. Eta pasartearen gaia erlazio-na honekin.
- c) Bila ezazu "Estatu" eta "Civitas" hitzen esanahi etimologikoa. Bai al dago ezberdintasunik?
- d) Terrore eta izuikara aipatzen ditu? Alde honetatik, Hobbes-en garaian, nolako giro, gizarte eta aginte motak zeuden?

ERANTZUTEKOAK

- a) Hobbes-en ustetan, noni dagozkio eskubideak? Edozein hiritarrek bai al du eskubiderik? Boterea noengan dago?
- b) Behin baino gehiagotan aipatzen du giza biltzar bat, Historian zehar ezagutu al da boteredun giza biltzarrik? Noiz eta non?
- c) Hobbes-en teoriak praktikatu egin ziren. Zein motatako agintea sortu zen, eta non?
- d) Eman esaldi honi buruz zure eritzia: "Jende-taldeek ezin du bere burua gobernatu".

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

J.B. Bossuet "Politique tirée des propres paroles de l'Écriture sainte" (= Eskritura Sainduko hitzetatik ateratako politika) idatzi zuen. Bukatu gabe gelditu zen liburua, eta 1709an argitara zen, autorea hil eta gero. Liburu honetan, Monarkiaren jainkozko funtsa oinarritu nahi zuen Bossuet-ek. Tratatu hau Frantziako delfinaren heziketarako pentsatua izan zen: betekizun politiko-ideologikoa zuen, hortaz.

"Sakratua da erret agintea. Jainkoak ematen ditu Erregeak, bere ministraritzat, eta beraien bidez agintzen du herrien gain.

— Sakratua da Erregeen pertsona. Esandako guztiagatik agerian dago Erregeen pertsona sakratua dela, eta haien aurka atentatzea sakrilegioa dela.

— Erlijio-printzipioz eta kontzientziaz izan behar zaio esaneko Printzeari.

— Erregeek beren botere propioari itzala zor diote, eta guztien onetan bakarrik erabili behar dute berau". (J.B. BOSSUET, 1709)

Bossuet (1627-1704), gotzain eta predikari ospetsua izan zen, Luis XIV.aren erreinaldian. Lehenik Gorteko sermolari, eta gero Luis XIV.aren semearen, delfinaren, hezitzailea izan zen. Betekizun hauen mesedetan, teoria politikoa ere landu zuen, Absolutismoari zimentarriak segurtatuz. Ondoko mendeetan aldeko eta kontrako asko izan du Bossuet-ek, eta ez protestante edo XIX.eko liberalen artean bakarrik. Vatikanon II.aren ondoren, eliztarren artean ere haren itzalak galdu egin da, baina Absolutismoaren pentsamendu politikoa ezagutzeko interesgarria da Bossuet.

Honetaz baduzu informaziorik "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: 291-292. orr., eta, zabalagoa nahi baldin baduzu, seigarren gaia osorik irakurtzea komeni zaizu.

EGJTEKOAK

- a) Eman lauki batean, bi zutabetan, Absolutismoaren eta Parlamentarismoaren ezaugarriak.
- b) Eztabaida batean ikus ezaugarri horiek: zeintzuk izango lirateke balio positiboak, eta zeintzuk negatiboak?
- c) Batzutan ez zuten Erregeek Absolutismoan zegokien "rol" nagusienu betezen, eta beren politikari "kutuna"ren (=favorito) bidez egiten zuten politika: Bilatuko ote zenuke Richelieu, Mazarin eta Olivares-i buruzko argibiderik?

ERANTZUTEKOAK

- a) "Sakratu" izuteak, zer suposatzen du?
- b) Nonengan dago boterea? Gaurko Monarkietan ere gauza bera gertatzen ote da?
- c) Non da gaur egun erregearen boterea sakratua?
- d) "Errege hil, errege jarri" ("a rey muerto, rey puesto") esan ohi da: Zein erlazio du testuarekin esaldi honek?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1661-1789

Testu historiografiko honetan Mandrou historilariak Absolutismoaren zenbait ezagugarri ematen digu. Honetarako Frantziako kasuan du adibide egokiena. Gobernuaren antolamendua, funtzionalgoaren egitura eta beste aipatzen dira. Absolutismoak alde ilunak ere izan arren, positiborik ere ikusten dio Mandrou-k.

"Gobernu-erakundeen aldetik, absolutismoa Erregearen botere-antolamendu bezala definitzen da, izan ere Kontseilu eta Ministraritzaren zeregina monarkaren erabakiak erraztea zen bakar-bakarrik. (...). Zentzu horretan, lagun bakar baten boterea da absolutismoa (...). Versailles-ko ipar hegalean ari ziren funtzionari handi eta txikiak ez ziren erret borondatearentzat inolako balazta edo kontrakarga, borondate haren tresna eta aurreagenteak soil-soilik baizik (...). Feudalismoaren garai zailetan bezalaxe, Erregearen baitan gorputz-hartutako botere pertsonala da Erregegoa.

Gobernuaren beraren mailan absolutismoa arrakasta lorgarria izan zen (...). Erreinuaren administrazio-mailan, ordea, absolutismoaren helburuak askoz ere zailagoak gertatu ziren".

(R. MANDROU, 1973)

Robert Mandrou, historilari frantsesa du. Frantziako XVII-XVIII. mendeak aztertu ditu bereziki; baina gizartearekin eta Euskal Herriarekin oso hurbiletik zerikusia zuen bat ere aztertu du: XVII. mendeko magistratu eta sorginen arteko harremanak (Ez ahantz De Lancre magistratua eta Iparraldeko sorginak). Hemen arazo demografiko orokorragoaz ari da.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n seigarren atalburua Absolutismoari eskainita dago. Ezaugarri orokorrak, teoriak eta Frantziako kasua 289-304. orrialdeetan aurki ditzakezu.

EGJTEKOAK

- a) Absolutismo monarkikoaren ezaugarri orokorrak idatz itzazu. Azaldu argibideok lau ki-moduan.
- b) Absolutismoaren eta feudalismoaren sistemak pareka eskema gonbaratibo bat erabiliz.
- c) Absolutismoaren kanpo-politika nola deskribatuko zenuke mapa batean (ikus eta konpara, adibidez, "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: 20, 23, 25 eta 303. orr.).
- d) Ikus Euskal Herriaren historian, XVIII. mendean, Absolutismoak zein ondorio izan zuen?
- e) Literaturan askotan erabili izan dira momentuan momentuko gaiak eta erreferentziak. Horietatik zuk ezagutzen dituzun nobela historikoak aipa: laburpen txiki bat egin, mesedez.

ERANTZUTEKOAK

- a) Kontseilu eta Ministraritzen zeregina oso txikia izanda ere, zergatik ziren hain baliagarriak.
- b) Frantzia edo Espainiako adibideak erabiliz, azaldu zentralismoaren garrantzia Absolutismo politikoaren barnean.
- c) "Lagun bakar baten boterea da Absolutismoa", dio testuak: zu ados al zaude horrekin? Zergatik?
- d) Erregeren erabakiak erraztea zen ministrarien zeregina Europako erreinetan. Gaur egun ere bai?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1661-1715

Botere-absolutismoaren abantailak adierazten dizkio Luis XIV.ak bere lehen-seme eta oinordekoari, Gobernuan jarraitu beharko liokeena aldez aurretik prestatu eta eskolatuz. Botere-modu hari segida segurtatzeko arreta baizik ez zen hezkuntza politiko ideologiko hura: botere ideala deskribatzen da, eta hori erabiltzeko jokabideak erakusten, ondoko printzea desbidera ez dadin.

"Lankidetzat behar nituen lagunei buruz, edozein eratan ere lehen ministrariarik ez hartzea erabaki nuen (...).

Hala ere, nahitaezkoa zen nere konfidantza eta aginduen bete-araztea norbaitekin eramatea baina beti ere bati bakarrik erantzukizun osoa utzi gabe, baizik eta lagun ezberdinei --bakoitzaren argien arabera-- arazo ezberdinak banatuz: burubide hauxe da agian printze zuhur eta jakitunaren dohainik bikainena.

Eta oraindik beste zerbait ere erabaki nuen: jaun-aginte osoa nere eskuetan hobeki biltzeko (...), ministrariak aukeratu nituenean, noizbehinka hauetako bakoitzarekin, zernahitz hitz egiteko, edozein ordutan eta gutxiena uste zuela egotea erabaki nuen.

Garrantzi handiko Estatu-interes eta isilpeko arazoetan (...), hauek ministrari bakar baten eskuetan utzi nahi ez nituenez, hiru izan ziren baliagarriotsat hartu nituenak: Le Tellier, Fouquet eta Lionne. (...).

Pentsatzen dudana osorik eman behar bada, ez nuen gizonik buruargienak neregana inguratsen interesik". (LUIS XIV)

Luzea izan zen Luis XIV.aren erreinaldia: 1661-1715. Nortasun handiko erregea gertatu zen, eta baliozko laguntzaileak izan zituen. Errege absolutuaren eredu prototipikoa izan zen. Zentralismoaren aldekoa, Versailles-eko Gorte-ingurura bildu zuen noblezia; erreformatuen kontrako politika egin zuen Frantzian. Erbesteko politika armatu ausartegi batek ahulduta utzi zuen azkenik erreinua.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n seigarren gaia Absolutismoaz ari da, eta bertan aurki zenitzake oinarrizko lehen argibideak: 289-324. orr. Ikus, gainera, "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: 25-28. orr.

EGJTEKOAK

- a) Estatu modernoaren eraikuntza belaunaldiz belaunaldi egin da: egin 294.eko laukiaren komentario bat.
- b) Luis XIV.aren erreinaldiko bi mapa begira: bata, adibidez, Pirinioetako Bakearen ondokoa eta bestea Utrecht ondokoa. Zein alde daude? Eman lauki batean diferentzia horiek.
- c) Luis XIV.ak bere politikan erabili zituen tresnak: Diplomazia, Armada, Gortea... Lauki batean eman bakoitzaren betekizunak.
- d) Absolutismoak propaganda politikorik ere egin zuen bere existentziaren beharra ziurtatzeko. Gorteko luxuzko bizitzak zein leku zuen hor?
- e) Bila arte-libururen batean, edo nahiago balitz, dendaren batean "Luis XIV.a" deituriko altzari-estiloa.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zeintzuk izan ziren Luis XIV.aren maisuak, zure ustetan. Zein da kopiatu nahi zuen ereduak?
- b) "Ni neu naiz Estatua", esan omen zuen Luis XIV.ak: Nola lotuko zenuke hori hemengo agiriarekin?
- c) Zer da "galikanismoa"?
- d) Luis XIV.a erregearen ondorengoak bete al zituen emandako aholkuak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

XVII. mendeko European bi motatako kontzepzio politikoak zeuden: alde batetik, absolutista, eta bestetik, parlamentaria. Bigarren korrante honen barnean lekutu behar da "Eskubideen agiri" hau. Arau politiko hauen bidez kontrolatzen zuten Parlamentuak Koroa. Parlamentuak, burges, artisau eta merkatariei aukera ematen zien boterean parte hartzeko. Horrela, kasik mende batez, gainerako herrietako iraultza burgesei aurrea hartzen zien Ingaltarrak.

"Honela, ba, Lord izpiritual eta denboral deituok eta Komunek, gutun eta hauteskunderen indarrez bilduta, nazioaren ordezkaritza osoa eta libreka elkarrekin osotuz, eta aipatutako helburua lortzeko baliabiderik onenak seriooki kontuan ditugula, zera aitortzen dugu:

Lehenik (antzekoetan beren artasok beti egin zuten bezala), antzinako eskubideak eta libertateak segurtatzeko:

1. Legeak zintzilik utzi edo Parlamentuaren baiespenik gabe legeak beterazteko erret aginteak omen duen balizko boterea legez kontrakoa dela.

2. Legeak beterazteko nahiz dispentsatzeko erret aginteak omen daukan balizko boterea (iraganean botere hori usurpatu eta erabili izan den gisan) legez kontrakoa dela. (...).

4. Koroarentzako, nahiz gastatzeko, edozein diru-eskaerari buruz: eskubide-aitzakiz, Parlamentuaren adostasunik gabe denbora lar luzatuz edo Parlamentuak onartuko ez lukeen eran aurkeztuz egindako eskaera legez kontrakoa dela.

5. Gizabanakoen eskubidea dela Erregeri eskaerak aurkeztea, eta eskaera hauengatik egindako presohartze edo pertsegizioak oro legez kontrakoak direla".

(DECLARATION OF RIGHTS, 1689)

Erreinu Batuko historian, "Iraultza Loriatsua"ren ondoko fruitua da hau (1689): Parlamentua garaile atera zen Jakobo II.a katolikoaren aurka, eta dinastia aldatzea erabaki zuen, errege-herrien arteko hitzarmena hark hautsi egin zuela deklaratu. Dinastia berriko Gilen II.ari Koroa-eskaintza, eskubide-aldarrikapen honekin batera egin zion Parlamentuak.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n seigarren gaia Absolutismoari eskainia da, eta berorrekin batera ematen da goberna-molde parlamentariari buruzkoa: 308-310. orr.

EGJTEKOAK

- a) Europako mapa politikoa egin, monarkia absolutua zuten lurraldeak eta parlamentariak bereiziz.
- b) Lauki batean eman parlamentarismoaren ezaugarriak, gizarteko maila sozialak, sistemaren zergatiak eta ondorioak.
- c) Aukera agirian, zure ustez garrantzizkoena den puntua: Zergatik du halako garrantzia?
- d) Begira "Historia/1"ean (201. or.) "Gutun Bikaina", eta aldera hemengo honekin.

ERANTZUTZEKOAK

- a) "Eskubideen agiri" honek bere aurrekoak ditu, eta ondokoak ere bai: zer dakizu horretaz?
- b) Zer da "ohiturazko legea": testuak aipatzen al du?
- c) Zergatik aipatzen ditu, espreski, butere legegilea, beterrazlea, diru-hiltzailea eta armada?
- d) Honen aurretik "habeas corpus" legea (1679an) aldarrikatu zen? Zer zen hori? Gaur egun oraindik indarrean egon liteke: zein balio du?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1650-1800

Ekonomi sistema merkantilistaren aurkezpena egiten da ondoko agirian, haren sorrera, ezaugarri orokorrak eta hark kapitalismoaren jaiotzan izan zuen garrantzia azpimarratuz.

"Egoki izango da merkantilismoari bere esanahi teoriko eta historiko zehatza ematea: XV. mendetik XVIII.era, Estatu nazionalen dotrina eta praxi ekonomikoa da merkantilismoa. Dotrina honek, inportazioen gaintetik, ondasun- eta zerbitzu-esportazioetan soberrakin bat segurtatu nahi du, berau bait da, izan ere, urre- eta zilar-meatzik gabeko herrialdeetan, Estatu-boterearentzat eta nazioaren oparotasunerako ezinbestekoak diren metal preziatuak eskuratzeko baliabide bakarra... Erdi Aroaren eta Aro Garaikidearen artean merkantilismoa da kapitalismoaren eta industria modernoaren etorrera prestatu zuena".

(P. DEYON, 1969)

Pierre Deyon, Lille-ko Unibertsitateko irakaslea da. Ernazimentuko eta berehalako mendeetako testu ekonomikoak aztertu ditu bere histori lanetan. Abildade aparta du, herri eta Estatu ezberdinen artean ideia eta proiektu merkantilisten sintesi orokor bat lortzeko. 1969an "Le mercantilisme" eman zuen argitara (Parise. Gaztelaniaz: Barcelona: Ed. Península, 1970).

"Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuan aurki dezakezu Merkantilismoa-ri buruzko informazioa: 315-320. orr., eta haren garaiko gizarteari buruz 321-324. orr.

EGITEKOAK

- a) "Mendez Mende" liburuan, Merkantilismoaz datozen datuak osa, beste histori liburuetan edota entziklopediak erabiliz.
- b) Ameriketatik zetozen urre-zilarrek Europako ekonomian izandako eragina azter (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: 315. or.)
- c) Defini itzazu ondoko kontzeptuok: politika protekzionista, autarkia, kolbertismoa, ordainketa-balantza eta manufaktura.
- d) Egizu XVII. mendean Mundu Berritik iritsitako urre- eta zilar-kopuruaren datuekin grafiko bat (entziklopediek edo irakasleak lagun zaitzakete: ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa"n: 317. or.).

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zer da merkantilismoa? Noiz sortu zen? Zergatik?
- b) Zertan datza herrialde baten aberastasuna?
- c) Zeri esaten zaio Aldeko Ondainketa-Balantza?
- d) Nola lortzen zen esportazioen gehikuntza?
- e) Nola mugatzen ziren inportazioak? Zer da muga-babesle sistema? Zergatik da onuragarria herrialde bateko produkzioarentzat?
- f) Zertan gauzatzen zen, kolonietan, Merkantilismoaren eragina?
- g) Zeri esaten zaio kolbertismoa? Zeintzuk ditu ezaugarriak nagusienak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1660

Cromwell-en Nabigazio-Aktako testuaren zatia dugu hau. Ingalaterrako merkatalgoa laguntzea zen dekretu honen helburua, eta lege honetan oinarritu da, bi mendetan, Ingalaterrak ezagutu zuen inperioa. Orduan Holandari egin zion Aktak kalterik handiena.

"1660ko abenduaren lehenengotik hasita, Asia, Afrika, nahiz Ameriketako Berorren Majestateak dituen edo izan dituen kolonietara ez da eramango, eta haietatik ekarriko ere, inolako salgairik, ez fruitu edo beste generorik ere, Ingalaterraren menpeko herrialdeetan egindako ontziz baizik, edo egiaz eta benetan Berorren Majestatearen menpeko diren espada. Eta, haietan nahiz haueetan, kapitainak eta marineletatik hiru laurdenek gutxienik ingelesak izan behar dute".

(Navigation Act, 1660)

XVII. mendea gorabehera politiko handikoa izan zen Ingalaterrarentzat, eta Oliver Cromwell (1599-1658) protagonista nagusienetako bat: lehen Nabigazio Akta (1651). Lord Babesle (Protector) bezala Estatuaren buruzagi izatera iritsi zen, eta "gentry"aren (landa-nobleziaren) iraultza gidatu zuen, Monarkiaren kontra. Militar eta politikari, lehen iraultza burgesaren gidaria gertatu zen Cromwell European.

Ikus "Mendez Mendeko Aro Modernoa": 319, 315 (irudia), 402-403, 419-420. orr. Ondoko belaunaldietako politika kolonial eta itsastarrak ere Akta honen fruitu bezala ere ikus daitezke "Mendez Mendeko Aro Garaiak": 76-83, etab.

EGITEKOAK

- a) Atlas historiko batean begiratu ondoren, egizu mapa bat, XVIII. mendean Ingalaterraren menpe zeuden lurraldeak markatuz.
- b) Ingalaterrari dagozkion merkatal norabideak eta merkantziak jarriko dizkiozu mapari. Baina kanpo eta barne-merkataritza ongi bereiziz.
- c) Azter dezagun Holandak zuen merkatalgoa. Egizu mapa bat haren produktu eta norabideekin. Azpimarra Ingalaterraren eta Holandaren arteko antz-ezberdintasunak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Legezkat hartu behar denez, zehatz aipatzen ditu baldintzak. Non ikusten duzu horrelakorik?
- b) Noren kaltetan aldarrikatu zen Akta hau? Zergatik?
- c) Nola erlazionatzen da Nabigazio-Akta hau merkantilismoaren doktrina ekumenikoarekin? Eman arrazoiak.
- d) Zein ondorio ekarriko du Ingalaterrako ekonomiarentzat?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Amsterdam hiriko Bankuaz dihardu aukeratu dugun testu honek. Bere ekonomia irakiten eta inperioa eraikitzen ari zen Erreinu Batuaentzat eta Europa osoarentzat eredu ekonomiko miresgarria zen XVII. mendeko Herbehereetako. Ez da ahantzi behar orduan lortu zutela beren independentzia politikoa ere (1648).

"Banketxe hau Amsterdam-eko hirian dago; duen bere altxorragatik da hain sonatua mundu osoan, esagutzen direnetatik handiena bait da, benetako nahiz irudimenezkoa izan altxor hori. (...).

Baina Banku honen zuzendaritza daramatenak Burgumaisuak soilik direnez, ez dago inor han epez epe sartu-irteten direnen kontua bere gisara duenik. Ezin daiteke jakin, ziurtasunez, esta asmatu ere, zein erlasio dagoen han egiaz daukaten altxorraren eta Bankuak duen kredituaren artean. Izan ere Bankuaren segurtasuna ez datsa bakarrik eduki badaukan urre-zilarretan, hiri osoak eta Amsterdam-eko Estatuak ere dioten usteonean baizik.(...).

Arruntki, hiriko merkatarien arteko ordainketa handienak Banku-biletz egiten dira. (...). Banku hau da --hala esan daiteke-- norberak dirua, gordetzeko, ematen dion egiazko kutxa orokorra (...). Eta han utzi den diruagatik Bankuak interesak ematen ditue- nez, honegatik ere, ordainketak eskuz egiten direnean, moneta arruntak baino gehiago balio du. (...).

Hauk dira Amsterdam-eko Bankuari halako izenona eman dioten zernolakoak".

(TEMPLE,W.: *Observations*, 1673)

Sir William Temple (1628-1699) politikaria zen, eta Holandaren aldeko politikara eraman zuen Ingalaterra, horrela "Iraultza Loriatsua"ren ondoren Orange-ko dinastiari erretaulkirako bidea urratuz. Probintzia Batuen mireslea izan zen, eta beraien sistema ekonomikoa deskribatu zuen bere "Observations upon the United Provinces" obran. Bere estilo ederragatik ere miretsia izan zen ondoko belaunaldian Temple. Garaiko eztabai- da intelektualetan leku handia izan zuen.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n badago argibiderik: ikus, lehenik, 319-320. orr.; ez ahantz 309-310. orr., eta Ingalaterrari buruz ik. 312-313. orr.

EGJTEKOAK

- a) Ulertzen ez dituzun hitzak, hiztegian argitu ondoren, testuaren esan-hia adieraz.
- b) Aunkikundeen ondorio ekonomikoak azter, garaiko merkatalgoaren garapena-ren berri zehatzak emanaz.
- c) Mapa batean emazu XVII-XVIII. mendeetako merkatal bideen sarea: espainia-rrak, portugesak, arabiarak, holandarrak, veneziarrak eta ingelesak nondik nona zituzten beren merkatal bideak?

ERANTZUTEKOAK

- a) Noiz sortu ziren lehen aldiz Banketxeak?
- b) Zein zen haien eginkizuna?
- c) Zer ziren Indietako Elkarte Ekonomikoak? Noiz eta non sortu ziren?
- d) Bai al dute zerikusirik aipatu Elkarte horiek Banketxeen sorrerarekin?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XVI. mend.

Agiri hau historiografia modernotik hartu dugu: Vicens Vives autoreari zor diogu. XVI. mendeko gizartean, eta goi-noblezian zehaztiago, Karlos V.ak eginiko moldaketa berriaz ari da testua. Erregimen Zaharreko egituratze modernoaren garrantzizko uneak deskribatzen zaizkigu.

"Koroa hartu eta berehala Karlos V.ak ofizialki berrerratu zuen Espainiako nobleziaren hierarkia. Erdi Aroko 'ricos hombres' deitura galdutzat eman zuen, eta 'Grandes de España' rekin trukatu.

'Espainiako Handi' hauek lehen-lehen mailako nobleak ziren, eta beraien kopurua 25etara mugatu zen. (...). Geroago kopuru hori zabaldu egin zen, Felipe III.aren erregealdian ehunkada-erdi bat izateraino. 'Erregeren lehengusu' titulu gutiziatua zeramaten, eta haren aurrean buru-estalita egoteko eskubidea aitortzen zitzaien".

(J. VICENS VIVES, 1960)

Jaume Vicens Vives (1910-1960), historilari kataluniarra da. Katalunia eta Espainiako historiak aztertu zituen, ikuspegi ekonomiko eta sozialetatik batipat. Estatuko historiografian, metodologi berrikuntza neurri on batean Vicens-i zor zaio, batez ere berak erakutsi bait zituen Frantziako "Annales" eskolaren lan-moldeak. Beraren inguruan eskolatutako ikasleek --dagoeneko, irakasle ezagunek-- luzatu dute Vicens-en lana.

"Mendez Mendez. Aro Modernoa" liburuan azter dezakezu XVI. mendeko gizartea: 28-40. orrialdeetan ikus daitezke lehen antolamendu sozio-politikoak, eta, gisa beretsuan, ondoko zenbait datu: 321-324. orr. Eta Iraultza Industrialak ekarriko zituen aldakuntzak barruntatzeko begira 396-405. orr.

EGITEKOAK

- a) Karlos V.aren biografia entziklopedia batean irakurri ondoren, idatz laburpen bat.
- b) Testuan aipatzen diren goi-mailako gizartearen aldaketetan sakondu.
- c) Erakus ezazu taula edo lauki batean gizartearen estamentu sailkapena: begira, ikuspegi estamenteratik, zein alde edo kidetasun dauden Erdi Aroko eta XVI-XVII. mendeetako antolamendu sozialetan

ERANTZUTEKOAK

- a) Nortzuk ziren Erdi Aroko "ricos-hombres" deituak?
- b) Zertan gauzatzen dira Karlos V.ak zuzenduriko aldakuntza sozialak?
- c) Zeintzuk ziren Espainiako Handien eskubideak?
- d) Zein betekizun zuten hauek?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XVII. mend.

XVII. mendean, nekazal ekonomi aldakorrek, janariaren eskasiak, gaixotasun-aldiek eragin zuzena zuten demografiaren gain. Jaiotze-tasa, handia zen, baina baita hilkortasunarena ere, beti ere hazkundearen oreka mantenduz. Baina gosete, izurrite edo gerrateetan hilkortasun-tasa gehitu egiten zen. Bizi-itxaropena baldintza horiek mugatzen zuten: laburtzen.

"Beauvais-eko hirialdean, 1661-1665. urteetako bezalako gosete batek behera dakar jaiotzen kurba, eta gora darama --oso bizkor gainera-- hildakoena. Haur-hilkortasuna oinarritzko datua da, aipatutako baldintza orokor horiei lotuta dagoena; hilkortasun horrek, jaiotze berrietatik gutxienek erdiak garbitu zituen lehen urtea bete baino lehen. Aurreko urteetako, hamar-hamabost seme-alabako familia hain maizkoak sei-zazpi lagunetaraino murriztu ziren. 1670.ean Colbert-ek oso baliozko inkesta bati ekin zion: hamar-hamabi seme-alaba bizirik zituzten guraso nobleak topatu behar ziren, hala-koei pentsio bat emateko. (...). Beste datu arrunta zera zen: heldutasunera iristeko segurtasunik eza. Batezbesteko bizialdia ez zen hogeitabi-hogeiatahiru urtetik gorakoa, XVIII. mendea ongi aurreratu arte bederen (...). Honek zituen ondorio soziologikoak nabariak ziren: haurrek famili bizitsan zuten lekua, heriotze-bel-durra, eskontidearen hautapena, famili buru bezala alarguntsek zuten betekizuna, gizarte-bizitza baldintzatzen zuten gorabeherak".

(R. MANDROU, 1973)

Robert Mandrou, historilari frantsesa dugu. Frantziako XVII-XVIII. mendeak aztertu ditu bereziki; gizartearekin eta Euskal Herriarekin oso hurbiletik zerikusia zuen arlo bat ere aztertu du: XVII. mendeko magistratu eta sorginen arteko harremanak (Ez ahantz De Lancre magistratua eta Iparraldeko sorginak). Hemen arazo demografiko orokorragoaz ari da.

"Mendez Mende. Aro Modernoa": XVII. mendeko gizarteaz, 321-324. orr.
Begira agiri honen ondoko irudiak: 324. orr. Demografia zaharraren ondoko iraultza demografikoaz, argibide jakingarriak: "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 12-16, 74, 84-88, 254-256, 284, 293-294, 315, 321-324. orr.

EGJTEKOAK

- a) Liburuan agertzen diren grafikoak komentatu. Eta Antzinako demografiaren ezaugarrien analisisa egin.
- b) Grafiko bat egin, testuan azaltzen diren datuak erabiliz.
- c) Inkesta egizue zeuon gelako lagunartean: zenbat anai-arreba dituzue klase-lagunok. Ondorioak atera gaurko egoeraz, eta XVII. mendekoarekin gonbaratu.
- d) Inkesta horretan beste galdera hau ere sar: Gaurko belaunaldian, zenbat urtetako bizialdia dagoela uste duzue?
- e) Orain galdetu zure herriko zaharrei: Zenbat anai-arreba izan ziren? Zenbat hil ziren gazterik? Zergatik hil ziren?

ERANTZUTEKOAK

- a) Gosete batek, zergatik dakar jaiotze-tasaren beherapena? Azaldu zure eritzi eta arrazoiak.
- b) Haur-hilkortasuna handia izaten denean, zeintzuk izaten dira horren arrazoiak?
- d) Nor zen Colbert? Zergatik agindu ote zuen inkesta hori egiteko? Zeintzuk lortuko dute probetxua?
- e) Heldutasunera iristeko segurtasunik ezak jabego pribatuetan ondorio txarrak ekar ditzakeen? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1621

Ingalaterrak bere inperio handiaren zimentarriak XVII. mendean jarri zituen. Merkantilismoaren doktrina ekonomikoa praktikatuz inperio horren finkapena lortu zuen. Testu historiko honetan, garaiko teoriak ikus daitezke.

"Gure ondasun eta aberastasunak areagotzeko baliabide arrunta kanpo-merkataritza da.

Honi laguntzeko, berriz, beharrezkoa da ondoko arau hau betetzea: atzerritarrei, geure kontsumorako erosten dizkiegunak baino gehiago saltzea, alegia". (TH. MUN, 1621)

Thomas Mun (1571-1641) Ingalaterrako merkantilismoaren defendatzailea izan zen. Ekialdeko Indietako Konpainiaren zuzendari izan zen, eta merkantilismoaren teorikaria. Kanpo-merkataritzan, lehengaiak manufakturen truke erostearen aldekoa zen; merkatal balantza norberaren alde izatea zen neurri ekonomiko garrantzizkoena, autore honen ustez. Hainbat lan teoriko idatzi zuen Mun-ek.

Gaira inguratzeko, begira eta irakur "Mendez Mende. Aro Modernoa": 315-319. or. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n merkatu kolonialaz esaten dena ere interesgarria da.

EGITEKOAK

- a) Histori hiztegi batean begira ezazu "merkantilismo" hitzaren esanahia. "Mendez Mende. Aro Modernoa"n ikusitakoa emazu eskema batean.
- b) Ingalaterrako erreinuak XVII. mendearen hasieran zituen lurraldeak bila atlas batean. Mapan koka itzazu.
- c) Zer da zure herriko sektore ekonomiko ezberdinek produzitzen dutena, eta zer kanpotik datorrena. Egoera egokia iruditzen al zaizu? Zergatik.
- d) Zuen etxeko ekonomian nola orekatzen dituzue erositakoak/saldutakoak/besterik? Beti horrela izan al da zuenean?

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zein da merkantilismoak nahi duen helburua?
- b) Ingalaterrak asko saldu behar baldin badu, zein motatako produktuak izan daitezke?
- c) Merkantilismoak, zein motatako politikarekin du zerikusirik?
- d) Gaur egun, bai al dago merkantilismoaren arrastorik? Zergatik erabiltzen da urrea balio-neurri bezala? Zeintzuk dira gaur egun merkantzia baliotsuenak? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. 1630

Galileo-ren belaunaldia (1564-1642) erabakiorra izan zen Mendebaldeko Zientzia modernoaren jaio-tzan. Grina eta ahaleginik bizienekin dastatu zuten jakin-bide berriek ekar zezaketen jakite-goza-mena: ordurarte munduaz zutik zegoen ikusmoldea benetan koloka jarri zen. Horrek sortu zituen zalantza eta ezinegonak handiak izan ziren, asma-tzaile eta aurkitzaileen grina hura handia zen bezalaxe.

"Gure filosofoei poza ematen dietenetakoak direla diot zeruan aurkitzen diren gauzak. Bai zeruko gorputz banakoetan, bai zeru zabaleko orokorretan ikusiak izan dira eta oraindik ere ikusten dira guk 'sorkuntza' (generatio) eta 'ustelkuntza' (corruptio) izenez ezagutzen ditugunak: astronomo ospetsuek ikusi dituzten kometa asko sortu eta itzali dira ilargi-mundutik harago, eta hori, 1572.ean eta 1604.ean agertutako bi izar berriak aipatu gabe, hauek planeta gustien gainetik igo bait ziren. Eguzkiaren azalera ere ikusten dira, teleskopioari esker, jaio eta desagertzen diren materiazko nahaski trinko eta ilunak, beren itzuragatik Ludiaren inguruko lainoak gogorarasten dituztenak". (GALILEO)

Galileo Galilei (1564-1642), hainbat aurkikunde tekniko eta zientifikoren aita, zientzia moderno jaio-berriaren sinbolo bilakatu zen, egindako lanagatik, noski, eta baita Erromako Ofizio Santuak kondenatu zuelako ere (1633). Paradoxaz betetako historia da Galileo-rena: ez zuen bere teorian beti asmatu, baina haren izpirituak bultzatu du zientzia mendebaldarraren lana.

Une eta gai historiko honetaz ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 326-332. orrialdeak. Ondoko lorpenak ezagutzeko (XVII.eko bigarren parte): 332-337. orr. Eta Filosofiaz: 337-343. orr. Galileori buruzkoa: 341. or.

EGJTEKOAK

- Galileoren garaian, astronomian aurrera-pauso handia eman zen; baina Galileo-k izan zuen aintzindaririk ere; bila nortzuk ziren, eta zer proposatu zuten.
- Aurrera-pauso horietan garrantzi handia izan zuten tresna jakin batzuek: zeintzuk ziren horrelako horiek?
- Gaur egungo teleskopioak nolakoak dira? Begira ezazu libururen batean. Gonbara itzazu gaurkoa eta Galileok erabili zuena.
- Testuan kometak aipatzen dira, orain dela gutxi Halley kometa Lurrera inguratu zen berriro. Bila ezazu kometa honetaz informazio eta argazkirik.
- Egizu Galileori buruz laburpen biografiko bat.

ERANTZUTEKOAK

- Zergatik izan ote dira filosofoak fenomeno zerutarren zale?
- Zientzien eta filosofien arteko mugak askotan ez dira erabat zehazki marraztu: "sorkuntza" eta "ustelkuntza" ez ote dira kontzeptu filosofikoak.
- Teleskopioa, astronomi ikerlanetan erabiltzen al da bakarrik?
- Teleskopioaren eta mikroskopioaren artean, zeintzuk dira ezberdintasunak?
- Nola deitzen dira "Eguzkiaren azaleran jario eta desagertzen diren materialzko nahaski trinko eta ilunak"?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke; aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1655. 1731

Testu historikotzat hartuko ditugu pasarte hauek: Bi mende ezberdinetako eta izadiarekiko bi pentsa-moldetako idatziak dira biok. Balio historiko kontrajarria dute, beraz. Berauetan ikus daiteke pentsaera primitibo batetik zientziara pasatu ahal izateko lortu behar den pentsamendu logikoa zein bestelakoa den.

"1655eko Martxoaren 15.ean, Anjou-ko parroki triki bateko apaizak zera idatzi zuen: 'Pasio-asteko lehen astelehenean, 1655eko Martxoaren 15ean, arratsaldeko laurak edo bostak inguruan, zerutik odola ixuri zen, euriaren itxuran, Bouillé-ko gasteluaren lorategian. Gastelu hau padura eta baso handien artean dago, eta tantto asko Jeanne Malerbe zerbitzariari eskuetan, aurpegi, ile eta soin osoan erori zitzaizkion. Nik neuk ikusi nuen hau dena, bertako jaunak, Acigné-ko konte jaunak, deitu ninduelako. Hango ofiziale eta beste lagunak ere, gertatua ikusiz, harriturik zeuden'.

1731.ean, apaiz honen ondorengo batek, orrialde honen basterrean zera idatzi zuen: 'Odol-euri honen ikusleak fisikoak izan balira, ez ziren harrituko zeren eta fisiko on batek esplikatu bait zien nola inoiz haizearen eraginez lur gorristak igotzen diren eta nola haizeak bultzatzen dituen hodeietan bildu eta hauek urez nahiz bestelako lurrunez nahikoa pisu dutenean, hodeia desegin eta euri gorristatua nola erortzen den''.

Ez ditugu ezagutzen idazleen izenak. Nolanahi ere apaizak ziren: bata, XVII. mendeko bigarren erdikoa, eta, bestea, XVIII. mendekoa. Laurogei urteren aldea zuten, eskas. Lehenengoa, gure Axular eta Galileo hil eta berehalakoa edo zen; bigarrena Newton-en ondokoa eta Larramendiren garaikoa.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n ikus daitezke pentsamolde zientifikoa-
rekin zerikusia duten albiste batzuk: 327-343. orr. Bereziki ikustekoak
izan litezke 326. orrialdeko irudiak.

EGJTEKOAK

- a) Egizu lauki bat 1655aren eta 1731ren arteko hamarkadetan egin ziren aurkikunde zientifiko nagusienekin.
- b) Egizu marrazki grafiko bat "euri gorritu" hori sortzen duen prozesua azalduz.
- c) Azter XVIII. mendeko Iraultzaren garapena lagundu zuten faktoreak: egoera politikoa, kulturala, filosofia, egitura-soziala, zientifikoa, etab.
- d) Har ezazu Biblia, eta aurki Testamendu Zaharreak halako fenomeno harri-garriak. Nola daude kontatuta, eta nola uler daitezke, gaurko fisikaz baliaturik? (Ik. Inteera liburuan: 7. kap.).

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik ematen zion halako esplikazioa fenomeno horri XVIII. mendeko apaizak?
- b) Kontatzen duena ziurtatzeko noren izena aipatzen du? Zergatik?
- c) Udaberrietan, soroak kolore horiz beterik daudenean, zergatik da? Testuan kontatzen denaren antzekorik gertatzen al da?
- d) Zer da "euri azidoa". Nola sortzen da? Zein ondorio ekar dezake?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Francis Bacon-ek zientzia aztertzeari denbora asko eman zion. XVI-XVII. mendeetan aurrera-pauso kualitatibo handia eman zen zientzi munduan. Bacon eta beste zenbait teorikarik sistema berrien arauak jarri zituzten.

"1. Gizakia izadiaren zerbitzari eta interpretatzailea da: Izadi horren legeei buruz egindako aurkikuntza esperimental eta razionalen arabera bakarrik ulertu eta obratzen du gizakiak. Hortik kanpo, ez daki deus, ez dezake ezer. (...).

3. Gizakiaren zientzia da beronen ahalmenaren neurria, izan ere kausa ez ezagutzeak efektua ezin sortua dakar berekin. (...).

8. Honeraino egin ditugun aurkikuntza gustiak kasualitateari esker eta praktikaren irakaskizunei esker egin ditugu batez ere eta ez zientziei esker. Zeren eta gaur egun ditugun zientziak, lehendik egindako aurkikuntzen adabaki batzuk besterik ez dira. Gaurko zientziak ez digute irakasten ez konkista berriak egiten, esta gure industria hedatsen ere. (...).

22. Metodo bata nahiz bestea esperientziatik eta gertakarietatik hasten da eta lehen hastapenetan oinarritzen; baina beraien artean esberdintasun handia dago, zeren eta batak arinki eta bizkor aztertzen ditu esperientzia eta gertakariak, eta besteak, berriz, ikasketa metodiko eta sakona egiten du. Batak, hasieratik, printzipio orokorrak ezartzen ditu --abstraktu eta alferrikakoak--, bestea, ostera, naturarentzat bereagoak diren legeetara hurbiltzen da pirkanaka.

36. Gure pentsamenduak estimarazteko daukagun medio bakarra zera da, adimenak ekintzen ikasketara, berauen sail eta ordenetara gidatzea, eta ordutik, denboraldi batean behintzat, nozioen erabile-
ra utz dezagula eta errealtatea praktikatzen has daitezela adimenak".
(F. BACON, 1620)

F. Bacon (Londres, 1561-1626) gizon politiko eta filosofoa izan zen. Zuzenbide-ikasketak egin zituen. Komunen Ganbarako partaidea, gorteko abokatua, gantzilerra. 162lean politika utzi beharra izan zuen salakizun baten ondoren. Hortik aurrera Filosofiara eman zen, logika deduktiboa sortuz. Bere liburuen artean "Novum Organum Scientiarum" gogoratuko genuke batipat (1620).

Zientziaren eta Filosofiaren arteko harremanen historiak bide luzea du. "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n ikus dezakezu zerbait: 159-164 (Ernamizimendua), 327-343 (Barrokoa), 405-408. orr. Eta "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n ere badauzka argibideak: 153-156. orr.

EGITTEKOAK

- a) Lauki batean eman XVII.eko pentsamendu nagusi kontrajarriak.
- b) Testuko 22. puntuaren analisia egin. Bi iker-metodo aipatzen dira; zein disziplina dira gisa batekoak edo bestekoak (matematika, fisika, natur zientziak, etab.).
- c) Zientzia Izadiaren zerbitzuan dago, ala, zenbait arlotan, Izadiaren kontra berorren portaerak aldarazi egiten ditu hark?
- d) Zientziaren balio baikorra agertzen zaigu testuan, baina askotan beldur handia diogu zientzi garapenari: Halaxe, zientzi fikzio-historietan, eta gerra atomikoaren arriskutan...

ERANTZUTERAKOAK

- a) Zer da Bacon-ek proposatu zuen metodo induktiboa?
- b) Gertakariak eta izadian sortzen diren fenomenoak aztertzeko duen disziplina, zein da?
- c) Zientzi barnean gero eta alor berezitu gehiago daude: eman horien izen batzuk. (Adib. Medikuntza: Zirurgia, Neurozirurgia, Neuromikrozirurgia, Urologia; Otorrinolaringologia, etab.).
- d) Bacon-ek zion: "Benetako zientzia, kasuen zientzia da". Zer esan nahi du honek?
- e) Aurrerapen zientifikoaren bidez gizakiak izadia kontrola ote dezake? Eman zure eritzia.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Galileo ikerlariak berari gertatu zitzaion anekdota bitxi bat kontatzen digu. Galileo-k "Dialogo sopra i due massimi sistemi del mondo" eman zuen argitara (1632). Pasarte hau hortik hartu da. Inkisizioak kondenatu zuen liburua, eta Galileo-k auzitegi baten aurrean aurkeztu beharra izan zuen, 1633an. Kondenatua izan zen eta geroztik Inkisizioak gertutik zaindu zuen jakintsua. Testu historiko honek, balio digu zientzia eta momentu berberako filosofiaren arteko desfasea ulertzeko.

"Sagredo. Pozik nago. Egun batean Veneziaako mediku oso estimatu baten etxean suertatu nintzen, zeren eta han biltzen bait ziren zenbait lagun (batzuk ikaskizunen aitsakiarekin, besteak jakin-min hutsez) anatomista jakintsu, trebe eta azkar baten ebakuntzak ikustera.

Eta egun hartan, hain zuzen, nerbioen sortune eta jaiotunea bilatzen ari ziren, arazo honetan, izan ere, estabaida sonatua bait dago galentzale eta peripatetikoan artean.

Garunetik irtenik eta garondoan zehar paseaz nerbio-sorta handia orno-muinean nola zabaldu eta bertatik nola adarkatsen zen erakutsi zigun anatomikoak, eta baita bihotzeraino zihoana nolako hari-txo gustiz mehea zen ere.

Orduan, filosofo peripatetiko bezala ezaguna zen jentilgizon batengana zuzenduz (...), zera galdetu zion, ea nerbioen jaiotunea bihotzean ez baizik garunean zegoela konbentzitutua zegoen, eta seguru.

Isilune baten ondoren, filosofoak honela erantzun zuen: 'Hain argi eta garbi erakutsi didazue hau, ze Aristotele kontrako ez balitz (hain garbiki esaten bait du honek nerbioak bihotzetik ir-teten direla), nahitaez egiaztat eman beharko litzateke hemen ikusitakoa''.

(GALILEO, 1632)

Galileo Galilei-k (1564-1642), Matematika ikasi zuen, eta Padovan irakasle izen zen. Zientziak aurrerapen ugari zor dizkio: penduluen legea, erorketa libreen legeak, "anteojoa", teleskopioa, astro berrien leku-mugaketak, etab. Matematika, Fisika eta Astronomia-ko, denetako ikerlanak burutu zituen.

"Mendez Mende. Aro Modernoa" begira: liburuko zazpigarren gaia gizarzte eta kultura barrokoaz ari da; baina hemengo gaiak diharduena 337-343. orrialdeetan daukazu; Galileori buruzkoa ik. 341-342. orr.

EGJTEKOAK

- a) XVIII. mendean, artean Aristotele-ren sistema filosofikoa da nagusi, baina ez da hala beti gertatu. Eman, lau ki batean, Mendebaldeko Filosofiararen aro historiko nagusiak, kronologiaren arabera.
- b) Edozein erlijiotan sinismenaren beharra dago ("fede-arazoa"). Baina ez al da gauza beretsua gertatzen filosofia ezberdinekin ere. Eman zure eritzia.
- c) Lehenagoko garaian bihotza giza gorputzaren muintzat ematen zen, erabat funtsezkotzat. Gaur egun bihotz-transplanteak egiten dira. Zer pentsa horretaz? Bila argibideak.
- d) Zientzia gizarte-sistemaren aurretik doa: testuan ikusten da filosofo batek ez duela amore ematen teoria berria entzutean. Gaur egun ere horren antzeko gertakariak badira. Eman adibideak.

ERANTZUTEKOAK

- a) "Peripatetiko" hitzaren esanahia, zein da?
- b) 1633an, Galileo epaitu izan zeneko oso anekdota zelebrea bat ezagutzen da. Egiazko ala ez, guztiz zabaldua izan zen: zein da?
- c) Noiz ezagutu ziren sistema nerbioaren funtsak?
- d) Zer da neurona? Hitzaren erroa, zein da, zer esan nahi du? Erro berdinetik deribatzen diren beste hitz batzuk emango al zenituzke?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1564-1616

XVI-XVII. mendeetan, batez ere azkeneko honetan, literaturak urrezko mende bat ezagutuko du, Mendebaldeko erresuma batzuetan. Antzerkiak ere loraldi bat ezagutu zuen: Lope, Tirso, Calderón, eta abar Espainian, eta Corneille, Racine eta Molière etorriko dira Frantzia gerotxoago. Baina, denboraz eta tamainaz, Shakespeare-k hartu zien aurrea, Ingalaterran. Izan ere bai ote zen eztabaidatu den hau klasiko handi bat da mundu osoarentzat.

"Shakespeare-ren arteak ausardi fantastikoa du, katedrale gotiko handi batek bezalakoxea (...). Intentsitate kontraezinezko eremu magnetikoez erakartzen eta biltzen dituzte hitzak, eta halabehar miragarri batek lotzen ditu elkarrekin. (...).

Baina Shakespeare gutxiago mozortu du hizkuntzak eta magiak eta hitzaren sorginkeria honek, giza komunikaziorako tresna bezala hitzak duten ezdeustasunak baino.

Hitzaren maisu honek ongi erakutsi du hitz oro gezurra dela eta hitzetara irekitako arima oro ilusio osoko mundu batetara doala: hortik irteteko aterabidea bakardadearen kontzientzia da eta isiltasuna".
(J.J. MAYOUX, 1976)

William Shakespeare (1564-1616) poeta eta dramagilearen bizitza oso gaizki ezagutzen da. Londres-en egin zuen lan, "King's men" deituriko antzez-talde batean, antzerkigile eta aktore bezala aldirian (1594-1610). Urteoro obra-pare bat idatzi ohi zuen, eta horri esker erotasun ekonomikoa ere lortu zuen urte haietan.

Garaiko Literaturaz begira "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 343-349. orr. Shakespeare-ri buruz oinarritzko lehen datuak 347. orrialdean ikus daitezke.

EGJTEKOAK

- a) Literatura barrokoaren ezaugarriak bil: idazle eta korronte eskema egin, obra nagusienak aipatuz.
- b) Aukera ezazu Shakespeare-ren obra bat: argumentua kontatu, eta zati bat hauta hizkeraren komentarioa egiteko.
- c) Edozein aktore edo teatro-idazle aukera, duen hizkuntz trebetasuna go-goan hartuz. Komentatu kasu jakin bat.
- d) Shakespeare-ren zatiren bat deklama ezazu, eta ahal balitz, talde bat osa antzerkiren bateko zerbait denon artean emateko.

ERANTZUTEKOAK

- a) Egia al da, XVIII. mendean emakume aktoriesarik ez zegoela? Nontzuek betetzen zuten emakumezkoen papera?
- b) Hitzek berdin balio lezakete edukin batzuk argitara ekartzeko, edota isildu nahi dena estaltzeko: zer esan nahi du horrek?
- c) Zuk ezagutzen dituzun gizon-emakume politikariek bai ote dute Shakespeare-k duen hizkuntz trebetasunik? Eman adibideak.

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

c. 1630

Arnold Hauser artearen historilariak Erroma barrokoari buruz hitz egiten digu testu honetan. Barrokoaren momentu oparo hau Aitasaindutzaren garrantziarekin lotzen du, Urban VIII. arekin bereziki, eta estilo berriaren indarra eta beronek artearen arlo guztietan izandako presentzia azpimarratzen ditu.

"Urban VIII.a Barberini Aita Santuaren garaian (1623-1644) bihurtu zen Erroma guk ezagutzen dugun hiri barroko.

Aitasantualdi honen lehenen partean gutxienez, Erromak menperatzen zuen Italiako bizitza artistiko osoa eta Erroma da Mendebalde osoko erdigune artistikoa.

Nazioartekoa zen arte barroko erromatarra, garai batean gotiko frantsesa izan zen bezala; dauden indar guztiak beretzen ditu, eta bizirik dauden ahalegin artistiko guztiak biltzen ditu estilo horretan, berari bait zen orduko Europan garaiarekin ados zetorren bakarra. (...).

Pietro da Cortona, Bernini eta Rubens ziren orduan indarrean zeuden izenak".
(A. HAUSER, 1951)

Arnold Hauser (1892-1978). Artearen historilari hungariarra. Artearen jatorri soziala aztertzen du, batez ere eraldaketa sozialekin harremanetan ezarriz. Beronen obra garrantzitsuenak "The Social History of Art" (1951) izan da, batez ere sintesi gisara irakurleko oso zabal batenganaino iritsi izan delako. Artelanaren inguru sozialak harengan duen eragina azpimarratu du A. Hauser-en lanak.

"Mendez Mendeko Aro Modernoa"n arte barrokoari buruzkoak 357-365. eta hurrengo orrialdeetan ikus daitezke. Aurrekoak ere gogoratu nahi badira, ikus, adibidez, 134-139. orr.

EGJTEKOAK

- a) Euskal Herriko eraikin barrokoen zerrenda bat osa.
- b) Zure herrian dagoen obra barrokoen bat azter. Aurki datuak: noizkoa da, non egina, etab. Berorren elementu barrokoak deskriba. Konpara ezazu Pizkundekoa nahiz Neoklasikoa den eraikin batekin.
- c) Aldera itzazu Euskal Herriko kanpandorreak: begira "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n 386-389. orr.
- d) Pietro de Cortona, Bernini eta Rubens-en obra bana komentatu, horretarako diapositibak edo liburuak bilatu ondoren.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Barrokoko Kontrarreformaren artea dela esan ohi da. Arrazoitu baieztapen hori.
- b) XVII. mendeko krisi garaia bada, nola ulertzen da Barrokoko testuinguru honetan?
- c) Barrokoko ala Ernazimentuko artelanak dira aberatsagoak. Zergatik? Zer esan nahi ote du galdera honek?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Historian zehar, behin baino gehiagotan gertatu da zenbait arazo teknikori ereduzko irtenbideak aurkitu izan zaizkiola, halako edo bestelako eraikinen batean, batez ere ereduak erakunde handi baten eskutik zabaldu denetan. Horixe da Gesù elizarekin jazo zena ere. Kasu honetan, Erromatik gidaturiko Kontrarreformaren eta Jesusen Lagundiaren testuinguru historiko-erlijiosoa gogoratu behar da.

"Ernazimentuko teorikari eta artista handiek, tenpluak hiri-tes-tuinguruan zuen lehentasunezko presentzia aspimarratu zuten. Al-bertik idatzi zuen hau: 'Eraikuntz lanetan ez dago deus trebezia, arreta, lan-aradura eta ahalegin handiagorik behar duenik, tenplu baten eraikuntza eta apainketa baino'. Palladio-k, bestalde, ten-plua hiri gustiaren gainetik jasotzea aholkatzen zuen.

Tenplu-oinplanoaren molde ernazentista ezberdinen arteko ezta-baidaren ostean (zentrala ala gurutze latinozko oinplanoa hobe?) (...). Trento-ondoan bigarren bidea hobetsi zen, eta hori, arazo ideologiko hutsengatik, San Karlos Borromeok laburbiltzen zuenari jarraiki: 'Elizak gurutzezko oinplanoa izan beharko du, tradizioa-ren arabera; zirkuluzko oinplanoak idolo jentilen garaietan egiten ziren, eta oso gutxitan kristau-elizetarako'. Oinplano zentrala espazio trikietarako geratuko da --kaperak--, tenplu handietarako, berriz, basilika tradizionalen oinarrituriko eskema nahiago den bitartean, kupula edo errotonda baten bidez erdigunea nabari utziz. (...). Vignola-k Gesù elizarako asmatutako ereduak (1568) izan zen XVII.eko lehenengo herenaldian Lagundiak mundu osoan zabal-durikoa, 1630az gero garatu ziren proposamen barroko ezberdinak zabaldu aurretik".

(J.L. MORALES Y MARIN, 1987)

1568an enkargatu zitzaion eliza honen eraikuntza Vignola-ri. Josula-gunek eskatzen ziotenari erantzunez, nabe bakarrekoa izango zen: halakoa predikuetarako egokiagoa zelakoan. Eraikuntz molde honen araberako elizak eurrez jaso ziren munduan zehar, jesuitenak batez ere. Hurrengo belaunaldietan hainbat osagarri eta aldakuntza izan zituen: Della Porta-ren portada (1575), Baciccio-ren fresko barrokoak (1672-1679), eta San Inazioaren aldarea (1700).

Arte eta arkitektura barrokoari buruzko lehen albisteak "Mendez Mendeko. Aro Modernoa"n 357-360. orrialdeetan ikus daitezke. Italiakoa: 362-363. orr. Begira, gainera, "Artearen Historia/2": 131-137, 162-165. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egin arkitekto barrokoen lauki kronologiko bat, datak eta obrak emanez.
- b) Euskal Herrian Jesusen Lagundiak eraikitako eliza nagusienen mapa egin.
- c) Joan zaituz eliza horietakoren batera, eta egizu oinplanoaren marrakia. Besterik ezean begira diapositibaren batzuk.
- d) Egizu Loiolako Basilikaren historia labur bat: zer ekarri zen kanpotik, zer bertan asmatu eta egin?

ERANTZUTERAKOAK

- a) Nortzuek eskatzen zioten Vignola-ri eliza eraikitzea?
- b) Prediku-lana erosoagoa izan zedin, zein motatako oinplanoa behar zuen elizak?
- c) Della Porta-k egin zuen Gesù-ko fatxada: Noren ikasle izan zen? Nondik hartu zituen ereduak?
- d) Eraikuntzari hasiera ematean San Frantzisko Borja-koa zen Lagundiaren Jenerala: Nor zen berau? Izan al zuen Euskal Herriarekin zer ikusirik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XVI-XVII. mend.

Goraldi ekonomikoen babesean, errazkiago egin izan dira eraikuntza handiak. Testuinguru horretan leku behar dira Euskal Herriko arkitekturaren historiako mendeak ere. Artelanak inguru sozio-ekonomikoarekin lotzeko aukera ematen digu ondoko testu honek.

"Zenbait euskal probintzian arkitekturaren Urresko Mendea bezala izan zen XVI.a: elizak berreraiki eta handiagotzen saiatu ziren orduan, Ameriketatik etorritako diruari esker batipat.

Baina elizak ez ziren erabat XVI.ean bukatu. XVII.ari geratu zitzaizkion egiteko batzuk: fatxadak egin, dorreak jaso. Horregatik, ez zen eraikuntza berririk egin. Ordena erlijiosoak izan ziren komentu-eraikuntzak jaso zituztenak.

XVIII. mendean aldatu egin zen egokiera ekonomikoa eta hobekuntza honekin batera Euskal Herrian loraldi artistiko berria ezagutu zen, eraikuntza erlijioso eta zibiletan". (M.A. ARRAZOLA, 1985)

Maria A. Arrazola, Donostian irakaslea izan da, San Bartolome ikas-tetxean. Euskal Herriko eta berezikiago Gipuzkoako artearen historilari aintzindaria izan da. Oinarrizko obra da honen "El Renacimiento en Guipúzcoa" (1970). Euskal artearen beronen historia orokor laburra, ik.: "Euskal Herria" (1985) Donostia (Jakin): I, 403-420. orr.

Begira ezazu "Mendez Mende. Aro Modernoa": 385-390. orrialdeetan hitz egiten da Barrokoaz. Orobat: "Artearen Historia/2": 170-172. orr.

EGITEKOAK

- a) XVI. mendea oparoa izan zela frogatzeko dokumentazioa bildu: tarjetak, diapositibak, argazkiak...
- b) Zure herri, eskualde edo hurbileko lekuren batean bila ezazu mende haietako eraikinen bat: hitz egizu lekuko jakitunen batekin. Noizkoa da? Nork egin zuen?
- c) Euskal Herriko mapa batean koka itzazu: 1) XVI. mendeko eraikinak, 2) XVII. ean jasotakoak, eta 3) XVIII. ean eraikitakoak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer esan zenezake Ameriketatik zetorren diruaz eta arte-munduan izan zituen ondorioez?
- b) Zeintzuk dira azkeneko elementuak edifizio bat eraikitzen denean? Zergatik?
- c) XVIII. mendean ordena erlijiosoen komentuen eraikiko dituzte. Bila ezazu hori frogatuko lukeen daturik.
- d) Egin duzun mapari buruz: zein eskualdetan biltzen dira eraikinak? Zeintzuk dira aberatsenak?
- e) Ezagutzen al duzu, XVIII. mendean, Euskal Herrian gertatzen den loraldi artistikoaren beste adibiderik, arkitekturatik aparte?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

XVI-XVII. mend.

Ernazimentuko artelanen eta Barrokoaren esperientzia estetikoaren arteko alde eta kidesunak behin eta berriz aztertu izan ditu artearen historiografiak: arte-historiaren eta kritikarien arteko gai maitatua izan da aspaldidanik bi une historiko haien analisia, elkarren arteko etena edo segidatasuna azpimarratuz. Bi kultur molde osoren arteko zerikusia eta elkarrekiko eragina daude, azken buruan, bi joeron zaleen eztabaidan.

"Batasuna, Pizkundeko arte-lanetan, nolabaiteko koherentzia logiko bat zen soilik, eta orduko irudistakizunak beren osoan elkarren gehigarriak edo zehetasun-batuketa bat ziren. Osotasun horren barnean, osagai ezberdinak oraindik ere beren banakotasunean bereizgarriak gertatzen ziren Pizkundean.

Parteen autonomia erlatibo hau desagertu egiten da Barrokoan. Leonardo edo Raffaello-ren konposizioan osagaiak gozagarriak dira oraindik banaka ere; Rubens edo Rembrandt-en pinturan, ordea, zehetasun batek ere ez du zentsurik bere baitan.

Barrokoko maisuen konposizioak aberatsagoak dira Pizkundekoena baino, baina aldi berean batasun handiagokoak dira. (...). Barrokoan, batasuna ez da 'a posteriori' datorren emaitza, sorkuntza artistikoaren aurrebaldintza baizik". (A. HAUSER, 1951)

Arnold Hauser, Hungarian jaio zen (1892), eta Budapest, Parise eta Berlin-en ikasi zuen, eta Viena-n eta Londres-en izan da irakasle. 1951n eman zuen argitara bere "The Social History of Art" (Londres), gero beste hainbat hizkuntzatarata itzulia, eta gaztelaniaz Guadarrama argitale-txeak argitara eman. Benetan liburu estimagarria.

"Mendez Mendez. Aro Modernoa" liburuan aurki dezakezu gai honi buruzko informazioa, 357-394. orri. "Artearen Historia/2"an ere baduzu hainbat argibide: 126-183. orr.

EGJTEKOAK

- a) Barrokoak bere inguru sozio-kulturala izan zuen: Nola deskribatuko zenuke testuinguru historiko hura?
- b) Pizkundearen eta Barrokoaren kontzeptzio ezberdinak ezagutzeko, aukera itzazu Leonardoren eta Rubens-en obra bana: gonbara bata bestearekin (haren "Azken Afaria" eta bigarrenaren "Jaitsiera", adibidez). Zer esango zenuke testu honen argitan?
- c) Egin gauza bera Raffaello-ren eta Rembrandt-en beste birekin (haren "Athena-ko Eskola" eta honen "Gaueko erronda" hartuz, adibidez).
- d) Eskulturari gauza bera gertatzen al da? Galderari erantzuteko, har oraingoan bi obra eskultoriko (Michelangelo-ren "David" eta Bernini-ren "Apolo eta Dafne" izan litezke, esate baterako).

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer da, zure ustez, "koherentzia logiko batez" osatua egotea?
- b) Zer da, oster, Barrokoaren "konposizioaren batasuna"?
- c) Barrokoan landu zen batasun horrek bai ote du dramatismoarekin, mugimenduariarekin, historia baten aukeratzearekin zerikusirik?
- d) Bi estiloetatik zeinetan aurkituko zenuke baretasun, harmonia, indar, mugimendu, bake, teknika, batasun, kolore edo grina gehiago?
- e) Oro har, zein da, zure ustez, obra landuagoa, Pizkundeko bat ala Barrokoakoa? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

GIZARTEA

XVIII-XIX. mendeak

Agiri historiografiko honetan Ingalaterran eta Gales-en gertaturiko populazioaren hazkuntza nabaria azpimarratu nahi da. Izan ere, mundu osoan eta era askotako faktoreak zirela medio, lurlangintza-aren azkartzeari esker batipat, hazkuntza begetati-boak gora egin zuen. Mende horietan jarri behar da munduko erregimen demografiko zaharraren eta berriaren aldaunea.

"Populazioaren hazkuntzak ez dirudi jaiotza-koefizientearen aldakuntza nabari baten ondorioa izan zenik. (...). Ezta erbesteko etorkin ugarietara egotzi behar zaienik ere (...). Egiaz, hilkortasuna jaisteak ekarri zuen bistanleriaren gehikuntza. (...). 1740-1820etan kasi etengabe jaitsi zen hilkortasunaren ehunekoak" (1740-50ean, 35,8 zen; 1810-20an 21,1 bakarrik).

1700	5.500.000
1750	6.500.000
1801	9.000.000
1831	14.000.000

(T.S. ASHTON, 1948)

T.S. Ashton, historilari britainiarra da (1889-1968). Ekonomi irakaslea izan zen Birmingham, Sheffield eta Manchester-eko unibertsitateetan, eta Londresekoan historia ekonomikoa irakatsi zuen (1944-1954). Batez ere Industri Iraultzaren historia ekonomikoz arduratu zen, eta XVIII. mendearen azken erdialdiko Ingalaterraz egin zuen lan. Garai hartaz badu sintesi labur argi bat: "The Industrial Revolution, 1760-1830" (Oxford, 1948).

"Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuan ikus daiteke zerbait demografiaz. Xehetasun ugariago, ik. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 12-16. orr. Testuinguru ekonomikoa ezagutu nahi bada, "MM/Aro Modernoa"n ik. 399-405. orr. eta "MM/Aro Garaikidea"n 16-26. orr.

EGITEKOAK

- a) Egizu Britainia Handiko mapa bat, eta seinalatu hiriguneak eta migrazio-joerak.
- b) Taula estatistikoetan agertzen diren zifrekin barra diagrama bat osatu.
- c) Azaldu, entziklopedia baten laguntzaz, lauki batean aipaturiko urteotako gertakari politiko eta sozialak.
- d) Saiu zaitetz termino hauek argitzen: Hilkortasunaren tasa, jaiotza-tasa, hazkuntza begetatiboa.
- e) Ea zure hiriko eta probintziako tasak kalkulatzeko dituzun.
- f) Ahalegin zaitetz hilkortasuna jaitsi erazten duten faktoreak deskribatzen.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Zergatik igo zen Ingalaterraren populazioa?
- b) Ingalaterrara etonkin ugari bildu zela ematen du. Zergatik ote? Zein herrialdeetatik zetozen?
- c) XVIII. mendean mundu osoan gertatu zen populazioaren gehikuntza. Gaur egungo joera demografikoekin konparatuz gero, zer esango zenuke?
- d) Laborantza azkartzeak nola ikutu zituen egitura demografikoak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Laborantzaren azkartzeaz idazten du T.S. Ashton-ek pasarte honetan. Hala XVIII. mendearen azkenetan, Ingalaterran lehenik eta Europan gero, laborantza-munduko teknikak eta produkzio-sistemak hobetu egin ziren beste sektore ekonomikoen garapena ere sustatuz.

"Hirurogeitamarren azkenetan, Holkham-eko Coke-k (1752-1842) diru handiak eralgi zituen bere lursailak ontzen, tuparria (=marga) eta hirusta (=trébol) erabiliz, larre eta ongarrri berriak sartuz, maistarrei eginbide erakargarriak eskainiz eta Norfolk-eko nekazariak egindako hobekuntzei sona handia emanaz. Beste aristokrata batzuek, beraien artean Errege Jurgi III.ak ere bai, arretaz hartu zuten laborantzaren hobekuntza... (...).

1776an agertu zen 'Nekazarien Errebista'-ren lehen zenbakia, eta 1806an 'Baserritarren Aldiskaria'-rena. Lur-lanbideei buruzko tratatu batzuek, eta Arthur Young-ek Ingalaterra, Irlanda, Frantzia, Italia eta Espainian zehar egindako bidaiak deskribatzen zituzten argitalpen haien antzekoek, isolamendu-esparrua hautsi eta landa-bizitzan sumatzen zen ikusmolde osotasunik gabe hura ireki egin zuten (...).

Hiriko langilearentzat, laborantzako hobekuntzek erosotasunik baizik ez zituzten ekarri; garagarrari eta zekaleari gariak irabazi zion lekua, erdialdeko lurraldeetako oinarrizko janari bezala, eta oloari, Eskozian eta Ingalaterran. Patata janari arrunta bihurtu zen, eta jada ezin zitekeen esan okela luxuzko platera zenik. Dieta hobe eta bariatuago honek izan zituen bere ondorioak langileen osasunean eta bizi-luzapenean, eta ez da hau industri produkzioaren sabalkundean kausarik trikienetakoa".

(T.S.ASHTON, 1948)

T.S. Ashton, historilari britainiarra da (1889-1968). Ekonomi irakaslea izan zen Birmingham, Sheffield eta Manchester-eko unibertsitateetan, eta Londresekoan historia ekonomikoa irakatsi zuen (1944-1954). Batez ere Industri Iraultzaren historia ekonomikoaz arduratu zen, eta XVIII. mendearen azken erdialdiko Ingalaterraz egin zuen lan. Garai hartaz badu sintesi labur argi bat: "The Industrial Revolution, 1760-1830" (Oxford, 1948).

"Mendez Mendeko Aro Modernoa" liburuan ikus daiteke ekonomiaz zer-bait: 399-405. orr. Orobat, hori osatu nahi bada, begira "Mendez Mendeko Aro Garaikidea"n 16-26. orr.

EGITZEKOAK

- a) Zein klase sozial arduratu zen laborantza aldatzen XVIII.eko Ingalaterran? Egizu grafiko bat eta eman bertan, era batera edo bestera, aldakuntzak ikutu zituenak.
- b) Azaldu Ingalaterrak dituen arazo politikoak (1750etik 1800era: Zazpi Urteko Gerratea eta Gerra Kolonialak...).
- c) Ingalaterrak monarkia parlamentarioa du. Sailka itzazu monarkia honen eta absolutista baten arteko diferentziak.
- d) Ea laburtzen dituzun laborantzak XVIII.aren azkenetan emandako aurre-ra-pauso jakingarrienak (XVIII. mend.). Egin grafiko bat.
- e) Esan zure inguruneke lurlangintza nolakoa den: Mekanizazioa, sorwen tamaina, jabetza-erregimena, produktuen norakoa, etab.

ERANTZUTZEKOAK

- a) Testua irakurri azaldu arabiarren laboreen funtzioa. Eta patatarena?
- b) Nondik ekarri zuten patata? Zergatik bilakatu zen hain janari herritarra?
- c) Lurrak ondu egin ziren, teknika hobea batekin: nolako teknikak ziren hauek?
- d) Zergatik ongarriztatzen dira lurrak?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1760-1860

Testu historiografiko honetan, Ashton irakasleak Industri Iraultza, bilakaera orokor bat bezala aurkezten digu. Hau da, gehiago da garapen bizkor eta bizia, bapateko aldakuntza baino. Hala ere, aldakuntza haiei eman ohi zaien "Iraultza" izendapena mantendu egiten du autoreak, historiografian ontzat emanda dagoen terminologia onartuz.

"Aldakuntzak ez ziren 'industrialak' bakarrik izan, sozialak eta intelektualak ere izan ziren. Bestalde, 'iraultza' hitzak adierazten duen bapateko aldakuntz moldea ez da prozesu ekonomikoetan bereizgarriena. 'Kapitalismoa' deitu izan den gizakien arteko harreman-sistemak 1760a baino askoz geroago lortu zuen bere garapen osoa. 'Industri Iraultza' esamoldean badago, ba, segidatasunaren oinarriko faktorea ez ikusteko arriskurik. Hala ere, historilari askok erabili du 'Industri Iraultza' esaera hori, eta oso-osorik onartua izan da hiskera arruntean ere; alferrikakoa ere izan daiteke, beraz, beste esamolde batekin trukatzeari.

Aro honen historia sozialean nabariena --hau da, aurreko aroetatik agiri-agirian bereizten duen alde-- biztanleriaren haszkuntza askarra da.

Ezin daiteke esan populazioaren haszkuntza hori jaiotsa-tasan izandako aldakuntza nabarmenen baten fruitua izan zenik. (...). Bestalde, XVIII. mendean zehar, kasik milioi bat bizilagunek utzi zuen Britainia Handia, bizileku berrien bila, kolonietarantz bates ere. (...). Egiaz, hilkortasunaren jaitsiera izan zen biztanleria gehitu zuena.

Hilkortasuna urritzeko eragin esberdin asko egon zen. Tuberkuluen laboreak sartzean, neguko hilabeteetan ganadu-buru ugariago mantendu ahal izan zen, eta horrela, herrian urte osoan izan zen okela freskorik. Zereale apalagoen ordez garia sartu zen, eta, baraskien kontsumua gehitzean, gaitotasunen aurka indartu egin zen jendea. Xaboi arruntaren eta kotoi merkeko barne-erroparen erabileraren artetik garbitasun pertsonal zainduagoa ekarri zuen eta, ondorioz, infekzioen arriskuak gutxitu egin ziren".

(T.S. ASHTON, 1948)

T.S. Ashton, historilari britainiarra da (1889-1968). Ekonomi irakaslea izan zen Birmingham, Sheffield eta Manchester-eko unibertsitateetan, eta Londresekoan historia ekonomikoa irakatsi zuen (1944-1954). Bates ere Industri Iraultzaren historia ekonomikoaz arduratu zen, eta XVIII. mendearen azken erdialdiko Ingalaterraz egin zuen lan. Garai hartaz badu sintesi labur argi bat: "The Industrial Revolution, 1760-1830" (Oxford, 1948).

"Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuan ikus daiteke ekonomiaz esaten dena: 399-405. orr. Orobat, hori osatu nahi bada, begira "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 16-26. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egin XVIII. mendeaz eskema orokor bat, demografia, egitura sozialak edo arlo ekonomikoak azalduz.
- b) "Industri Iraultza" deitu izan da aldakuntz garai hau; baina ez zen izan industriala soilik, ez uneko eztanda bat ere. Zer diozu hontaz?
- c) Eman lauki batean testu horretan azaltzen diren aldakuntz faktoreak, sailkatuta eta elkarren zerikusia adieraziz.
- d) Entziklopedietan edo "Mendez Mende"n (bietan) bila Ingalaterraren eboluzio demografikoa: jaso datuak grafiko batean.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik aipatzen da 1760ko urtea testuan?
- b) Kapitalismoa polimorfikoa da: Zenbait mota ezagutzen dituzu?
- c) Industri Iraultzarekin lurraldeen garapen ekonomikoa dator, baina beti hala gertatzen ote da?
- d) Gaur egun bestelako "iraultza" batzuk ere aipatzen dira: Zeintzuk?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1750

XVIII. mendeko garraioez ari da hemen historilaria, eta garraioen hobekuntza Industri Iraultzaren aurrebaldintza bezala ikusten du. Ashton-ek garraio-sistemaren berezitasun batzuk deskribatzen ditu; XVIII. mendeko Ingalaterran berorrek zituen zailtasun eta oztopoak agertzen dizkigu.

"Garraio-zailtasunak ezartzen zion produktibitate-muga industriari bere osoan, ez meatz-zuloetan bakarrik, baita aire zabalean ere. Iparraldean, zurezko erreiengain egiten zen harrikatzaren garraio-lana, meatzetatik ibaietara zihoazen bagoien bidez. 300 edo 400 tona osatzen zituen mila bat ontzik portu urrunetaraino eramaten zuen harrikatza. Barnekaldeko ikatz-eskualdeetan ez zegoen horrelako garraio-sistemarik; hauetan, zaldi-mandoz eramaten zen harrikatza, edota oso txarrak ziren bideetan zehargurdiz".

(T.S. ASHTON, 1948)

T.S. Ashton, historilari britainiarra da (1889-1968). Ekonomi irakaslea izan zen Birmingham, Sheffield eta Manchester-eko unibertsitateetan, eta Londresekoan historia ekonomikoa irakatsi zuen (1944-1954). Batez ere Industri Iraultzaren historia ekonomikoaz arduratu zen, eta XVIII. mendearen azken erdialdiko Ingalaterraz egin zuen lan. Garai hartaz badu sintesi labur argi bat: "The Industrial Revolution, 1760-1830" (Oxford, 1948).

Garraioaren historiak Gizadiaren historia orokorrean leku handia du. Aurreko zibilizazioak gogoratu gabe ere, ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa": 400-403. "Mendez Mende. Aro Garaikidea": 19-23. or.; 73, 74, 75, 76, 85, 88, 98, 101, 108, 285, 310 (irudiak).

EGJTEKOAK

- a) Koka, Ingalaterrako mapa batetan, garai honetako meatoki garrantzitsuenak. Nora zuzentzen zen produkzio hori? Zeintzuk dira garraiorako itsas portu inportanteenak? Non daude garraiorako erabiltzen ziren ibai eta kanaleak?
- b) Ingalaterrako Industri Iraultzaren kronologia labur bat egizu.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zergatik dio Ashton-ek garraioaren hobekuntza industri garapenaren aurrebaldintza dela?
- b) Nolako aurrerapenak gertatu ziren Ingalaterrako garraioetan XVIII. mendean? Hala ere, noiz etorriko da garraioetako benetako iraultza, eta, berarekin batera, industrializazio-momenturik nabariena?
- c) Garraio-sistema egoki eta garatu batek, nolako zerikusia du merkatuaren egituraketarekin?
- d) Zer da nazio-merkatua?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

Ekonomia aldarazi zuten asrakuntzei buruz ari da testu hau, hots, Industri Iraultzaren hasieran sortutako boom teknologikoaz hitz egiten du; horretarako, urte bakoitzeko asmakuntzen kopuruak eskaintzen dizkigu. Baliabide teknikoak eta ekonomia-aren garapena elkarrekin lotuta joan ohi dira, beti ere.

"Asmakuntzen garapena ongi ikusten da patenteen arduradunek ziztusten zerrendetan. 1760aren aurretik urtean ematen ziren patenteen kopurua ez zen ia inoiz dozenatik pasatzen, baina 1766an 31taraino egin zuen jauzi, eta 1769an 36taraino. Urte batzutan, kopuru honen aspitik egon zen eskea, baina 1783an berriz ere jauzi bat gertatu zen, 85etaraino igoz. Hurrengo zortzi urteetan 67 inguru izan ziren urtero, 1802an ostera ere gora eginez, 107taraino oraingoan".

"Beste goren puntu batzuk 1813. eta 1818. urteetan lortu ziren, baina ez ziren aurrekoa bezain garrantzitsuak izan. Hala ere, 1824ean beste goren puntu bat lortu zuen patenteen kopuruak, 180koa, eta hurrengo urtean hobetu egin zen oraindik marka, 250ko kopuru sinestezinarekin. Gaitzasmoz uste dutenei, gerra aurrerapen teknikoaren bultzasaille dela, ikuseraztea dago, ezen lehen aipaturako goren puntuak --1766, 1769, 1783, 1792, 1802 eta 1824-25ekoak alegia-- bake-garai batean gertatuak direla. Eta haizeak nondik joko duen iragartezina dela uste duten besteek, berriz, hobe luke te pentsatu, ezen data horietako bakoitzean, aurreko tipoa baino trikiagoa zela interes-tasa, eta data horietan gustietan handiak ere oso handiak zirela irabazi-itzaropenak". (T.S. ASHTON, 1948)

T.S. Ashton, historilari britainiarra da (1889-1968). Ekonomi irakaslea izan zen Birmingham, Sheffield eta Manchester-eko unibertsitateetan, eta Londresekoan historia ekonomikoa irakatsi zuen (1944-1954). Batez ere Industri Iraultzaren historia ekonomikoaz arduratu zen, eta XVIII. mendearen azken erdialdiko Ingalaterraz egin zuen lan. Garai hartaz badu sintesi labor argi bat: "The Industrial Revolution, 1760-1830" (Oxford, 1948).

Zientzien aplikazio teknikoaz "Mendez Mende. Aro Modernoa"n badituzu albiste batzuk: 405-408. orr. Horren segidako beste hainbat, begira "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n 128-140. orr.

EGJTEKOAK

- a) Urteak eta patente-kopuruak gogoan izanik, egin guzti horren grafiko bat. XVIII.eko aurrerapen teknologikoak erakutsiz.
- b) Marrazki batean aditzera eman, ezagutzen dituzun garaiko asmakuntzak eta hauekako bakoitzak hobetu nahi zuen esparru sozio-ekonomikoa.
- c) Grafiko batean eman elkarrekin asmakuntzak (patenteak), bakealdiak eta krisi ekonomikoak.

ERANTZUTEKOAK

- a) Laburbil ezazu agiriaren ideia nagusi ardatza.
- b) Zure ustez, zer da eraginkorrago aurrerapen teknologikoetan, bakea ala interesak? Zergatik?
- c) "Garapen ekonomikoak, bultzatu du Teknologia", edo "Teknikaren garapen mailak bultzatu du Ekonomia": baieztapen horietatik zein hobetsiko zenuke?
- d) "Gizon orok bere eskuetan dauka aberaspidea" esan zuen W. Hutton-ek (1780): Egia ote da hori? Zergatik esan ote zuen? Eztabaida ezazue esaldia.
- e) Industri Inaultzako arazo hauek gaur ere bizirik ote daude? Nola lotzen dituzu teknologia eta lan-mundua?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

EKONOMIA

1750-1790

Jakitunen bilaketa zientifikoak eta meatz eta lantegietako lanak sarritan eman zioten eskua elkarri. Elkarren arteko laguntza hauei esker ere egin zuen aurrera Industri Iraultzak, XVIII. mendeko Ingalaterran; baina hamarkada batzuk lehenago ez zen batere erraza agiri zientziaren eta lan-munduaren arteko lankidetzeta, eta beronen gizarteratzea. Urteak pasa hala, bizkortu egin zen prozesua.

"Laborantzarako metodo berrien bila zebilela, arduratu zen James Hutton eskoziarra lurpearen eraikiduraz; gero egin zituen aurkikuntzen ondorioz, garaiko geologorik sonatuena bilakatu zen Hutton, baina lan gusti honek bazuen zerikusirik orduko hondeatzeko makinekin (...).

Franklin, Black, Priesley, Dalton eta Dave bezalako fisikari eta kimikariak industria britaniarreko gidariekkin harreman hertsietan egon ziren. Joan-etorri handia egon zen laborategien eta lantegien artean, eta Watt, Wedgwood, Reynolds eta Keir bezalako asmatzaileak laborategi haietan bezain gogoz egon zituzkeen lantegi haue-tan ere".

"Erret Lagunarteko kide bezala apuntaturik aurkitzen diren izenek, injineru, burdin fabrikatzaile, kimikari industrial eta instrumentu-fabrikatzaileenek, adierazten dute garai hartan zientziaren eta praktikaren artean segoen lotura estua.

Autore eta inbentoreak, industrilari eta enpresariak --eta ez da erraza hauek elkarren artean bereiztea hain aldaketa biskorrak dituen gure hautuko garai honetan-- gizarte-maila gustietatik eta herrialdeko baster gustietatik atera ziren. Aristokraten artetik Ford Lovell eta Coke Holkham-ekoa; elizgizon eta parrokoen artetik Edmund Cartwright. Medikuen artean John Roebuck eta James Keir ikerketa kimikoari lotu zitzaizkion eta eskala handiko enpresari egin ziren.

Abokatu, soldadu, enplegatu publiko eta gizarte-maila apaletako gizonak, beren jatorrisko bokazioan baino askoz ere aurreratzeko modu handiagoak aurkitu zituzten manufakturretan. Orduan mugigarritasun bertikalak lehenagoko inoizko garaietan izan zuena eta agian gerokeotan sekula izango duena baino maila handiagoa lortu zuen".

(T.S. ASHTON, 1948)

T.S. Ashton, historilari britainiarra da (1889-1968). Ekonomi irakaslea izan zen Birmingham, Sheffield eta Manchester-eko unibertsitateetan, eta Londresekoan historia ekonomikoa irakatsi zuen (1944-1954). Batez ere Industri Iraultzaren historia ekonomikoaz arduratu zen, eta XVIII. mendearen azken erdialdiko Ingalaterraz egin zuen lan. Garai hartaz badu sintesi labur argi bat: "The Industrial Revolution, 1760-1830" (Oxford, 1948).

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n ikus daitezke aurrerakuntza teknikoei buruzko oharak: 405-408. orr. "Mendez Mende. Aro Garaikidea"n ere topa litezke puntu jakingarriak: 128-140. orr., edo 513-517. orr.

EGITEKOAK

- a) Egizu amatzaile horien zerrenda biografiko txiki bat.
- b) Adieraz grafiko batean amakuntzek nola sustatu zuten hemen azaltzen den aldakortasun soziala.
- c) Eman, Britainia Handiko mapa batean, amatzaileen sorterriak eta gero-ko beren lan-leku soziala.
- d) Galdetu etxean edo ezagunei, herriko aberatsen familiarteko ondásunak nondik sortuak diren: nekazaritza, industriatik ala nondik?

ERANTZUTEKOAK

- a) Nola azalduko zenituzke, idatziz, agiriko testuan deskribatzen diren gertakariak?
- b) Amatu, erabili, zabaldu, produzitu... Zein da amakuntza baten unerik sozialki garrantzitsuenak?
- c) Teknologiak eta marketing-ak badute sistema ekonomikoan elkarrekin zer ikusirik: Nola esplikatuko zenuke hori.
- d) Teknologia berrien lasterketaz zer esango zenuke? Beharrezkotzat jotzen duzu? Kaltegarri? Emankorra?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1751-1764

XVIII. mendeko kultur bizitzan "Entziklopediak" leku garrantzitsua izan zuen. Kultur bilduma izateaz aparte, tresna ideologikoa gertatu zen, beti ere ikuspegi ireki eta kritiko batekin. Izpiritu kritiko hura Erregimen Zaharreko sistemaren aurka joan zen, egiturak aldaraziz. Ondoko belaunaldietan ere izango du indarrik obra honek.

"Argien Filosofia deituaren arrakasta segurtaturik zegoen 1760-aren inguruan. Beren buruei 'filosofo' deitzen zieten idazleek sortua zen, eta nobela, libururka, eskutitz eta elkarrizketetan, tratatu sistematiko eta hiztegietan zabaldu zuten 'Filosofia' hura.

Hiztegi bat izan zen XVIII. mendeko 'Suma Filosofikoa', d'Alembert eta Diderot-en *Encyclopédie* delakoa. Honen lehenengo liburukia 1751n asaldatu zen, ustailaren batean, eta d'Alembert-en sarre-hitzaldi bat zuen. Agintariek jarri zizkioten eragozpen guztiak gorabehera, askenik 1764ean bukatu zen obra osoa: 17 liburukitan eman zen testua eta 11tan laminak. (...)

Encyclopédie-ko idazlanetan 130 lankidek hartu zuen parte: abokatuek, medikuek, irakasleek, apaizek, akademikoek, industri gizonak eta fabrikariek; hauetatik gehienak posizio onekoak ziren eta titulu ofizialak zituzten. Prezioagatik burgesia handi 'argiztatua'ri zuzenduta zegoen, obra burgesa zen. 'Filosofo'rik nagusiak (Voltaire edo Diderot bezalako poligrafoak, Montesquieu-ren gisako juristak, d'Alembert-en antzeko matematikariak) burgesiaren maila esberdinetatikoak izan ohi dira, edo noblezia parlamentario magistratuak, hau da, burgesiatik espata-noblezia baino hurbilago zeudenak. Garaiko pentsamendua, aurreko mendeetan baino askoz burgesagoa da".

(R. MOUSNIER, 1967)

Roland Mousnier historilari frantsesak, Frantziaren Aro Modernoa aztertu du, batez ere: hau da, XVI-XVIII. mendeak. Frantziako izen handi sagaratuetakoa bat da, noski, historilarietan. Ikerlan mugatuagoen ondoan, Historia Unibertsalari liburu eder bat eskaini dio (XVI-XVII. mend.): sintesi irakurgarri eta bizia (Barcelona: Destino).

Entziklopediaren gertakari kulturala "Argien Mendea"ren barnean ulertu behar da. Testuinguru hau ezagutzeko ik. "Mendez Mendeko Aro Modernoa"n 409-418. orr. Interesgarriak dira batez ere 412-413 eta 416-418.etan Euskal Herrikoaz esaten direnak.

EGJTEKOAK

- a) Azter XVIII. mendeko egoera sozio-ekonomikoa Frantzian. Ez ahantzen burgesiaren eragina.
- b) Ardatz kronologiko batean adieraz XVIII.eko gertakari eta une politiko jakingarriak.
- c) Hiriburuen batean bizi baldin bazara, bila hiriko bibliotekaren batean (Diputazioan, Unibertsitatean, Euskaltzaindian...) "Encyclopédie"ren edizio modernoren bat: deskribatu ikasgelan nolakoa zen obra hura.
- d) Bila gaur eguneko entziklopediaren batean XVIII. mendeko beste haren historia xeheagoa.
- e) Gaur eguneko Entziklopedia on bat deskriba ezazu. Bai al daukazu etxean honietakoren bat: zein alde on nahiz eskasago aurkitzen diozu?

ERANTZUTEKOAK

- a) Norentzat pentsatua zegoen Entziklopedia?
- b) "Entziklopedia" hitzaren erroak, zer esan nahi du? Zenbat hizkuntza ezberdinetan erabiltzen da?
- c) Testuan, "Filosofia" hitzak adiera zabala du: zer esan nahi du? Noiz mugatzen da bereziki bere esanahia?
- d) Entziklopedian, testutik aparte, badaude irudi argigarriak: zertarako erabili ziren irudiok?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

KULTURA

1754

J.-J. Rousseau (1712-1778). Rousseau-k ez du gizaki sozial eskolatuaz entziklopedistek zuten baikortasunik: jatorrizko gizaki naturalean du berak usteona. Zibilizazioaren gizatasunik eza salatzen du bere obran: gizarteko aurreramenduek hondatu baizik egin ez duten "basati ona"ren min da Rousseau. Ikusmolde erromantiko ezkorra aurkeztu zuen Dijon-eko Akademiak prestatutako lehiaketa literaria (1750): "Zientzien eta Arteen garapenak, ondu egin al ditu giza ohiturak?" galdetzen zen: Ezetz erantzuten zen Rousseau-ren idazlan irabazlean.

"1754ean 'Discours sur l'origine de l'inégalité' eman zuen argitaratu Rousseau-k. Garai hartan ohi zenaren arabera, jatorrizko egoerako basati onaren erretratua ematen du, berau grazi egoeran begiratuz alegia: sendoa eta askarra, bakartia, senekoa, erabat zoriontsua. 'Gogoeta-egoera egoera antinaturala da... gogoemanean dabilen gizakia animalia endekatua da'.

Baina badauka bere burua hobetzeko ahalmen zorizaiztoko bat. Urte agorrek, negualdi luzeek eta uda beroek, uholde eta lurrikarrek beste gizabanakoekin elkartzera behartzen dute, eta ehiztari-taldeak lehenik eta artzain-taldeak sortzera gero. Taldekatze hauek sortzen dira espak, liskarrak, handiusteak, mezpretzua.

Halako batean halabeharrez burdina aurkitzen da, eta hau izan zen laborantzarako baldintza basterrezina. Gizakiek, laborari bihurtuta, lurra banatu eta jabetasun indibiduala eratu behar dituzte: Harez gero dena hondatu da, jatorrizko bekakua eginda dago, 'espezietaren makurraldira' goaz.

Jabetasunak, ezberdintasunei ematen die leku, lehiaketari eta etsaigoari, handinahi eta lukurreriari, inbiduari, gaiztakeriari, klasearteko borrokei, gerrei. Nahitaez buruzagi bat aukeratu beharra dago; buruzagia, ordea, tirano bilakatzen da".

(R. MOUSNIER, 1967)

Roland Mousnier historilari frantsesak, Frantziaren Aro Modernoa aztertu du, batez ere: hau da, XVI-XVIII. mendeak. Frantziako izen handi sagaratuetakoa bat da, noski, historilarietan. Ikerlan mugatuagoen ondoan, Historia Unibertsalari liburu eder bat eskaini dio (XVI-XVII. mend.): sintesi irakurgarri eta bizia (Barcelona: Destino).

"Argien Mendean" ez zuten pentsalari guztiek gisa bereko pentsamoldea. Rousseau aldendu egin zen "filosofetatik". Testuinguru historiko hura ezagutzeko, Ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa"n 409-418. orr.

EGITEKOAK

- a) Frantsesez ulertzen baduzu, bila Entziklopedia frantses batek Rousseauri buruz zer dioen. Bestela, berriz, gaztelaniara edo euskarara itzultako obra frantses batean begira.
- b) "Basati Ona"ren hezkuntz bideak bai ote du giza historiaren ibilbidearekin parekotasunik? Grafiko batean eman ditzakezu aldeak eta antzak.
- c) Testuak iradokitzen duenez, halabeharrezkoa da gizakiaren bizitza, inguruak bortxatua: ikasgelako lagunartean, taldean eztabaida ezazue puntu hau.
- d) Andatz kronologiko batean eman XIX-XX. mendeetako Zientzien ekarri onak eta ondorio txarrak. Benetako aurrerapena ekarri dute, ala ez?
- e) Botereak usteldu egiten du gizakia, edo, Rousseau-k diuen bezala, gizarte-antolamenduak hondatzen du gizabanakoa. Eman horretaz eritzi kritiko bat.

ERANTZUTERAKOAK

- a) Rousseau-k proposatzen duen hasierako garai zoriontsuak ez al du Biblical antzekorik?
- b) Zeintzuk dira jabeago pribatuak giza harremanetan izan ditzakeen lekua eta garrantzia?
- c) Teoria hauetan bai al dago lekurik itxaropenarentzat?
- d) Animalia basatiak bakartiak balira bezala deskribatzen ditu, baina gaur egun badago disziplina berri bat, animalien arteko abararteak ikertzen dituenak: Nola du izena Zientzia horrek?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

XVIII. mendean, kultur berpizte bat ezagutzen baldin bada, goraldi honen adibide hoberenak Adiskide Elkargoak ditugu, dudarik gabe. Hauen artean gehien nabarmendu zena Euskal Herriaren Adiskideena izan zen "Azkoitiko zalduntxoak". Peñaflorida Konteak eta Narros Markesak sortutako elkarte hau aberasgarri izan zen, bai Europako zientzia ekarpenak biltzen, eta baita Euskal Herrian bertan ekinbide berriak urratzen.

"Kulturaren eta lanaren arloan Karlos III.aren erreinaldian, nabariena Euskal Herriaren Adiskideen Erret Elkargoa da. 1748an, Peñaflorida konteak Azkoitian sortua, Karlos III.aren garaian lortzen du bere garrantzi osoa. Araba-Bizkaietara zabaldu zen.

Lau sailetan eratu zen: Laborantza eta Nekazar Ekonomia, Zientzia eta Arte baliagarrik, Industria eta Merkatalgoa, Historia eta Letra Ederrak. Frantses eragina da, alde handiarekin, Elkargoa sortzean eta garatzean biziarena, ohizkoa bait zen orduko euskal familia aberatsetan semeak Frantzia hezitzea.

Ondorio bikoitza izan zuen jokabide honek: Entziklopedizaleen ideien eragina, alde batetik, eta, bestetik, zientzia esperimentalen ikasketarako joera, mende hartan hain berarizkoa zena".

(F. SOLDEVILA, 1973)

Ferran Soldevila (Barcelona, 1894-1971), historilari katalana da. Barcelonan eta Parisen ikasi zuen. Geroztik Unibertsitateko irakaslea eta Aragoako Artxibategiaren arduradun nagusia izan zen. Aragoa eta Kataluniako Historiak izan dira batez ere landu dituen arloak. Ez da ahantzi behar, gainera, Espainiaren Historia orokor handi bat ere badue-la, batipat periferiatik ematen duen ikusmoldeagatik interesgarria.

"Mendez Mende. Aro Modernoa"n ikus daitezke "Argien Mendez" oinarritzko albisteak: 409-418. orr. Horietan Euskal Herriaz ari diren orrialdeak: 417-418. orr.

EGJTEKOAK

- a) Egizu Europaren mapa bat: eman bertan "Argien Mende"ko kulturgunerik bizienak.
- b) Euskal Herriko eta Espainiako mapa banatan adieraz Elkarrekin Ekonomia Egoitzak, aldiberean ekintzak eta urteak ere aditzera emanez.
- c) Gaur egun ere, beste era batean, bizirik dago "Azkoitiko Zalduntxoek" sortutako Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak: bila ezazu beraien aldizkari edo argitalpenen bat.
- d) XVIII. mendeko Euskal Herriaren berrikuntza tekniko-ekonomikoa egin nahi izan zituzten: Xede haiek gaur egun nola har litezke aintzakotzat?

ERANTZUTEKOAK

- a) Elkargo honen partaideak irakurtzen al zuten "Entziklopedia"?
- b) Nontzuk lortu zituzten aurrerapen teknikoaren habarokinak?
- c) Zein izan zen Elkartearen ikurra? Zer esan nahi du?
- d) Zeintzuk izan ziren Elhuyar anaiak? Zer lortu zuten?
- e) Adiskideen Elkartearen betekizunak zein erakundetan daude banatuta gaur egun gure euskal gizartean?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

1756-1763

XVIII. mendearen erdialdean gertatu zen Zazpi Urteko Gerrateari buruz hitz egiten digu testu historiografiko honetan M.S. Anderson-ek. Gerrate honek Europako kontinentean oreka hegemonikoak aldatu bazituen ere, gerra hark nagusitasun kolonialean izan zuen eragina azpimarratzen du bereziki hemen autoreak.

"Britainiaren itsas nagusitasunak ondorio sakonak izan zituen kolonia frantses eta britainiarretan gertatutako gorabeheretan. Beste zernahiren gainetik, nagusitasun hark zera esan nahi zuen: Galeraz sitekeela, alegia, Frantziak Europan zeukan nagusitasun materiala itsasoan ere pareko nagusitasun bihurtzea. (...). Gertatzez, Zazpi Urteko Gerratean (gataska anglo-frantsesaren egiazko krisi-unean), Frantziak Europan armatan zeuzkan 300.000 lagunetatik oso gutxi izan ziren itsasaraindi bidalitakoak. Muntaren bat izan zuten bi espedizio kolonial frantses bakarrek (bata Montcalm-ena, Kanadara; bestea Lally-Tollendal-ena, Indiara) bien artean 10.000 bat arma-gizon izan zituzten, ez gehiago. Ingalaterrak, aitzitik, 1757an 70.000 soldadu erregular zeuzkan Ipar Ameriketako kolonietan bakarrik". (M.S. ANDERSON, 1964)

M.S. Anderson historilari ingelesak batez ere Europaren XVIII. mendea aztertu du, mende hari buruz liburu eredu bat idatziz. Sintesi bezala oso lan erabilgarri da obra hori. Gaztelaniara itzulita, Aguilar Argitaletxeak kaleratu zuen.

XVIII. mendeko gorabehera politikoei buruz "Mendez Mende. Aro Modernoa"n begira 396-343. orr. Zazpi Urteko Gerrateari buruz badago laburpen bat ere: 423-424. orr.

EGJTEKOAK

- a) Munduko mapa batetan, XVIII. mendeko erdialdean zegoen egoera koloniala koka ezazu. Zazpi Urteko Gerrateak ekarri zituen aldakuntzak azpimarratuz.
- b) Egizu XVIII. mendean gertatu ziren gorabehera militarren kronologia bat, partaideak bereiziz.

ERANTZUTEKOAK

- a) Gerrate honek bi kapitulu izan zituela esan daiteke: bata kolonietan, bestea Europan. Zeintzuk dira partaideak eta bakoitzak dituen interesak?
- b) Noiztik zetorren Ingalaterra eta Frantziaren jarrera kolonial hau?
- c) Zeintzuk izan ziren, zure ustez, jarrera kolonial hauen arrazoiak?
- d) Frantzia eta Ingalaterraren arteko gatazka kolonial hauak, noiz izan zuten jarraipena?
- e) Testuan ez da Espainia aipatzen; baina zein izan zen berorren jarrera? Zergatik?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.

POLITIKA

Europako hizkuntza gehienetan hitz egiten da "argien mendeaz": hala nola, gaztelaniaz "el siglo de las Luces" esan ohi dute, italieraz "Ilustrismo", frantsesez "Âge des Lumières", ingelesez "Enlightenment" eta alemanez "Aufklärung"... Denek argien irudia darabilte mende hura deskribatzeko. Errege absolutuen boterea ere testuinguru hartan "argiztatu" egin zen, demokrazia izan gabe, despotismo argiztatu bat bederen izan zedin...

"Subiranoak, edo 'despota argiztatuak', beren Estatuaren lehenen zerbitzariak dira; arrazoimenaren izenean, osorik zahar-berritu nahi dituzte. Estatuok 'arrazoizko' erreformak ezarri nahi dituzte menpekoei: sarrerak gehitzeko herri-zamen bidezko banaketa; esanekoagoak izan daitezten, probintzia eta hiriei administrazio geroz eta berdinago bat eman nahi diete; aristokrazia apalagotuko duen oreka politiko-soziala; menpeko guztien gaitasun esberdinez baliatu ahal izateko erlijio-tolerantzia; ekonomia gidatu bat, merkantilismoa, beti ere produkzioarako beharrezkoak diruditen libertatez leundua. Hau dena, hizkera 'filosofiko' batekin emana".

(R. MOUSNIER, 1967)

Roland Mousnier historilari frantsesak, Frantziaren Aro Modernoa aztertu du, batez ere: hau da, XVI-XVIII. mendeak. Frantziako izen handi sagaratuetakoa bat da, noski, historilarietan. Ikerlan mugatuagoen ondoan, Historia Unibertsalari liburu eder bat eskaini dio (XVI-XVII. mend.): sintesi irakurgarri eta bizia (Barcelona: Destino).

Ikus "Mendez Mende. Aro Modernoa" liburuan Europako Despotismoaz esaten dena: 419-420. orr. Garaiko intelektualak Frantzian: 411-413. orr. Euskal Herrikoaz, berriz: 417-418. orr.

EGITEKOAK

- a) Seinala ezazu Europako mapa batean 1714. urtean Europako egoera nolakoa zen.
- b) Nola omango zenuke grafiko batean Despotismo "argiztatu"ak botereaz duen eskema?
- c) Aipa ezazu XVIII. mendean zientzi mailan egindako sei asmakuntza garrantzitsu.

ERANTZUTEKOAK

- a) Zer da Ilustrazioa? Zeintzuk dira haren printzipio nagusienak?
- b) Esazu Montesquieu, Voltaire eta Rousseau-ri buruz dakizuna.
- c) Zer da Entziklopedia?
- d) Zer dakizu Euskal Herriaren Adiskideez, Peñaflozida konteaz edo Aita Larramendi-ri buruz?

Fitxa honetatik hasita lan-programa berriak asmatzeko, gidaliburuko lan-gidoi orokorrak (I.: 29. or.; II.: 32. or.) nahiz monografikoak (35. or.) begira litezke: aski da lan-gidoietan fitxa honen kodea bilatu eta, denboran zehar, nahiz gai-barrutika, edota aztergai monografiko bezala, ondoko beste kideko kodeak aukeratu eta urteko agiri-programa osatzea.